goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2014-01-17
EGUBAKOITZA
581. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Ezinbestekoa da Historia eta bere kontakizuna berrikustea"



Josemari Velez de Mendizabal | Idazlea | 8

## Bost urte termitak akabatzeko

Arrasateko alde zaharreko sei kaletan egingo dute lan | 11

Enplegua, ongizatea eta inbertsioak lehentasun Arrasaten | 12



Ia 190 umek kantuan jardungo dute Arrasaten, bihar | 34



Ia 17 milioi euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak | 18



Alfredo Gonzalez Chirlaque:

# "Musikaren alorrean ikasi dudan guztia aitarengandik ikasi dut"

Gaur, barikua, kontzertua egingo du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergarako Udal Pilotalekuan bertako bandako zuzendari izandako musikari handia omentzeko | 15 eta 32

Patrizia Gonzalez Chirlaque eta Alfredo aita-alabak Bergarako Musika Eskolan; biribiltxoan, Miguel Gonzalez Bastida zena, Bilbon errekonozimendua egin ziotenean. | JAGOBA DOMINGO / GOIENA

## Mariasun Pagoaga, 'Lasa eta Zabala' filmean

Seigarren filma du Doke Antzerki Taldeko aktoreak | 34

# Berrerabiltzearen filosofia: Kafekonpon

Hondatutako gailuak musu-truk konpontzen dituzte | 2

Hileko bigarren eguaztenetan Bergarako San Joxepe erretiratuen elkartean apurtutako gailuak konpontzeko taldea elkartzen da. Berrerabilpena bultzatzea da Kafekonpon ekimenaren helburua. Hori lortzeko, musu-truk konpontzen dituzte bertara eramaten dizkieten tresnak. Hori guztia kafe baten bueltan eta lagun artean. Europako hainbat hiritan ere egiten dute ekimen bera: *Repair cafe.* | 2

**SINADURAK**



Maitasuna sendagai | 6
JEXUX URMENETA



Ipuin kontalari boluntarioak | 6
LARRAITZ ZEBERIO



Irati libre | 26
ANDERE ARRIOLABENGOA



Kaka | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 36 | NON-ZER 38

# Botatzea azken aukera izan behar delako, Bergaran, Kafekonpon

- Hondatutako gailuak konpontzen dituzte, hilero
- Musu-truk egiten dute, berrerabilpena bultzatzeko



Disko-jogailua konpontzen, buru-belarri. | JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Hileko bigarren eguaztena; San Joxepe erretiratuen elkartearen egoitza. Eduardok txigorgailua zuen hondatuta eta Iñakik konpondu dio. Iñakik ez zuen bilobaren jostailua konpontzen asmatzen, baina Felipek lortu du lan askorik gabe. Pili pozik dago hondatuta eramandako gailu guztiak konpondu dizkiotelako, eta berak gauzak berrerabiliz berriak nola sortu erakutsi die lagunei; Juan Carlosi, besteak beste. Lanpara egiten ikasi du Juan Carlosek, eta mekanika alorreko ezagutza partekatu besteekin. Kafekonpon.

Bergaran, orain hilabete batzuetatik hona, hondatutako gailuak konponduz eta, ondorioz, berrerabilpena bultzatuz egiten ari diren ekimenean, bultzatzaileetako bat da Iñaki Alberdi. Kafekonponen, kafetxo bat hartuz elkartu ohi dira hileko bigarren eguaztenetan San Joxepe erretiratuen elkartearen egoitzako gela batean. Askotariko gauzak konpontzen trebeak diren dozena erdi bat lagun dira oraingoz –ateak irekita dituzte nahi duten guztientzako–, eta herritarrek eramaten dizkietenak konpontzen saiatzen dira, musu-truk, berrerabilpenagatik. Herritarrek, edozeinek eramandakoak, edo euren artean batzuek besteenak ere bai. Iñaki Alberdi bera ere ibiltzen da konponketa ahaleginean, baina bilobaren jostailuarekin ezin asmatu, eta Feliperi eskatu dio laguntza. Etorri da Felipe eta ekin dio konponketari. Eta, bien bitartean, Iñaki gurekin solasean. Ze hori ere bada Kafekonpon, solasa eta lagun artea.

**ESANAK**

### "Ekarritakoen %80-90 konponduta joan dira bueltan"



**IÑAKI ALBERDI**
KAFEKONPONEKO BULTZATZAILEETAKO BAT

**ESANAK**

### "Kontsumo gizarte hau aldatzea kosta egingo zaigu"

**PILI ARIN** | ERABILTZAILEA

### "Beti gustatu izan zait gauzok egitea, eta hemen nago"

**IÑAKI BILBAO** | LAGUNTZAILEA

**Botatzea "garesti"**

"Bilobak ekarri zidan jostailua eta esan zidan: 'Ea, aitaita, hau konpondu daitekeen'. Ez du balio handirik, baina konpontzeko ere ez du zailtasunik". Dakienarentzat, behinik behin. Eta gehitzen du: "Traste berri bat, adibidez, hutsarekin konpondu daitekeena, berriz martxan jarri daitekeena eta atzera ere erabili, hori hartu eta bota egitea penagarria da alde batetik, eta garestia bestetik". Eta horrela iritsi zen Iñakiren bilobaren jostailua Kafekonponera.

Hilez hileko zitara jendeak eramaten duena edozer dela ere, zail da aurkeztutako arazoari irtenbidea emateko gai den lagunik ez egotea Kafekonponeko mahaiaren bueltan: "Batzuek denetik egiten dute; Felipek, adibidez, mekanika, elektrizitatea... maneiatzen ditu, elektronika ere bai, eta beste batzuk gaude apur bat mugatuagoak, etxean traste batzuk-eta konpontzen ibilitakoak, ez ofizioz horretan jardundakoak, baizik eta ukitu edo konpondu beharreko trasteren bat esku artean ibili izan dugunak. Eta badira beste batzuk ofizioz mekanikoak, edo elektrikariak", azaldu digu Alberdik.



Traste artean, bizkotxoa. | J.I.



Botilarekin egindako lanpara. | J.I.



Konpondutako jostailua. | J.I.

Europako hainbat hiritan berria ez den ekimen hau –*repair cafe* gisa ezagutzen da– Udalarekin batera jarri dute martxan Bergaran; Bergaran jarri dute, beste leku askotan ere egiteko modukoa dena: "Bailara honetan profesional asko daude gauza asko konpondutakoak; gu bezala edo gu baino askoz gehiago dakitenak seguru daudela mila bat", dio Alberdik. Eta batek ez dakiena beste batek daki: "Elkarrekin jardutea askoz errazagoa da, bakarrik baino". Hortik elkartzearen balioa. Eta batzuek bestengandik ikasten dutela horrela ere badio. Eta *konpontzaileek* elkarren artean bezala, baita besterik gabe euren trasteak eramaten dituztenek ere. Izan ere, posible den neurrian, hondatutako gailuak daramazkienei

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
*euskaltegi@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
*berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
*euskaltegia@oinati.net*

**Matrikula zabalik**
**Informa zaitez!**

emaiozu euskarari




UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturtea curso 13/14




J.I.

**EDUARDO LOPEZ DE ABERASTURI**
ERABILTZAILEA

## "Erosteagatik erosteari ez diot ondo irizten"

Txigorgailua eraman zuen Kafekonponera, eta konpondu egin zioten.

**Zer deritzozu ekimenari?**
Oso ondo. Txigorgailua bigarren eskukoa zen; berria ez erostearren erosi nuen bigarren eskukoa, eta hondatu egin zait. Eta ekarri egin dut, ze ez diot ondo irizten erosteagatik erosteari, are gutxiago garai hauetan; deshazkundearen teoria babestu behar da apur bat eta gizarte iraunkor bat egin. Eta horretarako, ondo iruditzen zaizkit halako gauzak. Eta begira, bikain, ze konpondu egin didate. Arazo bat gutxiago!

**Poza hartu duzu, bai.**
Gehien pozten nauena da beste bat erostera joan beharrik ez izatea, ze badakigu nola egiten diren gauza hauek. Txigorgailuak 30 euro balio ditu, eta pentsatzen dut jende erdi-esklaboak egiten dituela, herrialde horietako batean, eta hori saihestu egin behar da.


Pili Arin, beirazko botilarekin lanpara egiten, laguntzaileekin. | J.I.

## Konpontzeaz gain, berrerabiliz sortu

**Kafekonpon hondatutako gailuak konpontzeko ekimen gisa sortu zen, berrerabilpena bultzatzeko. Berrerabilpena bultzatzeko modu bat baino gehiago dago, baina. Pili Arin, adibidez, "hilero eguna itxoiten" egoten ei da Kafekonponera joateko. Hark ez du ezer konpontzen, baizik eta gauzak berrerabiliz sortu egiten du. Azkeneko saioan, adibidez, beirazko botila eta oskolak erabiliz lanpara oina egiten erakutsi zien mahai-lagunei.**

haiek konpontzen erakustea ere izaten da intentzioa.

**Askotariko gailuak**

Azken saioan, adibidez, lanpara bat, irrati-kasete bat eta disko-jogailua konpondu zituzten, besteak beste. Ikustekoa izan zen hondatutako disko-jogailua eraman zuen Pili Arinek hartu zuen poza aparailua berriz ere soinua zeriola entzun zuenean. "Botatzea pena ematen dizun gauza zaharrak izaten dira. Laugarren hilabetea da natorrela, eta ekartzen ditudan gauza denak eramaten ditut konponduta", pozik Arin.

Benetan irizten dio interesgarri ekimenari, nahiz eta atsekabe apur batekin esan jendeari kosta egiten zaiola gauzak konpontzen saiatzea: "Kontsumo gizartea da gurea, eta aldatzea kosta egingo zaigu. Errazera, erabili eta botatzera, oso erraz ohitzen gara, baina bestera... Kontzientzia hartu behar da, eta hori poliki-poliki gertatzen da". Eta Kafekonponen beste bertute bat ere nabarmentzen du Arinek, harremanetarako ematen duen aukera, alegia: "Adibidez, nik hauekin [dio ondoan dituen bi lagunei erreferentzia eginez] ez nuen harremanik; baina, begira, orain taldekide gara".

Iñaki Alberdiren arabera, ekimenarekin hasi zirenetik, eramandako gailuen %80-90 lortu dute konpontzea. Bai ala bai konpondu nahiaren ondorioz, halako konponketetan jarduteak *engantxatu* egiten ote duen galdetuta, baietz dio, ñabardurekin: "*Engantxatu* egiten du, desafio bat da. Baina da desafio bat oso sanoa, eramangarria. Gaur etorri da pertsona bat, berez lanean ibili dena lan askotan mantentze-lanetan, eta esaten zuen horrela gustura egiten dela lan, presiorik gabe: kafea hartu, berriketan egin, elkarrekin begiratu...".

Pertsona hori zen Iñaki, Iñaki Bilbao: "Beti gustatu izan zait halako gauzak egitea, eta hementxe nago. Txigorgailu bat ekarri dute; ez zebilen, eta orain badabil". Bera ere "gauzak aprobetxatzearen aldekoa" dela dio Iñakik. Lehen aldiz izan da oraingoan Kafekonponen, eta hurrengoan itzultzekotan joan da, pozik. Baina lortu ez balu ere...: "Kafekonpon da hau, baina *kafe hor konpon* ere izan liteke", dio barrez Iñaki Alberdik.



# Babes eskea, Geyser eta Edesarendako

Debagoieneko Sortuk Eusko Jaurlaritzari eta Kutxabanki eskatu die bi lantegion gaineko bideragarritasun plana babes dezaten

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Debagoieneko lau alkateren eta bestelako hautetsi eta alderdikideen babesarekin, Debagoieneko Sortuk Eusko Jaurlaritzari eta Kutxabanki eskatu die Fagor Etxetresnekin gertatutakoaren ostean, babes dezaten Geyserreko eta Edesako Kontseilu Sozialak landutako bideragarritasun plana.

Eguazten iluntzean Bergaran egindako prentsaurrekoan, Jaione Isazelaia Bergarako alkateak zera adierazi zuen: "Bideragarritasun plana serioa, ongi landua eta enpresari etorkizuna bermatzeko baliagarria da, eta Bergarako Geyser enpresako langile gehienen lanpostuak mantentzeko balio du. Are eta gehiago, bideragarritasun plan hori aurrera ateraz gero, Edesa eta Geyserren erabakigunea Euskal Herrian gelditukoa litzateke".



Debagoieneko Sorturen ordezkariak, Bergarako prentsaurrekoan. | JULEN IRIONDO

**Aldundiaren babesa txalotu**

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bideragarritasun planari emandako babes politiko eta ekonomikoa txalotzen ditu Sortuk, eta gauza bera egin dezaten eskatu die Jaurlaritzari eta Kutxabanki. Ezker abertzaleak kezka adierazi du horren harira. "Ehun industrialak eta langileek bost inporta die batzuei. Beste lehentasun batzuk dituzte; hemen lehentasuna banka eta enpresa eraikitzaile handiak dira. Eta uste dugu horiek direla lehentasuna, benetan horiek direlako agintean daudenak, horien zerbitzura dago muntatuta sistema, eta, horregatik, Fagor edo Debagoieneko beste hainbat eta hainbat enpresa eta langile bizi izaten ari diren egoera ez da lehentasuna", azaldu zuen Ibai Redondok, Sorturen Debagoieneko arduradunak.

**Norabide berean**

Eta konponbide prozesuan bezala, gai honetan ere norabide berean lan egiteko gonbita zuzena egin dio Sortuk EAJri. Jeltzaleek sozialista eta popularrekin batera Gipuzkoako Batzar Nagusietan eguaztenean eragindako fiskalitate arloko aldaketak, ordea, ez du bide zuzena erakusten, Sorturen ustetan.

Amaitzeko, krisiaren irtenbidea ezkerretik datorrela adierazi die Sortuk herritarrei, burujabetza eta eraldaketa soziala direla irtenbidea.

## Ordaindu elkartearen sortze-batzarra

Borondatezko ekarpen eta mailegu kontzeptu gisa Fagorren zordunak batzeko Ordaindu elkartea legezko elkarte izango da hilaren 20a ezkero, astelehena. Egun horretan, 10:00etan, egingo dute sortze-batzarra, Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Aurreikusi baino lagun gehiago espero dituztenez, batzarraren eguna eta lekua aldatu egin behar izan dituzte.

Azken asteotan ibili dira Ordaindu elkartekoak datuak batzen Arrasaten, elkarteari berari izaera formala emateko helburuarekin. Modu horretan, zorrak berreskuratzeko Konkurtso Mahaian erreklamazioak egin ahal izango dituzte.


Aritz Bikuña erreminta berria erakusten, Arrasaten. | IMANOL GALLEGO

# Bizimodua errazteko eta autonomoago izateko erreminta: 'The Grid 2'

Aspaceko erabiltzaileei zuzendutako erreminta da eguaztenean Arrasaten aurkeztutakoa

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Aspaceko erabiltzaileek euren bizimodua errazagoa eta autonomoagoa izan dadin erreminta berria daukate: *The Grid 2* softwarea. Aspaceko erabiltzaileekin batera garatutako erreminta informatiko horri esker, mintzaira arazoak dituzten pertsonen komunikazioa dezente erraztuko da: "Aspacek bere zerbitzuetan erabiltzaileen autonomiaren alde lan egiten du. Erabiltzaile potentzialitatea eta autonomia ahalik eta gehien garatzeko lan ildoak sustatzen ditugu. Pertsonen bizi kalitatea hobetu eta bermatzeko, erabiltzaileen parte hartze zuzena ezinbestekoa iruditzen zaigu", adierazi zuen Javier Gartziak, Aspaceko zerbitzu zuzendariak, aurkezpenean.

**Komunikazio arazo larria**

*The Grid 2* programa batez ere komunikazio arazo larriak dituztenentzat izango da baliagarria. Horri esker, erabiltzaileek autonomia handiagoa lortuko dute. Oso programa malgua da eta erabiltzaileak beharrezkoak izango dituen esaldiak oso modu errazean sor ditzake.

**Zenbait esaldi**

Azaroan hasi ziren programaren lehen saioekin, eta dagoeneko Aritz Bikuña bergararra lanean dabil beharrezkoak dituen zenbait esaldirekin. Aldez aurretik kargatutako esaldiei esker, Bikuña hobeto erlaziona daiteke.

*The Grid 2*, baina, ez da Aspacek garatu duen programa bakarra. Gipuzkoako zentroetako erabiltzaileen bilerak errazteko, taldekako bideo konferentziak egiteko *Webex* programa ere garatu dute. "*Webex*-i esker, modu errazagoan egingo ditugu bilerok, eta, agian, jende gehiagok ere hartuko du parte", adierazi zuen Inma Cordovillak, Arrasateko zentroko ordezkariak.

Gipuzkoako zentroez gain, Sevillakoak ere bere egin, eta *The Grid 2* eta *Webex* programa ere garatzen ari dira.

# Bilduren Arkupe sistema atzera bota du oposizioak Batzar Nagusietan

"Arduragabekeria" leporatu die Bilduren Gobernuak oposizioko taldeei

**IRATI GOITIA** | DEBAGOIENA

"Oposizioak esan dezala zer egin orain", adierazi dute Gipuzkoako Aldunditik, eguaztenean, Batzar Nagusietako osoko bilkuran Bilduren Gobernuak proposatutako Arkupe sistemaren aurka eginiko osoko zuzenketak aurkeztu ostean. Izan ere, EAJ, PSE-EE eta PP alderdiak Aldundiak eginiko proiektuaren aurka azaldu ziren eta, horren ondorioz, Deskargako GI-632 errepide berriko bidesariaren gaia geldi dago.

**"Konponbideari atea itxi"**

Aldunditik gaineratu dute Bilduren Gobernuak egin duela egin beharreko guztia. "Foru araua aurkeztea eskatu zitzaion eta aurkeztu zuen. Gainera, oposizioak jarritako baldintza guztiak betetzen dituen foru araua". Hori horrela, uste du oposizioak arduragabekeriaz jokatu duela. "Eurek sortu zuten arazoa eta hori konpontzeko proposamen integrala egin dugu guk. Eurek, berriz, konponbideari atea itxi diote". Horretaz gain, Aldunditik esan dute erabaki hau gipuzkoarren kalterako dela nabarmen.

Aurreko astean Mugikortasun Batzordea deitu zuen Larraitz Ugartek, Azpiegitura eta Mugikortasun diputatuak, bidesarien gaia gainerako alderdi politikoei azaltzeko. EAJ eta PSE-EEk Deskargarako foru arau propioa aurkezteko eskatu zioten Gobernuari. Bilduren gobernua, baina, ez dago horrekin ados. Izan ere, ez du ibilgailu arinentzat eta astunentzat bidesaria jartzerik nahi Deskargan. "Guri erabat injustua iruditzen zaigu Deskargan bidesaria jartzea, gainerako kapazitate handiko errepideak doakoak diren bitartean. Markel Olanok sinatu zuen hor bidesaria egongo zela banketxeekin, eta, beraz, berak eman beharko ditu azalpenak", adierazi dute.

Horrez gain, zera gaineratu dute: "Arkupe izugarrizko proiektua da eta goizago edo beranduago Arkupe edo antzerako sistema bat jarriko da Gipuzkoan, alderdi guztiak ados daude-eta horrekin, eta Europako joera ere hortik doa". Aldundiaren esanetan, Olanok banketxeekin sinatutako hitzarmenean zehazten da 2015eko apirilerako jarrita egon behar duela bidesariak Deskargan; eta beraz, bidesaririk jartzen ez bada, banketxeek kreditua itzultzea eska dezaketela dio, adibidez.

**"Bidesaria errepide guztietan"**

Alderdi jeltzaletik Aintzane Oiarbidek dio Bildu bakarrik geratu dela Arkupe sistema defendatzen. "Ugarteren errepideen kudeaketaren porrota argi geratu da. Ez da gai izan inorekin akordioetara iristeko, talde politiko guztiak eta HIRU sindikatua aurka azaldu dira". Ugarte "bidesaririk ez" defendatzetik, "bidesaria errepide guztietan" eredura pasa dela esan du. Bilduk aurkeztu duen bidesari sistemak diru bilketa hutsa duela helburu ere badio, eta EAJ ez dagoela ados. Bestalde, Oiarbidek dio Ugartek Deskargan bidesaria jartzea Olanoren ardura dela esaten duenean, demagogia egiten duela, egun berak duelako aukera "Deskarga peajerik gabe uzteko".

# Pertsona bidezko telefono zerbitzura bueltatu dira osasun zentroetan

Erantzungailu sistema "muga handia" izan da erabilzaile askorendako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Medikuarendako txanda telefonoz hartzeko erantzungailu sistema urtebetez erabiltzen ibili ostean, Debagoieneko osasun zentroetan atzera ere pertsona bidezko arreta zerbitzua ematen hasi dira. Arrazoia da erantzungailu sistema "muga handia" izan dela erabiltzaile askorendako, "bereziki pertsona nagusientzat". Eta horren ondorioz, telefono bidea baztertu, eta hainbatek osasun zentroetara jo izan dutela txanda hartzera, horrek eurendako zein osasun zentroetako profesionalendako ekarri dituen eragozpenekin.



Arrasateko anbulatorioko langilea, telefonoa hartzen. | UBANE MADERA

**Arrasaten eta Bergaran, bai**

Pertsona bidezko erantzun sistema abenduaz geroztik abian dago Arrasaten eta Bergaran.

Oñatin, berriz, berau ezartzeko prozesuan daude, eta espero dute oraingo hil honetan bertan martxan jartzea, "baina oraindik ezin dute datarik zehaztu". Eta Aretxabaletari zein Eskoriatzari dagokienez, urteko "lehen seihilekoan" martxan jartzeko asmoa dutela jakinarazi dute osasun zerbitzutik.

Orain arte aldez aurretik txanda hartu behar izan dutenek "oso gustura" hartu dute lehengo sistemara bueltatzea. Hori "nahiago" dutela jakinarazi dute osasun zerbitzutik.

Horrekin batera, jakinarazi dute pertsona bidezko telefono zerbitzura bueltatzeko, telefonoari erantzun behar dioten pertsonek formazio saioak egin behar izan dituztela zerbitzu hori eman ahal izateko.

**Txanda 24 orduan**

Dena den, eta nahiz eta pertsona bidezko zerbitzura bueltatu, erantzungailu sistema eta Internetez txanda hartzeko aukera ematen segituko dute Debagoieneko osasun zentroetan. Modu horretan, 24 orduan txanda hartzeko aukera bermatzen dute. Adibidez, "gau txarra pasatzen ari ezkero, goizaldeko 04:30ean ere hitzordua eska daiteke".

> **DATUA**
>
> **18.000**
>
> TELEFONO DEI
>
> Hilero, batez beste, 18.000 deitik gora jasotzen dituzte gurean.

**Erantzungailua eta Internet**

Hala, erantzungailuari dagokionez, norberak gura duen osasun zentrora deitu, eta telefono linea okupatuta badago, sistema telefonikoak erantzungailu automatikora bideratzen du herritarra. Erantzungailuak aukera emango du zuzenean hitzordua hartzeko, edo berriro ere osasun zentroko lineara itzultzeko, eta norbaitek erantzun arte itxoiteko. Hori bai, kontuan hartu beharrekoa da zuzenean zentroetako agenteen bitartez hitzordua hartzeko aukera zentro bakoitzeko ordutegiaren araberakoa izango dela. Hau da, ez badago inor telefonoa hartzeko, sistema telefonikoak berak zuzenean makinara bideratuko du deitzailea.

Norberari dagokion osasun zentroaren telefonoa norberaren Osasun Txartel indibidualaren atzeko aldean dagoena da.

Bestalde, telefono bidezko txanda hartzeko beste aukera bat da osasun zentrora deitu barik, modu automatizatua erabiltzea zuzenean; horretarako honako telefono zenbakira deitu beharra dago: 902 20 30 20.

Eta telefono bidezko hirugarren aukera ere badago: norberaren telefono mugikorra erabiltzea, Osakidetzako aplikazioa jaitsita.

Interneti dagokionez, berriz, honakoa da txanda hartzeko helbidea: *www.osakidetza.euskadi.net*. Hor sartuta, eskumako aldean dago txanda hartzeko bidea: *Aurretiko Zita*.

Mila Elortza | LAB sindikatua

# "Pertsonen eskubideak ezerezean geratzen ari dira oraingo ereduarekin"

Eredu ekonomiko eta sozial propioa erdieste bidean, Gutun Soziala lantzen dihardute

GOIATZ ARANA | BERGARA

Maiatzaren 30eko grebaren ostean, Gutun Soziala eratzeari ekin zioten Euskal Herriko sindikatu, elkarte eta eragile ugarik. Martitzenean ekimen hori aurkeztu zuten Bergaran, LABen eskutik; eta gaur gauza bera egingo dute Oñatin (Foruen plazan, 18:00etan), ELAren eskutik. LABeko Mila Elortzak azaldu ditu xehetasunak:



Mila Elortza, Bergaran. | JAGOBA DOMINGO

**Zertan datza Gutun Soziala?**

Maiatzean, ikusita grebarekin bakarrik ez goazela inora, beste zerbait egin beharra dagoela hasi ginen lanean. Eibarren egin zen bilkura, eta erabaki zen gutxieneko batzuk markatzeko beharra, eta hortik pauso bat ere atzera ez egitekoa. Herritarrak jabetu beharra dago, eta Gutun Sozialarekin herrira jaitsi nahi da, herritarrak gutun horren parte senti daitezela. Asmoa da gutuna idazteko momentua tresna bezala erabiltzea, dauden mugimenduak batu, eta horien arteko harremanak estutzeko.

**Ze puntutan dago orain?**

Espero baino atzeratuago gabiltza, kalera ateratze prozesua luze joaten da. Lau zatitan banatuta dago: lehen bietan oinarriak eta printzipioak ezarriko ditugu. Urtarril amaieran bukatuko da hori. Hurrengo bietan eskubideak aztertu, eta horiek lortzeko martxan jarri beharreko tresnak landuko dira. Bi faseotan urrats txikia egin dugu. Hala ere, joan den zapatuan egin genuen proba bat mugimendu feministako talde batekin; 130 bat lagun elkartu ginen.

**Hurrengo pausoa, orduan?**

Herritarrak informatzea zertan ari garen, eta ze pauso egingo dugun eztabaida hori kalean eta herritarrekin batera emateko. Hori otsailean eta martxoan egingo dugu, eta jendea webgune bidez informatuko dugu.

**Hortaz, gutunaren helburua da...**

Herritarrak batzea, asko gabiltzalako egungo eredua pertsonen aurkakoa dela salatzen. Ekonomia eta diruaren mesedetan, pertsonen eskubideak ezerezean geratzen ari dira: desjabetzeak, ingurumen arazoak, emakumeenak, erretiroak, osasuna, hezkuntza… bakoitza ari gara borrokan, modu isolatuan, eta guztiok batzen bagara indar handiagoa eskuratuko dugu.

> **"Guztiok batzen bagara, indar handiagoa eskuratuko dugu"**

## Arrikrutz zabalik izango da oraingo asteburuetan

IRATI GOITIA | OÑATI

Nahiz eta aurrera begira aldaketak egingo dituzten bisita egutegian, Arrikrutz-Oñatiko Kobak zabalik izango ditu ateak bisitarientzako urtarrileko asteburuetan ohiko ordutegian (10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara). Horretaz gainera, aste barruan ere irekita izango da taldeentzako, aurretiaz erreserbak eginez gero. Horretarako, 943 08 20 00 telefonora deitu behar da. Otsailean, berriz, itxita egongo da taldeentzat, baita asteburuetan ere.






IDURRE ARANGUREN

## Xabier Urizar 'Gautxori' herrian da, 29 urteren ostean

Martitzenean, urtarrilaren 14an, askatu zuten Xabier Urizar *Gautxori* arrasatearra, *197/2006 doktrina* indargabetzearen ondorioz. Puerto de Santa Mariako (Cadiz) espetxetik atera zenerako zain zituen senideak eta lagunak, eta haiek lagunduta egin zuen herrirako bidea. Bertaratutakoen arabera, "oso hunkigarria" izan zen guztien arteko elkartzea. Urizar askatuta, Oñatiko Xabin Usandizaga da *197/2006 doktrina* ezarrita duen bailarako bakarra.

## ZABALIK



**JEXUX URMENETA**
http://goiena.net/iritzia/

# Maitasuna sendagai

Aurreko batean, *SIML* telebista programan parte hartzea otu zitzaidan. Izan ere, buruko gaixotasunen gainean ari zirela, dei egin nien nire iritzia eman nezakeela gogoan hartuta.

-Bai? Kaixo! Zerbait esan nahi nuke…

-Bai, bai, esan!

-Ba, begira… gai horren gainean…

Eta hara hor! Zuzenean hitz egin ezean, nik esandako guztitik, aurkezleak egin zuen laburpena parametro topikoan: "Gaixoei ahal den maitasun handien eman behar zaie" .

Gaixoaren kontzeptua azpimarratu dezagun. Gaixo moduan izendatzeak, beronen akatsa zuzentze aldera, sendagile berezi baten beharra duela esan nahi du, baina hori horrela aitortu arren, ez da batere garbi ostera noiz arte eta zer tratamendu hartu. Akatsen hasieretan garrantzitsua baita gaixoa bera eta senideak gertatutakoaz jabetzea, eta, bereziki, taldekako terapia bati berehala ekin.

> **"Garrantzitsua da taldekako terapia bati berehala ekitea"**

Orain dela 50 urte uste zen bihotza zela beste organo guztien gidari eta agintzen zuena. Bada, pentsaera hori aldatu eta etika arazoak albora utziz, buruak bihotzaren lekukoa hartu zuen, eta ordutik hona ugaritzen joan dira organo askoren transplante operazioak. Gizartea aldatu egin bada, guk ere aldatu beharra dugu geure jarrera.

Buruko akatsa duenak arima gaixoa omen du, hori pentsatzen da. Eta horri diogun beldurrak ez digu uzten txipa aldatua duen jendeari ikuspegi irekiagotik begiratzen. Horietaz guztietaz bereizita hobe gaudela pentsatzeak artaldeko edozein ardi arrunten labela ematen baitigu.

Mesedegarriago litzaiguke geure buruaz barre egitea, jende apal horren kontura txantxetan ibiltzea baino. Bazterketa hau ezabatzeko AGIFES jaio zen 27 urte dela, eta maitasuna dute sendagai printzipio eraginkor moduan.

## USTEAK USTE

**LARRAITZ ZEBERIO** | lzeberio@goiena.com

# Ipuin kontalari boluntarioak

Aurreko astean elkartu ginen lehen aldiz. Sei lagun ginen mahaiaren bueltan, denak emakumezkoak. Ekimena Elgetako liburuzainarena izan da, eta helburua herriko neska-mutikoendako ipuin kontalari saioak egitea. Baditugu zalantzak, baita nork bere beldurrak ere: ez da gauza bera etxean seme-alabei ipuinak kontatzea edo deialdi irekia egin eta liburutegian haur talde baten aurrean ipuin kontalari bihurtzea. Baina merezi du ahalegina egitea, ezta? Badítugu irizpide batzuk, tartean Saroa Bikandi ipuin kontalariarengandik jasotakoak. Orain, ipuinak aukeratzea eta kontaketa lantzea gelditzen da. Eta etxean baditut horretarako bi entzule fin.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ene, euli bat!

**Malen Aldalur**
argia.com/blogak/malen-aldalur/

Liburutegiko lau paretak gainera jauzten zaizkizula sentitzen duzun unean ageri da beti.

Ez dakizu zergatik baina normalen hain nazkante iruditzen zaizun intsektu hori inoiz baino atseginago zaizu.

Bizitzari kolorea eman nahian apunteak urdinez, berdez eta horiz azpimarratu dituzun horretan zeure burua harrapatu duzu begirada noraezean galduta.

Ohartu gabe bista altxatu duzu hain aspergarri zaizun ikasgaitik eta puntu batera begira geratu zara, edo bistarekin zure ingurura etorri berri den euliari begira. Baina ez zara ohartu.

Normala baino kafe dosi handiagoarekin ekiten diozu goizeko saioari, goizekoari edo, ordu horretan oraindik oilarrak ere ez dira *kukurruku*-ka hasi. Azken momenturako dena usteak egunsenti asko oparitzen dizkizu. Bai, badakit zu ere horietakoa zarela.

Urteko beste garaietan ez bezala, goizeko zazpiretan Facebooka topera egoten da. Baina eutsi gazte, agian gaurko deribatuak biharko asmakizun bilakatuko dira.

Bitxia da gero liburutegiko habitata. Aurrean, ura lagun bakar duela, apunteetan jo eta ke bost orduz bere aulkitik jaiki ez den neskatoa. Motots bat ipurdiraino eta betaurreko handiekin. Ezkerrean, hiru lagun, elkarrekin ikastera etorri direnak. Ordu erdiro atsedenaldia eta bost minuturo hizketaldi txikiak elkarri egindako aurrerapenak kontatzeko. Eta eskuinean, liburutegian inoiz falta ezin den bikotetxoa. Muxu bat handik, beste xirri bat hemendik, barretxoak minuturo.

Apunteetan argazkiak ageri bazaizkizu (suertekoa zu), dagoeneko bibotez eta betaurrekoz josi dituzu, seguru. Politikan zein ekonomian hain famatu egin den emakume edo gizon horri ezapainak pintatu dizkiozun unean ohartu zara usteko ordua dela. Zeure buruari esan zenion demokrazia zer den apunteetan ikasi beharrean hobe zenuela larunbateko *manifa*-ra joan. Já! *manifa*-ra joan ez bazina larunbat arratsean ikasiko bazenu bezala.

Eutsi gazte, Eutsi! Euliak lagun ditugu. Jarri bibotea Margaret Tatcherri eta pintatu ezpainak Stalini.

# Heroia aurkituko nuelakoan ('Nire amaren autobiografia')

**Onintza Irureta**
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Urtebete igaro du Jamaica Kincaid-ren *Nire amaren autobiografia* (Alberdania-Erein-Igela, 2012) liburuak gau-mahaian, duela bi edizioko Durangoko azokan erosia. "Irakurri!, irakurri!" esan zidaten lagunek eta azkenean heldu diot. Asko gustatu zait eta Gabon oporretako eguntxoetan di-da irakurri dut. Ez dut aurkitu ordea, espero nuena. Karibeko emakume beltz zapaldu heroiaren bila ibili naiz eta ez dut aurkitu. Bai, hainbat koloretako zapalketak (matxismoa, kolonizatuaren egoera, karibear pobreak eta zuri aberatsak) deskribatzen eta azpimarratzen ditu etengabe, eta horietatik ihes egiten saiatzen da, baina horixe, denari aurre egingo zion heroia espero nuen (inozoa ni!). Mediku ingeles aberatsarekin ezkonduko da. Triste geratu naiz. [...]

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

## GUTUNAK

# Tabakoa tabernetan eta abortua

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Ni erretzailea naiz. Ez da aitzakia bat jartzearren, baina farmako psikiatrikoak hartzen ditut, behartzen nautelako, eta horrek adikzioa ematen du. Ez ditudanean hartu behar, hots, kentzen dizkidatenean, berehala erretzeari uzten diot, esan beharra baitago psikiatren farmakoak hartzen dituztenen artean %95ek erretzen dutela. Herrian %30ek, gutxi gorabehera, erretzen dute.

Lehengo egunean emakume bat GOIENA aldizkarian kexatu egin zen Oñatiko taberna batzuetan larunbat gauean erretzen zelako. Penagarria zait puru bat erretzera noanean beti taberna batzuetako terrazan eseri beharra. Eta hori neguan oso gogorra da. Tabernetan beti erre egin ahal izan zen. Zergatik orain ez? Tabernaria da kexatu daitekeen bakarra, bertan zortzi ordu dagoelako. Tailer askotan, zoritxarrez, kea eta hautsa dago, eta ezin ekidinekoa. Zer? Ba, erremedioa lan ostean kirola egitea da eta gorputza berriz garbitzea.

Ni gaztetan korrikalari sutsua nintzen, eta, noski, ez nuen erretzen. Tabernetan lagunekin sartzen nintzenean, inoiz ez nintzen kexatzen zegoen kearengatik.

Gehiengo inposatzaile hutsak zarete erretzen ez duzuenok.

Bestalde, abortuaren kontua daukagu azkenaldian komunikabideetan.

Euskal hizkuntzalari kristau fededun batzuk, fetua deritzoten umekia, *umetik datorrena,* aditzera emanez umea bera dela. Nahiago dut erdarazko mailegu gisa *fetu* hitza erabili, txukunagoa da.

Berdin gertatzen da *abortu* hitzarekin, non hiztegi kristau batzuetan deritzon *hil-aurra,* aditzera emanez haur bat hiltzen dela. Ez da horrela, ume edo haurrak denok dakigun bezala jaio eta gero sortzen dira.

Ni abortu aske eta doakoaren aldekoa naiz. Fetua (hirugarren hilabetean sortzen dena) hazia oraindik soilik denean, data hura aurretik. Hazia denean soilik, oraindik abortatu daiteke amak ume ez desiratu bat izan behar duelako.

Baina gauza bat da hau eta beste gauza bat da aurrez ez prebenitzea gaur egun dauden erraztasunekin. Iaz Hego Euskal Herrian abortu asko egin ziren. Gehiegi. Zer? Antza denez, ez dute askok prebenitzen hura antisorgailuekin. Eta jakina, abortatzeak kostu bat du. Sendagile, mediku eta abar ordaindu egin behar dira. Eta hori denok ordaintzen dugu zergetatik, Gizarte Segurantza.

Beraz, jaun-andreok, abortuaren lege berriaren aurrean arrazoi ekonomikoak ere egon daitezke bederen, eta ez moralak, ez kristauak.

Josu ei zenak ez baitzekien zer zen hori, ezta mundua borobila zenik ere. Beraz, arren, kostuak gutxitu, eta antisorgailuak erabili.

# Terapia naturalak

**Josu Garitaonandia**
(Equo Bergara)
Bergara

Gizakiek historian zehar beraien osasun arazoei aurre egiteko sasi medikuetara jotzen zuten; gaur egun, berriz, medikuntza ofizialetik kanpo gelditzen diren beste terapia mota batzuk oztopatzen dituzte. Batit bat, farmazeutika handien interes ekonomikoak daude atzetik, beraien produktu garestiak erabiltzen ez dituztenak sorginkeriatzat hartzen dituzte.

Hala ere, sasi medikuek erabiltzen dituzten terapia naturalak gizartean hedatzen ari dira, gero eta mediku gehiago dira terapia natural baten espezializatzen direnak, terapia naturalak pertsona bere osotasunean hartzen baitu, eta bizi-osasun oreka egokiaren bila dabiltza.

Izan ere, askok izan dugu Gizarte Segurantzako medikuekin zenbaki bat garen inpresioa; ia aurpegira begiratu gabe txartela eskatzen dizute, errezeta egin eta astebetean botika hartzeko, eta mejoriarik ez badago "etorri berriz ere" esanez kontsultatik bidaltzen zaituzte.

Hego Amerikako herrialdeek, krisian urteetan daudenek, teparia naturalak ofizialtasunez erabiltzen dituzte, babes publikoa dute eta frogatu dute merkeagoak direla. Uruguai daukagu buru: 20 terapia baino gehiago legeztatuta ditu; Europan poliki-poliki dabil legeztatzen herrialde bakoitza bere kasa, eta, kasu askotan bezala, Espainiako Estatua dago azkenengo postuetan.

Acuprona (Asociación de Consumidores y Usuarios de Productos Naturales y Medicina Natural) sortu da estatuan kontsumo naturala bultzatzeko eta, horrela, gizartea eraldatzeko asmoarekin. Diru publikoarekin, medikuntza ofizialen zerbitzuez gain terapia naturalak eskaini nahi dituzte, gizartearentzat merkeagoa irteten delako eta gaixoari aukera gehiago emateko bere osasuna kudeatzeko. Eta terapia naturaletan ari diren profesionalak legeztatu nahi dituzte, iruzurra txikitzeko eta gaixoei garantia handiagoa emateko.

Bisitatu *www.acuprona.es* orrialdea, ez zarete damutuko, era naturalean bizi nahi dugunon eskubideak defendatzeko aukera ematen dizu eta.

# Jose Arana zaharren egoitzari, eskerrik asko

**Zuriñe Pagaldai**
(Abelina Gomezen familiaren izenean)
Eskoriatza

Gutun honen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako langile guztiei gure amonak bertan pasa dituen azken 10 urte hauetan jasotako tratuagatik.

Begirada atzera botaz gero, badirudi atzo zela amona lehenengo aldiz zaharren egoitzara bisita joan ginen eguna. Bizipen eta une ugari pasa ditugu bertan eta momentu oro egoitzako langileen jokaera bikaina izan da bai amonarekiko baita gurekin ere.

Mirestekoa da egoitza aurrera ateratzeko eta bertako aitona-amonekin egiten duzuen lana. Asko preziatzen zaituztegu, benetan.

Eskerrak ere Jose Arana Patronatuko Fundazioko partaide eta langile guztiei. Azken urte hauetan izandako aldaketak asko izan dira eta dena aurrera ateratzeko zuen ahalegin eta borrokarik gabe, agian gaur ez ginateke eskutitz hau irakurtzen ariko.

Lanean jarraitu, mesedez, zuen lanak gure bizitza errazten du.

Bihotzez eskerrik asko 10 urte hauengatik.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00


Goiena Klubeko urtarrileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**

**Lenovo tableta**
**Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako Lenovo ideatab A2107A tableta**
Parte hartzeko sariaren izena: Lenovo






**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz




**3 liburu sorta.**
**Freexkue, Mantxut eta Mantxut, Mantxut? liburuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak



**2 joko**
**Argiak emandako Bizi Birzi jokoa**
Parte hartzeko sariaren izena: Bizibirzi

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Velez de Mendizabal eguaztenean Arrasateko Herriko Plazan, kaleratu berri duen azken liburua eskuan duela. | JOKIN BEREZIARTUA

**Josemari Velez de Mendizabal** | Idazlea

# "Historia ez da gaur finkatzen betiko, ezinbestekoa da kontakizuna berrikustea"

- 'Mondragón en su historia (y en cuatro horas)' liburua atera du asteon
- Arrasaten dago salgai: Elkar, Ttukun eta Garibaiko egunkari-saltokian

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurkezpenik behar ez duen pertsona da Josemari Velez de Mendizabal (Aramaio, 1949). Ekonomialaria ikasketez, historia arloan egindako ekarpenengatik nabarmendu da, besteak beste. Hori bai, ez du bere burua historialaritzat: "Apuntatzailea eta dibulgatzailea naiz betidanik", dio. Eguaztenean *Mondragón en su historia (y en cutaro horas)* liburua aurkeztu zuen Arrasateko Elkar dendan. Autoekoizpena da eta egindako inbertsioa errekuperatzeko salgai jarri du Arrasateko Elkar dendan, Ttukun fotokopia-dendan eta Garibaiko egunkari-saltokian (*Tiburon*-en), zortzi eurotan.

**Hasteko, nondik dator liburua egitearen ideia?**

Goienagusi elkarteak eskatutako hitzaldi batzuetatik sortu da liburua egitearen ideia. Lehenengo hitzaldia egin nuenean [bigarrena astelehenean, hilak 20, izango da] jasotako harrerak asko harritu ninduen. Interes handia piztu zuen saioak eta konturatu nintzen merezi zuela liburuxka baten jasotzea, material hori gal ez zedin. Goienagusi elkarteko publikoaz gain, beste edonoren eskura ere utzi gura nituen liburuxkan ematen diren datuak.

**Liburuaren aurkezpenean azaldu duzu ezinezkoa dela Arrasateko historia lau orduan laburtzea. Aukeraketa zaila izan al da?**

Aukeraketa egitea ez. Zaila egin zaidana izan da titulua ipintzea. Materiala banuen, han eta hemen idatzita nuelako. Gehiena euskaraz idatzi nuen eta orain gaztelerara itzuli dut. Esaterako, hainbat eta hainbat kontu nire blogean idatzita ditut dagoeneko. Material hori guztia hartu eta forma ematea samurra izan da. Erronka izan da nola aurkeztu, inork ez dezan gaizki ulertu. Norbaitek pentsa dezake kontakizuna eskasa dela; XVI. mendeko ezer ez nuela aipatzen, esaterako. Baina ez nuen hori egin nahi: lau orduan ezin daitekeenez ezer handirik kontatu, bi foku aukeratu nituen: XIV. eta XV. mendera artekoa eta XIX. eta XX. mendekoa. Horiei eman diet garrantzia. Izan ere, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako Arrasateko historiaz ez da ezer ezagutzen. Hor badaude hiru mende luze noizbait norbaitek landu beharko dituenak.

**Arrasateko historia kontatu baino gehiago, Arrasate historian kokatu gura izan duzu. Zertan datza baieztapen hori?**

Ghandiren aipu batekin erantzungo dizut: Ghandik esaten zuen gizaki bakoitzeko Jainko bat dagoela. Izan ere, Jainkoa definitzeko eskatuko baligute, seguruenik denok era ezberdinean erantzungo genuke. Historiarekin gauza bera gertatzen da: ez dago historia bat, denok bizi izan dugu historia era batera edo bestera. Hala, liburuan egin dudana izan da Arrasate bere historian kokatu. Noski, hiribilduaren sorreratik –eta lehenagotik– hainbat datu daude eta horiek ekarri gura izan ditut gogora, beste barik. Beste pretentsiorik ez du liburuak.

**Zeharka bada ere, zenbait herritarren ekarpena aldarrikatzen duzu liburuan; Pedro Ignacio Barrutia eta Gaizka Barandiaran, kasu.**

Bai, hala da. Pena ematen dit askotan nik arrasateartzat ditudan hainbat pertsonaia Arrasaten sortu edo idatzi diren liburu zein agerkarietan, hau da, historia ofizialean, ez agertzeak.

**Historiaren berrikusketa eta kontakizunaren errepikapena ezinbestekotzat jotzen dituzu. Zergatik?**

Teknologia berriek, aurkikuntzek eta ikerketek asko laguntzen dute. Ezinbestekoa da Historia berrikustea eta kontakizuna errepikatzea. Historia ez da gaur finkatzen betiko. Liburu honek, esaterako, orain dela 40 urte jakitea ezinezkoak ziren zenbait xehetasun ematen dizkigu.

**Zure burua ez duzu historialaritzat. Zergatik?**

Apuntatzailea eta, batez ere, dibulgatzailea naiz, lan hori betidanik egin dut. Aurten 40 urte beteko dira lan honetan hasi nintzena, martxoan lau hamarkada beteko dira-eta *Zeruko Argia* aldizkarian lehen artikulua idatzi nuenetik.

**Eguaztenean aurkeztu zenuena zure 33. liburua da. Baduzu besteren bat idazteko asmorik?**

Club Nautico Vitoriaren historia kontatuko duen liburuarekin nabil orain. Hori bai izan dela eskaera bat, ea proiektuak aurrera egiten duen.

**Hainbat izan dira egin dituzun biografiak. Baten batek utzi al du arrasto berezirik zugan?**

Jokin Zaitegiri egindakoa aipatu nuke, zalantza barik. Batez ere, harekin estu-estuan egin nuelako. 1976an hasi nintzen Zaitegirekin lanean eta, zoritxarrez, lana argitaratu baino bi urte lehenago hil zen. Euskalgintzaren eta, batez ere, euskaraz egindako lanen dibulgazioaren gainean zerbait badakit, Jokini zor diot. Lan hark markatu egin ninduen.

**Aktore ere bazara azken urteetan, eta baita antzerki testuen egile ere bai. Bide horretan jarraitzeko asmorik baduzu?**

Horretan ari gara. Doke antzerki taldeak hamar urte bete ditu aurten eta urteurrena dela-eta zerbait egingo dugu, ziur.

**Aramaioarra jaiotzez eta arrasatearra adopzioz. Baina nongoa da sentimenduz Josemari Velez de Mendizabal?**

Galdera hori bera egin didate asteon, telebistako saio baten. Orduan erantzun nuena erantzungo dizut: aramaioarra naiz jaiotzez, arrasatearra bizitzez eta euskal herritarra sentimenduz. Hori bai, aramaioarra zein arrasatearra izateaz harro nago, herri batekoa zein bestekoa naizelako.

**"Goienagusikoez gain, besteen esku ere utzi gura nituen liburuxkako datuak"**

**"Apuntatzailea eta dibulgatzailea naiz, aurten 40 urte bete ditut lan horretan"**

**"Pena ematen dit hainbat pertsonaia Arrasateko historian ez agertzeak"**

**"Euskarazko lanen dibulgazioan zerbait badakit, hori Jokin Zaitegiri zor diot"**

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## DUELA 10 URTE

2003-01-17

### Bittor Mendialdua, Landazuri saria

Bittor Mendialdua organo jotzaile aramaioarrak Landazuri saria jaso zuen orain dela hamar urte Gasteizko Musika Etxean, bakarka egindako lanagatik. Hain justu ere, azken 50 urteotan jaioterrian organo jotzaile lanetan ibiltzeagatik, eta askotan, gainera, musu-truk egiteagatik eman zion Landazuri elkarteak saria. Kulturaz eta arteaz arduratzen da esandako elkartea; 1992an sortu zituen izen bereko sariak.



Bittor Mendialdua organoa jotzen. | UBANE MADERA

2003-01-17

### Kostaldean fuela batzeko deia

*Prestige* petrolio-ontziak isuritako fuel-olio orbanak gure kostaldean ere bazeuden, eta horiei aurre egiteko, herritarren laguntza eskatu zuten Arrasaten. Garbiketa lanetan lagundu gura zutenek udaletxera jo behar zuten, eta Udaltzaingoan oinarrizko datuak utzi. Jarraian, Udalak datuok Jaurlaritzara bideratzen zituen, garbiketa lanak eragin-korrak izateko azken horrek boluntarioak koordinatzeko ardura zuen-eta.

## DUELA 5 URTE

2008-01-17

### Gabiria dorrea birgaituta

XV. mendeko Bergarako Gabiria dorreko birgaitze lanen inaugurazioa egin zuten. Udalak eta Tavex Algodonera enpresak hitzarmena sinatu zuten 2005ean eraikineko birgaitze lanak bi aldeen artean ordaintzeko. Obrak 2006-ko uztailean hasi zituzten, eta 2008ko abenduan amaitu. 1,6 milioiko kostua izan zuten.

## HERRITARRAK

ESKORIATZA

**Edurne Abasolo** Santa Agedako aurtengo kintoei dantzak eta herriko kantua erakusteko egiten dabiltzan entseguetan murgilduta harrapatu dugu egunotan eskoriatzarra | MIRIAN BITERI

# "Gaur egungo gazteek ez dute Santa Ageda bizi guk bizi genuen moduan"

Haur Hezkuntzako irakaslea da Edurne Abasolo (Eskoriatza, 1963). Gasteizen egiten du lan, eta, egun osoa Arabako hiriburuan ematen badu ere, inoiz ez zaio burutik pasa Eskoriatzatik kanpo bizi izatea. Horren harira, onartu digu gustura dabilela egunero joan-etorriak egiten. Kulturarekin lotuta dauden zaletasunak ditu. Horren gainean egin du berba, besteak beste, datozen lerroetan.

**Santa Agedarako gutxi falta da. Zer da zuretako egun hori?**

Ohitura bat, betidanik ezagutu duguna Eskoriatzan. Txikitan Santa Ageda noiz iritsiko zain egoten ginen, urte hartan abesten zuten gazteak entzuteko eta plazan dantza zelan egiten zuten ikusteko. Gorde egin behar den ohitura da.

**Ohitura hori mantentzeko lan egiten duzu urtero, kintoei dantzak eta kantua irakasten. Aurten dagoeneko hasi dituzte entseguak?**

Bai. Gabonen aurretik batzarra egin genuen kintoekin; plangintza zehaztu genuen bertan. Astero bi entsegu egitekotan geratu ginen, martitzenetan eta eguaztenetan. Orain dela bi aste hasi ginen, eta aurten samurragoa izango dela iruditzen zait, txikitatik dantzan ibilitako neska-mutilak daudelako taldean. Entsegu horietan igartzen dudana da gaur egungo gazteek ez dutela Santa Ageda bizi guk bizi genuen moduan. Gogoa badute, baina festan pentsatzen dute bereziki egungoek. Guk, dena dela, Santa Agedari buruzko informazioa ematen diegu urtero.

**Dantzaria eta dantza irakaslea izandakoa zara... zer dute dantzek?**

Txikitan guztiak ginen dantzariak, eta helduek uzten zutenean, gazteagoak ginenok hartzen genuen irakasteko lekukoa. Bere garaian, dantzaria izatea modu ezin hobea zen jendearekin egoteko eta kanpora irteteko. Aspaldi utzi nion, baina, dantza egiteari. Gaur egun, plaza beteta egoten denean irteten naiz bakarrik dantza egitera, gustatzen zaidalako.



Edurne Abasolo ur-biltegi zaharra dagoen parkean. | MIRIAN BITERI

> "Gorosarri abesbatzan hasi nintzen abesten, 21 urte inguru nituela"

> "Gogoan dut zarata, errota zabaltzen zutenean eta ura sartzen zenean"

**Dantzatzeaz gain, abestea ere gustuko omen duzu...**

Hala da. Gorosarri abesbatzan hasi nintzen abesten, 21 urte inguru nituela. Jarduna amaitu arte jarraitu nuen, eta gero, Arrasatekoekin egon nintzen. Eta gero zarzuelan, hasi zenetik nago abesbatzan.

**Zarzuelarekin jarraituz, orain arte antzeztutako obra guztietatik, zein da gehien gustatu zaizuna?**

Guztiak egindako momentuak oso politak izan direla iruditzen zait. Baina, bat aukeratzekotan, *La tabernera del puerto* aukeratuko nuke. Aurten errepikatu egin dugu, eta oso obra polita da; koruak ez dauka horrenbesteko garrantzirik, baina musika eta bakarlarien kantuak asko gustatzen zaizkit. *La leyenda del beso* ere gogoan dut, Oñatiko baserri batzuetara joan ginelako bideoa grabatzera eta oso ondo pasa genuelako. Baina, orokorrean, guztiek zerbait dutela esango nuke.

**Bestalde, Elorretakoa zara zu. Errotakoa, hain justu. Toki berezia izango da...**

Bai. Bizitza guztia eman dut Elorretan, hemen jaio nintzen eta gaur egun ere bertan bizi naiz. Toki berezia da. Txikitako oroitzapen asko daukat, bereziki errotari lotutakoak. Denbora laburrean, baina martxan ezagutu nuen. Orduan, egunerokoa zen, eta ez genion ematen garrantzirik. Baina bai, gogoan dut zarata, errota zabaltzen zutenean, ura sartzen zenean eta baita mugitzen hasten zenean ere. 7 bat urte izango nituen.

**Errota berritua ikusteko aukera izan duzu?**

Bai, egonda nago, eskoriatzarrendako bisita gidatuak antolatu izan dituztenean. Oso polita geratu dela iruditzen zait, lehengo antzera.

**Amaitu aurretik, nola ikusten duzu gaur egungo Eskoriatza?**

Asko aldatu da azken urteotan; Elorreta auzoa, esaterako, ez dauka zerikusirik nik txikitan ezagutu nuenarekin. Eskoriatzari dagokionez, herri lasaia dela uste dut, askotan lasaiegia. Eta aldaketa fisiko asko egon dira nire txikitako Eskoriatzatik hona. Esaterako, AP-1 autobideak eta saihesbideak daude herri inguruan, eta herri barruan ere egon dira aldaketak. Bestalde, gainerako herrietan bezala, sorpresaz betetako kutxa ere bada Eskoriatza; izan ere, inoiz ez duzu jakiten zer-nolako erantzuna izango duten antolatzen diren ekimenek.

## NIRE HERRIAN

**:) EDOZEINEKIN BERBA EGIN**

Herriko giroa gustuko du Edurne Abasolok. Horren harira, honakoa azaldu digu: "Jendeak elkar ezagutzen du, kalean guztiak agurtzen joaten zara. Etxetik ateratzen zara eta edozeinekin berba egin dezakezu. Asko baloratzen dut nik hori, eta, horregatik, inoiz ez dut pentsatu beste norabait joatea bizi izatera".

**:( EKIMENAK DENON ARTEAN**

Herrian ekimenak antolatzerakoan denon artean egin beharko litzatekeela uste du, eta ez nork bere arlokoak. Eskoriatzarraren arabera, bakoitza "rol" jakin batean "kokatuta" dago, eta hori "apurtzen" saiatu beharra dagoela dio, "samurra" ez dela onartzen badu ere: "Ez luke berezitasun horrek egon behar".

# HERRIAK

ARRASATE

# Alde zaharrean dauden termitak akabatzen hasiko dira hilabeteotan

- Zerbitzua emango duen enpresa hartzeko lehiaketa deia egin du Udalak egunotan
- Bost urteko tratamendua izango da, udaberrian hasita, eta sei kaletan emango dute

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Egurrezko eraikinak gozoki desiragarriak dira termitendako, eta, era berean, termitok burukomin eragile galantak eraikin horien jabeendako. Izan ere, kalte handia sor dezakete egurrezko egituretan inurrien tamaina duten intsektu txikiok. Hori jakinik, Arrasateko Udaleko arduradunak orain dela ia bi urte hasi ziren kontua aztertzen, eta iaz ikerketa egin ondoren, orain intsektuok akabatzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa deia egin dute.



Termiten kontrako tratamendua emango duten Arrasateko alde zaharreko kaleetako bat: Iturriotz. | JOKIN BEREZIARTUA

**Bizilagunek %75**

"2012ko udaberrian erabaki genuen termiten arazoa aztertzea; izan ere, alde zaharreko eraikin batzuetan bazeudela konturatu ginen. Eta alde zaharra monumentu izendatuta dagoenez, babestu beharra daukagu", azaldu du Amaia Iriondok, udal arkitektoak. Iaz udaberrian egin zuen azterketa Innodex enpresak eta ondorioen berri eman zien bizilagunei.

Arazoa orokorra dela argi du Iriondok: "Etxeak, leku askotan, bata besteari itsatsita daude eta ez du zentzurik batean tratamendua ematea eta bestean ez, lekuz aldatu bakarrik egingo liratekeelako intsektuak. Gainera, tratamendua askoz garestiagoa izango litzateke bakarka emanez gero". Hori horrela, Udalak bere gain hartu du koordinazio lana, eta tratamendua emateko zerbitzuaren lehiaketa deia egin. Gastuaren zati bat ere hartuko du bere gain, %25, eta gainerako %75a egurrezko egituradun etxe eta lokalen jabeek hartuko dute. Tasa bidez ordainduko dute hori, 40 euroko tasa bost urtean.

DATUA

**40**

EURO

Zerbitzuaren %25 Udalak bere gain hartuko du eta %75, bizilagunek; 40 euroko tasa ordainduko dute haiek 5 urtean.

**Bost urteko tratamendua**

Alde zaharreko kaleetan eta errebaletan jardungo dute termiton kontra: Olarte, Ferrerias, Erdiko kale, Iturriotz, Maala eta Gazteluondon. "Batzuek monumentu izendapena dute eta beste batzuk plan bereziaren barruan daude", azaldu du Iriondok. Guztira, ehun bat etxeri eragingo die: "Batzuk ez dira izango goitik beheraino egurrezkoak, baina nahikoa da teilatuak edo solairu batek egurrezko egitura izatea tratatu behar izateko".

Bost urte iraungo du tratamenduak, hiru etapatan banatuta, eta lanok udaberri inguruan hasi gurako lituzkete: "Urtaro egokia da, orduan ateratzen direlako kanpora intsektuok". Lehenengo etapak sei bat hilabete iraungo du –urtebete arte luza daiteke– eta amuak jarriko dituzte termitondako. Zuloak egingo dituzte lurrean, batetik bestera 3 eta 5 metro artean utzita, eta jana sartu bertan intsekturik dagoen antzemateko. Behar izanez gero, eraikin barruan ere egingo dituzte zuloak, "ahal den kalterik gutxien eraginda".

Bigarren etapan intsektuen kontrol zehatza egingo dute eta bi urte iraungo du horrek. Termitak atzemandako lekuetan pozoia jarriko dute, eta, jarraipen zorrotz eta sakona egin gero, izurritea desagertu arte.

Hirugarren etapa hasiko da jarritako amuetan termitarik ez dabilela antzemandakoan, eta beste bi urte iraungo du. Izurritea desagertutakoan, enpresak zaintza zerbitzua ezarriko du, berriro sortuz gero edo kolonia berriak agertuz gero behar diren neurriak hartzeko. Gainera, izurritearen aurkako prebentzio eta barrera sistemak jarri eta neurriak hartuko dituzte.

Lanok zelan doazen jakinaren gainean egongo dira bizilagunak, Udalak eskatuta hiru hitzaldi eman beharko dietelako enpresako arduradunek: urtebetera, bi urtera, eta bukatutakoan. Lan horiek guztiak egiteko enpresa kualifikatu bat hartuko du Udalak. Urtarrilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen lehiaketa deia eta 20 eguneko epea dute interesatuek aurkezteko. Lanon aurrekontua 122.200 eurotan ezarri dute.

ESANAK

**"ATermiten arazoa orokorra da eta ez du zentzurik eraikin bat tratatzea eta albokoa ez"**

**"Udaberria urtaro egokia da, orduan ateratzen direlako kanpora intsektuok"**

AMAIA IRIONDO | UDAL ARKITEKTOA

**Prestakuntza teknikariendako**

Alde zaharrean bakarrik ez, hortik kanpo ere termitok badaudela dio udal arkitektoak, baina arazoa ez da hain larria. "Alde zaharraren azpialdean ura pasatzen da eta hezetasun giro hori oso egokia da intsektuak hazteko eta bizitzeko. Hori horrela, badakigu erabat desagerraraztea ez dela samurra izango, baina, behintzat, kontrolpean izango dugu". Hori jakinik, prestakuntza ikastaroa jasoko dute Udaleko hainbat teknikarik eta langilek, aurrerantzean ere termitek eragindako arazoak eta izurriteak denboraz antzemateko eta kudeatzen jakiteko.

## Kronologia

**2012KO UDABERRIA**
Termiten gaineko azterketa egitea erabaki zuen Udalak herriko alde zaharrean.

**2012KO AZAROA**
Innodex enpresari eman zion Udalak azterketa egiteko ardura.

**2013KO APIRILA**
Alde zaharreko bizilagunei azterketa egitekoak zirela jakinarazi zieten.

**2013KO URRIA**
Azterketaren ondorioen berri eman zieten bizilagunei.

**2014KO URTARRILA**
Termitak kentzeko eta kontrolatzeko zerbitzuaren lehiaketa deia egin du Udalak.

**2014KO UDABERRIA**
Ondo bidean, lanak hasiko ditu hartutako enpresak.

# Enplegua, ongizatea eta inbertsioak dira lehentasunak aurten

- 31.711.604 euro da 2014ko udal aurrekontua, iaz baino %6,38 handiagoa
- Bilduk eta EAJk adostu dute; PSE-EEk zuzenketa osoa aurkeztu zuen
- Udala egoera ekonomiko onean dago, orain arteko "kudeaketa onari" esker

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2013ko abenduaren 26ko osoko bilkuran onartu zen 2014ko aurrekontua. Hain zuzen ere, Udal Gobernuaren eta EAJren aldeko botoekin eta alderdi sozialistaren kontrakoekin onartu zen: Udalak 31.711.604 euro izango ditu aurten Arrasate kudeatzeko. Iaz baino %6,38 handiagoa da –2013ko udal aurrekontua 29.809.888 euro izan zen– eta, esandako moduan, EAJrekin batera adostu du Udal Gobernuak.

Bilduren arabera, lehentasunetan ados dauden seinale da akordioa eta EAJk, berriz, bat egin du euren eskaera nagusiak kontuan hartu direlako. Jeltzaleen aldarrikapen nagusia izan da enplegua sustatzeko partida berezi bat bideratzea. Udal Gobernuak bat egin du; izan ere, iaz baino 350.000 euro gehiago bideratuko dira helburu horretarako. PSE-EEk, berriz, osotasuneko zuzenketa aurkeztu zuen osoan. Sozialisten arabera, iaz aurkeztutako emendakinei ez zitzaien kasurik egin eta horregatik ez dute proposamenik egin.

**Enplegurako, %194 gehiago**

Hiru dira 2014ko aurrekontuaren zutabe nagusiak: enplegua sustatzea, ongizatea bermatzea eta inbertsioak egitea. Enplegua sustatzeko "apustu fuertea" egingo du Udalak. Udalak 350.000 euroko igoera adostu du EAJrekin batera. Jeltzaleekin batera azterketa bat egingo dute, Enplegu batzordean landuko dena gero. Era berean, Jaurlaritzatik eta Aldunditik enplegurako bideratzen diren programetan 348.000 euro pasatxo erabiliko ditu Udalak, iaz baino 1.000 euro gutxiago. Bestalde, Mankomunitateko Garapen Agentziara 282.473 euro bideratuko dira, iaz baino %30 gehiago. Garapen Agentziaren bidez sustatzen dira turismoa, Jakion, Gureak Ibai-Arte eta Saiolan. Guztira, 1.132.949 euro erabiliko dira enplegua sustatzeko, 2013an baino %194,95 gehiago.

**Ongizatea ere lehen mailan**

Enpleguarekin batera, arrasatearren ongizatea bermatzea da "lehentasun handien" duena. Gizarte Larrialdetarako Laguntzak –GLL, gazteleraz AES– banatzeko 400.000 euroko partida ezarri da, iaz baino 50.000 euro gehiago. 2013an Ongizate Sailak eskainitako zerbitzuen artean, honakoak izan ziren erabilienak: etxeko laguntza zerbitzua –172 erabiltzaile–, arrisku egoeran dauden adingabeen familietan esku-hartze programak, atzerritarren harrera zerbitzua, menpekotasun

### GASTUA SAILKA

| SAILA | GASTUA |
|---|---|
| **Udal Zerbitzuak** | %41,59 |
| **Hirigintza** | %7,84 |
| **Kultura** | %7,47 |
| **Pertsonala** | %7,40 |
| **Ongizatea** | %7,39 |
| **Euskara** | %3,64 |
| **Enplegua** | %3,57 |
| **Finantza-zorra** | %3,53 |
| **Ogasuna** | %3,44 |
| **Aukea** | %3,15 |
| **Ingurumena** | %2,81 |
| **Hezkuntza** | %2,35 |
| **Gobernu organoak** | %2,27 |
| **Gazteria** | %2,17 |
| **Emakumea** | %0,72 |
| **Iturbide** | %0,68 |

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

## "Ezin dugu akordioaren zentzua galdu, sekula ez"

Aurrekontua akordioan oinarrituta egotea azpimarratzen du alkateak. Bestalde, dirua kudeatzerakoan oinarria pertsonak direla ere argi utzi digu Azkarragaurizarrek; asteon hartu gaitu udaletxean.

**Hasteko, nola prestatzen du Arrasateko Udalak urte osorako aurrekontua?**

Lehentasunak zehazten ditugu eta urtean zehar batzordeetatik pasatzen diren eskaerak sailkatzen dira. Gero, bilerak egiten ditugu oposizioarekin.

**Iaz baino %6,38 gehiago herria kudeatzeko. Nola ulertu behar da hazkunde hori?**

Orain arteko kudeaketa ona da oinarria: gastu arruntetan zorrotzak izan, finantza-zorra murriztu eta inbertsioak aldizkakotasunean oinarrituz egin.

**Lortutako akordioaren balioa nabarmendu duzu. Zergatik?**

Lana batera egiten badugu, askoz hobeto. Egia da Udalean gaudenean ez dela berdina gobernuan egotea edo oposizioan egotea, baina arduraz jokatu behar da; ezin dugu akordioaren zentzua galdu, sekula ez.

**Hondakinen Mahaia, aurrekontuak... Zein izango da hurrengo akordioa?**

Hainbat esparrutan ados egoten gara teorian, baina gero kosta egiten zaigu hori praktikara eramatea. Zein izango den hurrengo akordioa? Bizikidetzarena izatea ondo legoke. Oso garrantzitsua da urratsak egitea; finean, gatazkaren konponbide politikoa bizikidetzatik etorriko da. Bizikidetzarako eredugarriak izango diren urratsak egin behar ditugu.



J.B.

**"Pertsonak dira oinarria, herritar guztiak babestea da lehentasuna"**

**Nola lortu duzue akordioa Euzko Alderdi Jeltzalearekin?**

Ez dago sekreturik, berba eginda. Metodologia bera aplikatzen dugu beti. Batzordeetan aztertzen dira gaiak eta gero, horiek aurrekontura eramateko bilera bereziak egiten ditugu oposizioko taldeekin. Horrela jokatu dugu EAJrekin zein alderdi sozialistarekin.

**Zergatik uste duzu sozialistek ez dutela bat egin?**

Ez dakit, eurei galdetu beharko zaie. Iaz emendakin partzialak aurkeztu zituzten, dagokien lana beteta. Aurten, baina, etxeko lan horiek egin barik etorri dira, antza.

**Zergatik bideratu duzue partida berezi bat enplegurako?**

Astindu ekonomiko galanta jaso dugulako. Horren jakitun izan gara EAJ eta Bildu, eta esfortzu hori egitea erabaki dugu. 350.000 euroko partida bat ireki dugu eta adostu dugu lanketa berezi bat egitea linea berriak zabaltzeko, orain arte egiten dena indartzearekin batera. EAJrekin landuko dugu eta proposamena Enplegu Batzordera eramango dugu. Enpleguarena ez da gure eskumena, Eusko Jaurlaritzarena baizik; momentu berezi baten hartutako erabakia da.

**Ongizatea lehentasuna da oraindik. Zergatik?**

Pertsonak direlako oinarria. Herritar guztiak babestea da lehentasuna. Pobreziaren aurkako eta larrialdi planerako partidak [AES] igo egin ditugu eta gertu gaude, beharren arabera, diru gehiago bideratzeko.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

**Juan Karlos Garitano** | EAJko bozeramailea



### "Borondatea erakutsi duten unetik, oso erraza izan da akordioa lortzea"

"Aurrekontu zentratuak dira non, EAJren ekarpenei esker, enplegua sustatzeko ahalegin berezia egin den. Udal Gobernuak borondatea erakutsi duen unetik, oso erraza izan da akordioa lortzea. Hasieratik EAJren eskaera nagusiak kontuan hartu dira; enplegua sustatzeko partida eta lurpeko zaborrontziak konpondu eta mantentzeko partida, adibidez. Gainera, zazpi hobekuntza proposatu genituen eta sei onartu dira: enplegua sustatzeko 150.000 euro gehitzea, kaleko igogailuetan kamerak jartzea, garbitasunaren eta bizikidetzaren ordenantza berria sustatzea, pantaila bidezko komunikazio sistema ezartzea, pilotalekuei estaldura mugikorrak jartzeko azterketa egitea eta autobus geltoki bat eraikitzeko bideragarritasuna ikertzea. Onartu ez dutena izan da Gabonetako argiak jartzea.

Arrasatearren interes orokorren alde lan egiten duenaren bidelagun izango da EAJ; aldiz, interes alderdikoiak eta gutxiengoen interesak defendatzen dituenak aurrez aurre izango gaitu".

**Aritz Arrieta** | PSE-EEko bozeramailea



### "Azken platera izan gara, gurekin hitz egin orduko EAJrekin akordioa lotuta zegoen"

"Hasteko, esan beharra dugu prozeduran ez dela ondo jokatu. Alderdi sozialista azken platera izan da aurrekontuak negoziatzeko orduan eta gurekin hitz egin orduko EAJrekin akordioa lotuta zegoen.

Aurrekontuak lantzeko orduan emendakinak aurkeztu izan ditugu eta iaz, aurka bozkatu genuen arren, Udal Gobernuak esan zigun emendakin horiek ikuskatuko zituela, baina ez da horrela izan. Beraz, zertarako aurkeztu? Bestalde, urtero agertzen den partida baten aurka gaude, hau da, euskal presoen familiendako bideratzen dena. EAJrekin lortutako akordioari dagokionez, uste dugu erabaki horrekin alderdi jeltzalea Udal Gobernuko kide bilakatu dela. Gazteleraz esaten den moduan, *carta blanca* eman diote Udal Gobernuari. Beraz, EAJk gutxi dauka kritikatzeko Bilduk aurrera eramango duen politikarekiko. Gainera, memorian atez atekoa ezartzeko proposamena espresuki agertzen da. EAJk jakingo du non ari den sartzen; atez atekoa ezartzen bada, eurak izango dira erantzuleak".



Ongizate Saileko bulego berriak (Txaeta kalean), udazkenerako. | MIKEL SERRATO



San Josepe berriro urbanizatzeko 250.000 euro erabiliko dira aurten. | M.S.

prebentzio saioak eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak –2013an 246 onuradun izan ziren, eta 2012an 206–. Ongizate Sailera 2.343.530 euro bideratuko dira guztira.

**Inbertsioetan, %61eko igoera**

Inbertsioak izango dira aurtengo hirugarren zutabea. Iaz atzeratu egin behar izan ziren bi proiektu garrantzitsuri helduko dio Udalak aurten: San Josepe berriro urbanizatzeko lehen zatia eta Udala auzoko urbanizazio proiektuarekin jarraitzea. Biak ere aspalditik datozen eskariak dira eta Udalak faseka ekingo die lanei. Azken helburua da auzoen egoera hobetzea. Bestalde, Aldundiak Mugarrietatik Uribarrira bitarte doan bidearen eskumena Arrasateko Udalari eman dionez, Uribarriko errepidea konpontzeko lanak egin ahalko dira. Horrez gain, titulartasun aldaketari esker Takolo-Garaia proiektuarekin hasiko dira. Hau da, errepide zati hori urbano bihurtzeko lanak hasiko dira, oinezkoei lehentasuna ematea helburu: errepidea estutu, espaloiak handitu eta bidegorria egin, besteak beste. Inbertsioetarako 4.373.311 euro bideratuko dira, iaz baino %61,98 gehiago.

**Finantzazio zorrak, behera**

Bestalde, aurtengo zorraren kopuruak behera egin du; 1.286.817 euro gutxiago da zorra. Hau da, 2012ko abenduaren 31n 5.646.229 euro zen eta 2013ko abenduaren 31n, ordea, 4.259.411 euro izan da. Udalaren arabera, gainera, urte honen amaieran zorra are txikiagoa izatea aurreikusten da: "Joera da zorra amortizatzen joatea". Argi dagoena da Arrasateko Udala legalki ezarrita dagoen gehienezko zor mugatik (%95) oso urrun dagoela (%13).

Udalaren egoera ekonomikoa ona da, orain arteko kudeaketa "ona" izan delako. Hala, aurreikusitako proiektu guztiak aurrera atera ahal izango dira.

### INBERTSIO NAGUSIAK

**ONGIZATE BULEGOAK**

Txaeta kaleko bulego berrietako lanak uda ostean amaituko dira. Inbertsioa: iaz 375.000 euro eta aurten 208.000 euro.

**TAKOLO-GARAIA**

Uribarriko errepidea konpontzea eta Takolo-Garaia proiektua. Inbertsioa: 958. 204 euro, Aldundiak bideratuta.

**SAN JOSEPE ETA UDALA**

Berriro urbanizatzeko lanak. Faseka egingo dira. Aurtengo inbertsioa: San Josepen 250.000 euro eta Udala auzoan 75.000 euro.

### BESTE INBERTSIO BATZUK

Udaleko artxiboa Markuletera eramatea
360.000 euro

Zarugalde kaleko mendi-hegalari eusteko lanak
250.000 euro

Azoka plazan igogailua jarri eta postuak egokitzea
145.000 euro

Zalduspe eta Osinaga arteko zubia konpontzea
80.000 euro

Kamerak jartzea Ferixalekuko igogailu publikoetan
30.000 euro

Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektua
25.000 euro

Bidegorriak egokitzea
25.000 euro

# Urteko lehen baserritarren azoka bihar Seber Altube plazan

Ibarreko hamar postu eta Euskal Herriko beste zazpi jarriko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Santamasetako azoka handiaren ostean, bihar egingo da urteko lehen baserritarren azoka. Hileko hirugarren zapatua denez, Arrasateko bertako, Debagoieneko zein Euskal Herriko zenbait txokotako baserritarrek euren produktuak jarriko dituzte salgai Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara bitartean.

**17 postu egongo dira bihar**

17 postu izango ditu biharko azokak. Arrasateko bertako sei postu egongo dira: Ikutixo baserriko produktuak, Askasibarren barazki ekologikoak, Enuzketa Aldekoaren barazkiak, Bidasoro baserriko barazkiak eta gaztak, Harreman erakundearen bidezko merkataritza postua eta Juan Mari Zuazubiskarren nekazaritzarako tresneria.

Bailarako zenbait txokotatik etorritako produkturik ere ez da faltako: Mendibitzu baserriko (Aretxabaleta) haragia eta gazta ekologikoa, Etxezuriko (Aretxabaleta) ogia, barazkien kontserbak Jakionen (Gatzaga) eskutik eta Felix Barcina bergararraren sukaldeko egurrezko tresnak. Era berean, bailaratik kanpo ere etorriko dira baserritarrak eta artisauak. Horien artean, Idiziabalgo Arimasagasti Berri baserriko gazta eta barazki ekologikoak, Izarrako (Araba) Goiuriko ardi -gaztak, Eskuernagako (Araba) Candido Besaren ardoa, Arizkuneko (Nafarroa) Eider Gutierrezen artisau kosmetikoak eta sendagai naturalak, Izurzuko (Nafarroa) Erlan ezti ekologikoa eta Orduñako (Bizkaia) Martzelaren Sukaldeko ordezkarien sukalderako tresnak –salmentaz gain erakustaldia egongo da–. Azkenik, *www.baserritik.com* interneteko dendaren postua ere jarriko dute.




Iaz egindako azoketako bat. | GOIENA



DEBAGOIENEKO ESK

## 'Marru'-ri azken agurra egin zioten

ESK sindikatuko kide Angel Paunero *Marru* arrasatearrari azken agurra egin zioten martitzenean. Aldai parkean egin zioten hileta zibila, lagun eta senide ugariren artean. Hilaren 11n hil zen *Marru*, bihotzekoak jota, Bilboko manifestaziora zihoala. Debagoieneko ESK sindikatuak honako hitzak izan zituen: "Eskerrik asko, *Marru*, kausa ederrenari egin diozun ekarpenarengatik: gizakien arteko berdintasunari (...) Borroka horretan aurrera egingo dugu. Hori da zurekiko dugun konpromisoa".

## Elkartruke azoka bihar, neguko kirolak protagonista hartuta

Urteko lehen Elkartruke Azoka egingo dute bihar Azoka plazan, 10:00etatik aurrera. Denetarik trukatzeko aukera egongo da, baina bihar neguko kirolei emango diete protagonismoa: "Aukera bikaina da mendiko edo eskiatzeko materiala, hotzetik babesteko arropa zein bestelakoak trukatzeko", diote.

## Meatzerreka auzoko jaiak izango dira hilaren 24tik 26ra

Urtarrilaren 24tik 26ra ospatuko dituzte San Baleixuak Meatzerrekan. Ekintza jendetsuenetako bat hilaren 24an jokatuko den mus txapelketa izango da. Aurtengoa 33. edizioa da eta izena egunean bertan eman beharko da, 18:00etatik 22:30era (943 79 97 37). 25 euro ordaindu beharko du bikote bakoitzak.

## OHARRAK

**HAURRESKOLA**

Bedoñabe eta Musakolako haurreskoletan matrikulatzeko epea gaur amaitzen da. 2012, 2013 eta 2014an jaiotako haurrei dago zuzenduta.

**1983AN JAIOTAKOAK**

Otsailaren 8an elkartuko dira. Sara Merenderoan bazkalduko dute; txartelak Ekaitz tabernan daude salgai 25 eurotan, urtarrilaren 31ra arte.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Dribiling - Jibaros F.C. | **5-3** |
| Ostantz - Birigarruak | **14-0** |
| Haizea's Weah - Iluntz | **4-4** |
| Sonografos - Lasagabaster | **2-7** |
| Fidel & Discipulos - Aldatz | **1-5** |
| Betrayer - Sport in tus bragas | **2-2** |
| Abokajarro - Cantauri | **4-2** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | J | P |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 6 | 18 |
| 2 | Aldatz | 6 | 15 |
| 3 | Lasagabaster | 6 | 15 |
| 4 | Haizea's Weah | 6 | 14 |
| 5 | Betrayer | 6 | 13 |
| 6 | Iluntz | 6 | 10 |
| 7 | Sonografos | 6 | 10 |
| 8 | Ostantz | 6 | 6 |
| 9 | Abokajarro | 6 | 6 |
| 10 | Jibaros F.C. | 6 | 6 |
| 11 | Sport in tus bragas | 6 | 4 |
| 12 | Fidel & Discipulos | 6 | 4 |
| 13 | Cantauri | 6 | 1 |
| 14 | Birigarruak | 6 | 0 |

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| HILAK 18, ZAPATUA | |
| **10:00** | Betrayer - Fidel & Discipulos |
| | **Ostantz** |
| **11:00** | Ostantz - Dribling |
| | **Betrayer** |
| **12:00** | Cantauri - Iluntz |
| | **Dribling** |
| **13:00** | Abokajarro - Birigarruak |
| | **Cantauri** |
| HILAK 19, DOMEKA | |
| **10:30** | Haizea's Weah - Lasagabaster |
| | **Sport in tus bragas** |
| **11:30** | Jibaros F.C. - Sport in tus bragas |
| | **Haizea's Weah** |
| **12:30** | Sonografos - Aldatz |
| | **Jibaros F.C.** |

### Izen-emate epea

Jokalari berrien izen-ematea urtarrilaren 26an amaituko da.



Mondrak etxean 4-0 menderatu zuen Tolosa. | GOIENA

# Goiko postuetara iristeko behar dituzten puntuen bila

Etxeko partidu gehienak domekan izaten diren arren, aste honetan, bihar jokatuko dute (16:00)

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Taularen erdialdean egon arren, Mondrako mutilak ez daude eroso. Bigarren sailkatua bost puntura dute, eta gorago egoteko maila dutela erakustera irtengo dira Mojategiko zelaira. Parean ez dute aurkari erraza izango.

Lehen itzuli txarra egin eta gero, Zestoak azken partiduetan asko hobetu duela erakutsi du. Azken jardunaldian, adibidez, liderraren aurka partidu ezin hobea egin eta gero, hiru puntuak eskuratzea lortu zuten.

Argi dago ez dela lehia erraza izango, bi taldeak goiko postuetara iristeko beharrezkoa dituzten hiru puntuen eskuratzera irtengo dira-eta.

Lehen itzuliko partiduan ikusi zen moduan, bi taldeek azken minutura arte borrokatzera irtengo dira. Etxekoek partidu bakarra bakarra galdu dute Mojategin, eta lesioek taldea indargabetu egin duten arren, puntuak etxean uzteko asmoarekin irtengo dira zelaira.

**Baja eta lesio ugari**

Partidua ez da erronka erraza izango. Etxekoek Zestoak baino hiru puntu gehiago izan arren, baja ugarirekin hasi dute txapelketako bigarren itzulia. Guztira, bederatzi jokalari daude min hartuta, eta, ondorioz, taldea ez da %100ean egongo. Hala ere, zuri-moreak ez dira zelaira amore ematera irtengo, eta hiru puntuak etxean gera daitezen gogotik ahaleginduko dira. Horretarako, beste kategoria batzuetako jokalarien laguntza izango dute.

**Partidua domekan**

Ohitura apurtuz, aste honetan etxean jokatuko duten partidua ez da zapatuan izango. Talde zuri-morea domekan, 16:30ean, lehiatuko da. Goiko postuetara iristeko premiazko puntuak dituzte hauek, eta, horretarako, zaleen laguntza ezinbestekoa da.

Horregatik, Mojategiko harmailaren berotasuna sumatzea ezinbestekotzat jotzen dute. Taldekide baten hitzetan: "Zelaian 11 jokalari egongo gara, baina harmailetako jendea taldearen 12. jokalari bilakatzea beharrezkoa dugu".

# Txistu doinuek alaituko dute bihar goiza

**I.G.** | ARRASATE

Neguak bere aurpegi ilun eta hotzena erakutsi digun asten honetan, Arrasate Musikaleko txistulariek herri giroa pizteko kale saioa egingo dute bihar 12:00etatik aurrera erdiguneko kale eta plazetan zehar.

Horrela uler daitekeen arren, biharkoa ez da Arrasate Musikaleko txistulariek zoriz aukeratua izan. Bihar ere Seber Altubek bere baitan hartzen duen baserritar azoka egingo denez, musika herrikoiaren bidez ukitu berezia eman nahi diote egunari.

Txistulariak, baina, ez dira Seber Altuben geratuko eta azokako giroa piztu eta gero erdiguneko hainbat txokotan ere kalejiran arituko dira. Azoka, txikiteoa, mandatuak... zapatu goizetan egin ohi ditugun enkargu edo lanak alaitzera irtengo dira txistulariak. Laburbilduz, zapatuari euskal musika jartzera. Argi dago aste honetan izaten ari garen eguraldi kaxkarrari aurpegi ona jartzeaz gain, bihar txistulariek doinu ederra jarriko diotela eguerdiari.

# 8 dominarekin etxera Arrasate Kanpazarkoak

Arrasate Kanpazar taldeko ordezkariek 8 domina lortu zituzten Anoetan jokatu zen pista estaliko Gipuzkoako txapelketan. Bestalde, Arrasatekoak izan arren Gipuzkoako beste talde batzuetan aritzen diren Malen Ruiz de Azuak eta Istar Dapenak, pertika–jauzian, urrezko domina bana lortu zuten.



FERNANDO ZUFIRIA

# Martxan da aurtengo Inauterietako kartel lehiaketa

**I.G.** | ARRASATE

Urtarrila erdibidera ailegatu da, eta horrekin batera Inauterietako Kartel Lehiaketa martxan jarri dute Arrasaten. Aurkeztutako lanek jai horien ezaugarriren bat jaso beharko dute, eta, Udalak aurkeztu dituen lehiaketaren oinarrien arabera, kartelak aurkezteko azken eguna otsailaren 10a izango da. Lanok Biztanleen Arreta Zerbitzuan jasoko dituzte, aurrez aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak baino lehen.

**Lehiaketaren baldintzak**

Asteon aurkeztutako lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte, eta parte hartzaileek ez dute teknika jakinik erabili beharko.

Baldintzetan zehazten den ezaugarri bakarra kartelaren formatuarena da. Ezinbestean, bertikala izan beharko du eta *2014 Inauteriak Arrasate* leloa eraman beharko du. Kartela ordenagailuz nahiz eskuz egin daiteke. Ordenagailuz egindako lanak pendrive edo CD batean aurkezteaz gain, paperean ere aurkeztu beharko dira. Edozein modutan ere, lanok A-3 tamainakoak izan beharko dute, eta irudian jaiaren ezaugarriren bat jaso edo adieraztea ere beharrezkoa izango da.

Irabazleak 400 euroko saria jasoko du, eta, urtero moduan, saritzen den lana Udalaren esku geldituko da eta kaleratzeko eskubidea izango du.

## Hil honen bukaeran abiatuko dituzte berriro Udal Bibliotekako Literatura Solasaldiak

Antzerki saioak amaituta, hil amaieran saio arruntei ekingo diete. Euskaraz eskaintza zabalagoa egongo da, guztira sei saio izango dituzte, hilaren 26tik ekainera arte. Gaztelaniazko lehen saioa, aldiz, urtarrilaren 22an abiaraziko dute. Euskarazko nahiz gaztelaniazko saiok Kulturaten izango dira, 18:30etik 20:30era. Euskarazko saioen ardura Garazi Arrulak izango du eta gaztelaniazko koordinatzailea, berriz, Antonio Altarriba izango da.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



# Gonzalez Bastidaren 'Loreak'-ekin irekiko du kontzertua gaur EOSek

## Miguel Gonzalez Bastidaren omenezko kontzertua izango da, 20:00etan, Udal Pilotalekuan. Sarrera 10 euro da; leihatilan, 12 euro

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Miguel Gonzalez Bastida omentzeko kontzertua egingo du gaur Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS) Udal Pilotalekuan, 20:00etan.

EOSek Udalarekin elkarlanean antolatutako kontzertua da eta azaroan hil zen musikari eta konpositore bergararra izango dute gogoan. Iñigo Alberdi Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari orokorraren esanetan: "Hiru *B* batuko ditugu kontzertuan egitarauari dagokionez: Bastida, Brahms eta Beethoven".

Hain zuzen ere, Gonzalez Bastidak konposatutako *Loreak* zortzikoarekin hasiko dute kontzertua, eta Miguelen seme Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko du. Gero, Brahms-en *Biolin, biolontxelo eta orkestrarako kontzertua* joko dute. Biolin bakarlari Lorenz Nasturica-Herschcowici arituko da –baita orkestraren zuzendari ere– eta biolontxelo bakarlari, berriz, Juan Ignazio Emme; biak ala biak maila handiko musikariak. Emanaldiaren bigarren zatian, Beethovenen *5. Sinfonia* joko dute.

Kontzerturako sarrerak aurrez 10 eurotan eros daitezke Lazkano zapata-dendan –kultura etxean agortu dira–. Leihatilan 12 eurotan eskuratu ahal izango dira.



Euskadiko Orkestra Sinfonika. | EOS

**Bergaran bosgarrenez**

Bosgarren aldiz izango da EOS Bergaran kontzertua egiten. 1982ko azaroan izan ziren lehen aldiz, Haendelen *Messias* interpretatuz, Enrique Jordaren zuzendaritzapean. Emanaldi hartan Bergarako Orfeoiak hartu zuen parte eta Miguel Gonzalez Bastidak zuzendu zuen, hain zuzen, orfeoia kontzertu hartan. Gonzalez Bastida gaurko omenduak 85eko martxoaren 10ean, EOSek Bergaran egindako beste kontzertu baten ere hartu zuen parte. Orduan ere Bergarako Orfeoia zuzendu zuen Maria Folco mezzoaren part-hartzearekin, Odon Alonsok zuzenduriko emanaldi batean. *Prokofieven Alexander Nevsky, op 78* obra eskaini zuten. Azkenekoz, 2008ko abenduaren 12an izan zen orkestra gurean. Juanjo Ocon eta Iker Sanchezek zuzendutako emanaldian, Sanchezek gaur omenduko duten Gonzalez Bastidaren *Loreak* zuzendu zuen eta baita haren anaia Jose Mariaren *Triptico para orquesta*-ren 3. mugimendua, *Leyenda vasca*.

Goiena telebistak osorik grabatuko du gaurko kontzertua eta datorren astean, hilaren 24an, egubakoitza, ikusteko aukera izango duzue, 22:15etik aurrera.

# Historiaz hausnartzera gonbidatu zituzten

## Gerra Napoleonikoetan oinarrituta herriko historia aztertu dute Bake-ituna proiektuaren barruan

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bake-ituna proiektuaren barruan – Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburutzaren proiektua– erakusketa eta mintegi saioak egiten ari dira Gipuzkoako hiru herritan; Irunen eta Tolosan dagoeneko egin dira eta eguaztenean Bergaran egin zen mahai -ingurua.

*1813, historia edo mitoa?* izenburupean, historiako hainbat puntu planteatu zizkieten bertaratutakoei Xabier Kerexeta, Maggie Bullen eta Mertxe Tranche historialari eta antropologoek, betiere, Gerra Napoleonikoen garaia oinarri hartuta. *Bergarako besarkada*-z mintzatu ziren, esaterako. Kerexetaren ustez, mitifikatu egin den gertakaria da. Besarkadaren gainean adiskidetasunaren pertzepzio bat badagoela esan zuen, baina kontrara ere kalifikatu izan dela, traizio moduan. "Historiara jotzen dugunean beti egiten dugu aukeraketa bat", esan zuen. "Hein handi batean azaleko gauzetan geratzen gara mamiari edo sakontasunari garrantzi txikiagoa emanez". Eta modu horretan, bertaratutakoak hausnartzera gonbidatu zituen.

Historiaren zati batekin geratzen garela ere azpimarratu zuen: "Zer da interesatzen zaiguna, historia beliko-politikoa, *Besarkada* -ren historian ondo laburtzen dena ala bestelako historia ere bai? Hau da, ekonomiko-soziala? Izan ere, *Besarkada*-n emakumeak ere baziren eta dokumentuetan ez dira ageri, ez Karlistaldietan, Foruetan...

Proiektuaren barruan, hilaren 29an Aroztegin *1808-1813. Inbasio napoleonikoak* izeneko erakusketa irekiko dute.



Bullen, Tranche eta Kerexeta eguazteneko mahai-inguruan. | AMAIA TXINTXURRETA

# Euskara ikastaroa merkatari eta enpresarientzat

M.B. | BERGARA

Urte asko dira Bergarako Udalak administrazioan euskararen erabilera indartzeko bideari ekin ziola. Une honetan, udal barruko idatzizko jarduna neurri handian euskaraz bideratzen da eta aurrera begira kanpoko harremanak euskalduntzen jarri nahi dituzte nagusiki euren indarrak.

Helburu hori lortzeko behar-beharrezkoa da Udalarekin harremana duten entitateek ere euskaraz egitea, eta, horretara animatzeko asmoz, euskara ikastaro labur bat antolatu du Udalak.

Bost orduko ikastaroa antolatu dute, bost egunean banatuta, otsailean. Dena den, interesa agertzen dutenen aukerak kontuan hartuta osatuko dira taldeak, gutxienez bost lagunekoak.

**Ikastaroa debalde da**

Ikastaroaren oinarrizko edukiak hauek izango dira: batetik, euskaraz idazten laguntzeko Interneten dauden baliabideen berri eta erabiltzeko oinarrizko azalpenak emango dute, hala nola hiztegiak zelan kontsultatu, zuzentzaile ortografikoa eta itzultzaile automatikoa zelan erabili, idatzi ereduak non aurkitu...; bestetik, gehien erabiltzen diren idatzietan –eskaerak, fakturak, aurrekontuak, ordainagiriak, oharrak, gutunak...– sarri errepikatzen diren esaldi eredu batzuk aztertuko dira.

Ikastaro hori doan izango da eta bertan parte hartzeko nahikoa da euskaraz berba egiten jakitea. Egunak eta orduak zehazteko, berriz, kontuan izango dituzte interesa agertzen dutenen aukerak.

Izena emateko Udal Euskaltegira dei daiteke (943 76 44 53) edo Irizar jauregian duen egoitzara joan. Udaleko Euskara Zerbitzura mezua ere bidal daiteke: *euskara@bergara.net*.

Izena emateko epea urtarrilaren 31n amaituko da.

Kayak Taberna
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

# Parteittiko jaiak, angiozartarren eta txakolinaren festa handia

Domekako mezaren ostean, auzotarrek prestatutako hamaiketakoa egongo da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

San Bizente eguna ez da jaiegun handia izango, baina Angiozarko Parteitti auzoan oso kuttuna duten data da. Aurten santuaren eguna hilaren 22a, eguaztena, denez, festa nagusia datorren domekan, hilaren 26an, ospatuko dute.



Mezaren ostean auzokoek luncha eskaintzen dute. | GOIENA

**Auzotarren arteko festa**

Auzotarrek diotenez, ez da Bergarako festarik handiena, baina bertakoek oso gogoko duten data seinalatu horretako bat dugu. Ohiturari eutsiz, domeka eguerdian meza nagusia egingo dute. Horren ostean, auzotarrek eroan eta prestatutako produktuak luntx batean eskainiko dituzte. Azken ekintza horretan, musikaren laguntzarekin auzotarrak batu eta auzo giroan ospatuko dute eurentzat handia den festa txiki hori.

Eztarria eta giroa bustitzeko, gainera, urtero moduan, Kataide txakolina dastatzeko aukera egongo da aurten ere.

**Getarian ere bai**

Parteittiko dastatzearen aurretik, gaur egingo da Getariako Txakolin Eguna. Han dastatuko dira aurreko urteko mahats uztarekin egindako txakolinak. Mahats biltze garaian eguraldi bikaina egin zuen eta Txakolinaren Kontseilutik zehaztu duten moduan, "haren parekoa izango da aurtengo txakolina".

Txakolinaren ezagupena eta estimazioa handitu den neurrian, upategi berriak egin dira, eta eremu geografiko bera zabaldu da Getaria eta inguruetatik Gipuzkoa osora. Lurralde osoan 402 hektarea txakolin daude; tartean, Debagoieneko sei ekoizle.

Debagoienean sei baserritan dituzte Getariako Txakolina jatorri izeneko txakolina egiteko mahatsondoak. Lau Oñatin daude eta beste bi Arrasaten. Horietatik bi Getarian egongo dira: Arrasateko Egiaundi upategiak Kataide izenekoa erakutsiko du eta Oñatiko Upaian upategiak, Upaingoa izenekoa.

Aurten, guztira, hiru milioi botila ekoiztu dituzte, eta, lautik hiru Gipuzkoan kontsumituko diren arren, atzerritik ere gero eta gehiago eskatzen da.

**JABIER ARREGI**
TXAKOLINGILEA

## "Aurten txakolin gutxi baina oso kalitate onekoa izango dugu"



GOIENA

Parteittiko jaietako berezitasunetako bat txakolina da. Auzoan upategirik ez dagoen arren, Arrasateko Egiaundi baserriko Jabier Arregik bertan erakusten du bere txakolina.

**Zelako txakolina dugu aurtengoa?**

Nik dastatu dut eta oso ona dago. Aurreko udaberriko euriengatik ez dugu txakolin askorik izango, baina kalitate handikoa izango da.

**Zergatik erakusten duzu hemen zure txakolina?**

Auzotarren artean egindako festa bat denez, laguntzeko egiten dut. Horrez gainera, nire andrea bertakoa da, eta horrek ere animatu ninduen.

**Orain txakolin gehiago kontsumitzen da, ezta?**

Hala da; aurten, baina, enkargu guztiak betetzeko zailtasunak izango ditugu.

# Gaur ospatuko dute San Anton Abad jaia, baselizan

I.G. | BERGARA

Urte askotako tradizioari eutsiz, goizean ekingo diote San Anton Abad animalien zaindariaren festari. Azken bi urteetan jaiak dezente egin du behera; hala ere, auzotarrentzako oso jai berezia da. "Ospakizun txikia den arren, inguruko baserrietako jendea batzen gara eta gustura ospatzen dugu egun hau", dio Felix Maiztegik.

Aurten, baina, ahalegin berezia egin dute auzotarrek eta baselizara doan bidea atondu egin dute. Ospakizuna 11:00 aldera hasiko da, mezarekin. Antolatzaileek zehaztu dutenez, meza motza izango da eta bertan Umore Ona koruak abestuko du. Ondoren, eta ohiturari eutsiz, auzotarrek eta gerturatzen diren guztiek lunch bat izango dute. "Auzotarren artean prestatzen dugu urtero", aipatu du Maiztegik. Mahaian ez da salda, txorizo eta ardorik faltako, ezta inguruko hainbat istorio eta pasadizo ere. San Anton Abad animalien zaindaria den arren, argi dago pertsonek ere ederto pasatzen dutela.

# EAJren ustez, Gobernu taldea "arinegi eta inprobisazioz" jokatzen ari da

M.B/I.G. | BERGARA

Bergarako EAJK idatzi baten bidez salatu du "hondakinen araudia betetzen dutela bermatu gabe" Udala gune historikoan zintzilikarioak ezartzeko lokalak erosten ari dela. Jaurlaritzara jo dutela ere badiote jeltzaleek, "Udal Gobernuaren jardunaren irregulartasun posibleei buruzko informazioa eskuratzeko". Gainera, alkateari eskatu diote "hausnarketa sakona" egin eta Arrasateko akordioa begiratzeko, "dirua beharrezkoagoak diren gauzetan inbertitzeko".

Aintzane Oiarbide bozeramaile jeltzaleak "Udal Gobernua atez ateko sistemarekin inprobisazio hutsez" jokatzen ari dela salatu du: "Duela jada bi hilabete hasi ziren, korrika eta presaka, zintzilikarioak ezartzen Bergara Garbiak herri kontsulta egingo zuela jakin zutenean. Argi geratu da zintzilikarioak azkartasunez ezarri zituztela jendeak kontsultan ez parte hartzeko".

Eta gehitu du: "Orain, Udal Gobernuak esan du gehiengoaren nahiaren aurkako sistema hau beranduago jarriko dela abian 'zailtasun teknikoak' direla-eta. Baita Gabonetan hondakinen kopurua igo delako eta, ondorioz, zenbait alorretan atzerapenak izan dituztelako". EAJren ustez, "horrek bistan uzten du alkate andreak ezjakintasunez, inprobisazioz eta, bereziki, premeditazioz" jokatu duela "bergararrak beldurrarazi eta behartzeko".

**Karkaben auzia**

Idatzi berean, erdiguneko hainbat karkabatan egindako egokitzapenak salatu dituzte: "Atez ateko sistema ezartzeko, gune historikoko karkabak egokitzeko saiakera egin zuten, baina EAJk aurkeztutako idatzi eta irregulartasun abisuen ostean, ezerezean geratu ziren proiektu guztiak". Horren ostean: "Orain, Bildu-Aralar gobernuak lokalak erosi nahi ditu herritarrek beren hondakinak bertan uzteko, baina ez dakigu zenbat kostako den horiek erosi eta egokitzea, eta gainera, askoz ere deserosoagoa izango da inguru horietan bizi diren bizilagunentzat".

Era berean, EAJk alkateari gogorarazi nahi dio: "Duela gutxi Oñatiko atez ateko bilketarako kuboak nola desagertu diren ikusi ahal izan dugu, hondakinen bilketa desastre hutsa bilakatuz herri horretan". Eta Arrasateren eredua aipatu dute. "Gobernuaren gardentasun falta" salatu dute; horregatik, "beste instantzia batzuetara jotzeko erabakia" hartu dute, "informazioa jaso eta irregulartasun posibleen berri izan eta beharrezko salaketak egiteko".

## Bergara Garbiak edukiontziak ez batzeko deia berretsi du

Asteon prentsa ohar bidez jakinarazi duen moduan, Bergara Garbiak edukiontziak ez batzeko deiari eusten dio. Hainbat hedabideri helarazitako oharrean salatzen dutenez, Udal Gobernuak "bergararrak presionatzen jarraitzen" du eta ez du "inolako intentziorik erakutsi momentuko edukiontzien sistemak funtziona dezan".

Ohar berean, "Udal Gobernuaren inmobilismoaren aurrean kalera irtetea besterik ez dagoela" aipatu dute. Orain arte moduan, 5. edukiontziaren alde daudela berretsi dute.

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

## Etxetik kanpo lehen garaipena lortzeko aukera du Bergarak

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Bergarak bigarren partidua jarraian jokatuko du Agorrosindik urruti. Azken jardunaldian, Ondarroan Aurreraren aurka puntu garrantzitsua lortu ondoren, etxetik kanpo jokatuko dute berriro ere mahoneroek. Sailkapenean puntu kopuru bera duen Vasconiaren zelaia bisitatuko dute. 20 punturekin daude bi taldeak, eta, hain zuzen, Donostiako taldea atzean uzteko aukera ederra dute Aitor Arrateren mutilek.

Ez da partidu erraza izango, Vasconiak liga hasieratik lortu dituen 20 puntuetatik 15 etxean lortu baititu. Hala ere, aukera ona daukate etxetik kanpo lehenengo garaipena lortzeko. Bederatzi partidu jokatu ditu Bergarak bisitari moduan, eta bat bera ere ez du irabazi. Lau porrot eta bost berdinketa dira Agorrosindik kanpo mahoneroen zenbakiak. Irabaztea, beraz, tokatzen zaie Arrateren mutilei. Bihar, arratsaldeko hiru eta erdietan izango da norgehiagoka, Donostiako Puio futbol zelaian.

# Azken asteko porrotari buelta emateko aukera Soraluce BKEk

### Azken sailkatuaren kantxa bisitatuko dute Josetxo Muniategiren mutilek

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Ez da denboraldiko garai onena Soraluce BKE taldeko mutilentzat. Izan ere, aurreko astean azken minutuan partidua berdintzeko aukera izan ondoren, kontraerasoan galdu zuten norgehiagoka. Gainera, lehenengo taldeko jokalarien %40 min hartuta daude. Gauzak horrela, aukera ederra daukate oraingo asteburuan sailkapeneko goiko postuetan jarraitzeko, azken postuan dagoen Indupide Basauri Mutilen aurka jokatuko baitute. Ezin izango dira, ordea, sailkapenak adierazten duenaz fidatu.

Lehiatzen ari diren eskubaloiko Euskadiko Txapelketan partidu errazik ez dagoela adierazi digu Josetxo Muniategik, Soraluce BKEko entrenatzaileak: "Egia da aldez aurretik irabazteko partidua dela, baina argi daukagu maila honetan ez dagoela partidu errazik. Goiko eta beheko postuetan kokatzen diren taldeen artean ez dago puntuek adierazten duten adinako alderik". Muniategiren mutilek, beraz, gogor jokatu beharko dute garaipena eskuratu nahi badute. Partidua, gainera, etxetik kanpo izango da. Bihar, arratsaldeko hiruretan, Basauriko Artunduaga kiroldegian, hain zuzen ere.



Soraluce BKE, partidu batean. | IMANOL SORIANO

#### Ahultasunari aurre

Lesioak direla-eta arduratuta dago Muniategi, taldeko hainbat postu hankamotz ditu-eta. "Ezker hegalean, esaterako, indibidualki taldean nahitaezkoa eta, noski, guretzat garrantzitsuenetakoa den jokalari bat min hartuta dago. Partiduan zehar asko igartzen da; edozelan ere, lesioak kirolaren parte dira".

*Izurrite* hori daukatenetik azken postuetako taldeen aurka jokatu dute, eta, alde horretatik, zorte apur bat ere izan dutela adierazi digu Muniategik. "Lehenengo postuetan dauden taldeen aurka gehiago igarriko zen min hartutakoen falta; hala ere, ez dago inongo aitzakiarik, lesioak kirolaren parte dira, eta aurrera egin behar da."

## Sailkapenean aurrera egiteko aukera bikaina Soraluce Bergarak

Saskibaloian, gizonezkoen senior mailan, aurrerapauso handia egin dezake Soraluce Bergara KEk bihar arratsaldean. Sailkapenean puntu kopuru bera duen North Coast Dolphins talde donostiarra izango da bihar Labegaraietako kiroldegian. 17 punturekin daude bi taldeak, eta partidu erabakigarria izan daiteke sailkapenean atzera begiratzeari utzi eta aurrera begira jartzeko. Partidua 16:30ean izango da.

## Pilotan, Bergarako eta Arrasateko infantilak aurrez aurre zapatuan

Bigarren mailako infantilen arteko pilota partidua izango dugu asteburu honetan: Bergarako eta Arrasateko gazteek jokatuko dute. Bergarako Udal Pilotalekuan izango da, eta arratsaldeko bostetan hasiko da norgehiagoka. Arrasatearrek, beraz, Bergarara joan beharko dute, eta bertako Udal Pilotalekuan bergararrei irabazten saiatu. Partiduak bere xarma izango du, bailarako bi herri izango baitira nor baino nor gehiago.

## Beartek urteko lanak erakutsiko ditu Aroztegin, gaurtik aurrera

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Urtaroak hala agintzen duelako uzta txikia batzen da hil honetan. Beart elkartekoek, baina, urteko uzta artistikoa erakutsiko dute Aroztegin gaurtik hilaren 26 arte. Erakusketa klasiko horrek azken 365 egunetan kideek emandako aurrerapausoak erakusteko balio izaten du. "Jendeak asko baloratzen du mostra hau eta urtetik urtera hoberantz egiten dugula antzematen da", aipatu du Juanjo Altunak, Bearteko presidenteak.

Aretoko ohiko ordutegian, teknika eta gai askotariko Bergarako artistek sortutako 40 lan erakutsiko dituzte.

#### Eibarren lehenengo

Elkarteak Eibarrekin lortutako akordio bati esker, Aroztegin egongo den mostra Eibarren erakutsi du lehenengo. "Eibarko lokala handiagoa denez, bertara 80 artelan eroan ditugu", dio Altunak.

Dudarik gabe, herriko mostra kanpoan egin dezaketenak baino garrantzitsuagoa edo bereziagoa da. Espazioa txikiagoa edo handiagoa izan, herriko artisten benetako muga bakarra haien irudimena da.

## Mendiko bizikletaren asteburua Palmerakuen eskutik

I.G. | BERGARA

Mendiko bizikleta gustuko dutenek kirol horretaz disfrutatzeko aukera izango dute; izan ere, Palmerakuak taldearen eskutik Palmerakleta ekimena izango da asteburu osoan zehar.

Gaur, 19:30ean, Juan Arbeloaren *Mountain Bike Enduro en Ethiopia* dokumentala izango da ikusgai Migel Altuna Institutuan. Bihar, *Atzoko eta gaurko bizikletak* erakusketa jarriko dute San Martin plazan 17:00etatik 21:00etara. Domekan, goizeko bederatzietan, Palmeratik irtenda mendi bizikleta irteera egingo dute.

## 'Kulunka' kontzertu-ikuskizuna Zabalotegiko oholtza gainean

I.G. | BERGARA

Etxeko txikiei eta haien senideei zuzendutako emanaldia da *Kulunka*. Antzerkiaren eta kontzertuaren arteko nahasketa badirudi ere, emanaldi musikatu bezala har daiteke. Bertan, umeek doinu eta erritmoz betetako beste unibertso bat ezagutzeko aukera izango dute.

#### Emanaldi pedagogikoa

Ikuskizun edo kontzertu horren asmoa da txikitxoek musika zuzenarekin lehenengo aukera izatea, haien interesa, emozioa eta entzuteko gaitasuna piztuko duena. Musika estilo askotariko (jazza, klasikoa eta etnikoa) jatorria duten Paraiso taldeko hiru musikarik –Laura Marcos (oboea), Koldo Uriarte (teklatua), Sergio Lopez (perkusioa)– euren sormena batuko dute umeek murgil eta goza dezaketen soinudun unibertsoa sortzeko.

Domeka arratsaldeko saioa (18:00) berezia izango da, duda barik. Lau euroren truke gaztetxo eta ez hain gaztetxoek opari musikal bat jasoko dute. Hainbat erritmoren bitartez ikusleek zentzumenen bidez musikarekiko grina suspertzeko aukera izango dute.

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

# Ia 17 milioi euroko aurrekontua, lau zutabetan banatuta

- Enplegua sustatzea izango da ardatzetako bat
- Kirol azpiegituren azterketa sakona egingo dute
- Eskolabus proiektua jarriko dute martxan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

16.963.899 euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak 2014an, iaz baino %3,20 handiagoa. "Aurrekontu egonkorra da, sarreren eta gastu arrunten oreka mantendu da. Proiektuak aurrera ateratzeko moduan dago Udala", adierazi zuen Mikel Biain alkateak abenduko osoko bilkuraren ostean, aurrekontuak onartu ostean. EAJk kontrako botoa eman zuen.

**Langabeendako lokala**

Aurtengo aurrekontuetan enpleguaren sustapena izango da zutabeetako bat. Horrela, Euskal Herriko Gizarte Gutuna garatzen ari diren herriekin elkarlana landuko da eta langabeen mahaia osatzea da asmoetako bat. "Langabeen asanblada bat antolatzea bultzatuko da, eurak elkartzeko lokal bat eskainiz", adierazi zuen Sozioekonomiako batzordeburuak, Josu Lizarraldek, aurrekontuak onartu zituzten osoko bilkuran. Arlo horretan, baina, bestelako ekimen batzuk ere burutuko dituzte. Batetik, langabeei begira, 15 pertsona kontratatzea aurreikusten da, jardunaldi partzialean. Formazioa ere eskainiko zaie, esaterako, langabeei eta autonomoei eta astean behin, eguaztenetan, langabeendako orientazio zerbitzu berezia eskainiko da enplegu zentroan.

Herriko negozioei begira, nazioartekotze prozesuan laguntzeko proiektua jarriko dute martxan eta garapenerako lau proiektu ere identifikatu eta martxan jarriko dituzte Foro Sozioekonomikotik abiatuta. Moneta soziala eta Debagoieneko erosketa bonuak ere sustatuko dituzte, herriko merkatari eta ostalarien aldeko apustuaren barruan.

**Tutoretzapeko etxebizitzak**

Tutoretzapeko etxebizitzen zerbitzua indartuko du Udalak aurten eta alor horretarako gizarte laguntzaile bat kontratatuko da barne promozioz. Bestalde, etxebizitzak alokatzeko bultzatuko duen sentsibilizazio kanpaina egingo dute eta bigarren etxebizitza zigortuko dute zerga bidez. Alokairu sozialera bideratutako bi etxebizitza gehiago ere egokituko ditu.

**Landetako bideak berreskuratu**

Lurralde antolaketaren garapenerako ardatza dagoeneko martxan dagoen mugikortasun plana da. 200.000 euro bideratuko dira plan horretatik sortuko diren ekintzak egiteko. Bidegorri sarea garatzeko 100.000 euro daude gordeta aurrekontuetan eta beste 50.000 euro landetako bide zaharrak berreskuratu eta ibilbideak sortzeko. Irisgarritasunari lotuta, trabak dauden guneak egokitzeko 50.000 euro gorde dituzte. Horrez gain, Zubillaga auzoa urbanizatu eta irisgarri bihurtu gura du Udal Gobernuak. "Aspaldian ez da ezer egin Zubillagan, zaharkituta dago, eta behar diren lanak egingo ditugu", adierazi zuen alkateak abenduko osoko bilkuran. Bestalde, San Lorentzo eta Errekalde auzoetako lanekin ere jarraituko dutela gaineratu zuen.

Hondakinen gaiari lotuta, auzo-konposta egiteko gune gehiago edo teknika berriak aztertuko dituzte eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta materialen berrerabilpena sustatzeko kanpainak egingo dituzte. Argiteria publikoaren efizientzia energetikoa lortzeko lanean jarraituko

**MIKEL BIAIN** | ALKATEA

## "Pertsona oinarri duen jendartea gura dugu"

Udalak ia 17 milioi euro izango ditu 2014rako.

**Joan den urtekoa baino %3,20 handiagoa izango da 2014ko aurrekontua. Non dago igoera? Zertan antzemango da?**

Lau zutabe nagusitan banatu ditugu 2014rako aurrekontuak eta, zalantza gabe, pertsona ardatz hartzen duenak izango du gehikuntzarik handiena eta horren baitan arreta sozialean, enpleguan eta herriko merkataritzaren defentsan. Kulturak ere bultzada handia jasoko du ETEOko proiektua dela-eta. Azkenik, mugikortasun plana garatzeko aurreikusten diren 200.000 euroak ditugu, bidegorriaren garapenera, auzoen arteko lotura diren bide naturalak atontzera eta oztopo arkitektonikoak ezabatzera bideratuko direnak.


GOIENA

"Orotariko 176 ekarpen jaso ditugu; eskertzekoa da"

**Zein da oinarria?**

Ama lurrarekin, aniztasunarekin eta askatasunarekin errespetuz, pertsona oinarri eta zentro izan eta gure ohitura eta kultura sustatuko duen jendartea osatzea bilatzen dugu.

**Eta zeintzuk izango dira ildo nagusiak?**

Pertsona ardatza hartzen duen zutabean: enplegua, formazioa, zortzi ikaslek enpresarako lehen sarrera izango dute enpresaren eta Udalaren artean sinatutako hitzarmenari buruz. Eguneko zentroan bost plaza gehiago egokitzea eskatuko diogu Aldundiari eta tutoretzapeko etxebizitzen proiektua garatzea. Ama lurraren zutabean, mugikortasun planak eta garraioaren jasangarritasunaren bidean egin beharreko arrazionalizazioa izango da garrantzitsua. Iaz Arantzazuko autobus zerbitzuarekin hasi ginen (%34ko kostu jaitsiera izan dugu erabiltzaileak %18 igo diren bitartean) eta orain eskola eta enpresetara doazen langileekin jarraituko dugu. Kulturan, ludotekaren proiektu eraberritua apustu handia da eta askatasunaren zutabean, migrazioaren arloan aniztasunari buruzko azterlana eta *Nagusi* programa.

**Ze ekarpen jaso dituzue herritarrengandik?**

Orotariko 176 ekarpen jaso genituen idatziz eta azaroan burututako saioan 50 bat herritarrekin landu genituen lehentasunak. Oso balorazio positiboa egiten dugu eta eskerrak eman nahi genizkioke hemendik guztiei. Kultura politiko aldaketa bat dakar.

**Oposizioak ezezko botoa eman du. Zein gaitan izan dituzue desadostasun handienak?**

Ezezko politiko bezala ulertzen dugu. Oso lanketa eskasa eginda ekarri zituzten beraien proposamenak (orri batera ez ziren iristen) eta proposatzen zituzten puntu gehienak jasoak genituen jada. Beraiek azaldu beharko dute ezetza. Deitutako bileretara ere apenas etorri dira eta herritarrekin egin genuen lehenespen saiora kale egin zuten.

**Gipuzkoako udalen batez bestekoa baino txikiagoa da Oñatik duen zorra.**

Zor Bizi erlatiboa %23,30ekoa da Oñatiren kasuan. Eta Gipuzkoako tamaina paretsuko udalerrietako batez bestekoa %25 da. Udalak dituen sarreren tamainako gastua/inbertsioa gauzatzea da horren gakoa.


Autobusa San Lorentzoko geltokian. | OIHANA ELORTZA

## Elorregiko 'lanzaderak' aprobetxatu

Lanbus kendu eta zerbitzu hori Elorregira ordu erdian behin doazen autobusek betetzea da asmoa. "Mugikortasun jasangarriaren baitan, herritarrek ez dute ulertzen denbora tarte txikian autobusak bata bestearen atzetik ibilbide bera egitea. Bi zerbitzuak elkartzearen alde egiten dugu eta langile guztiei kalitatezko garraio publikoa eskainiko diegu", dio Biainek.

## Lourdes Idoiaga (EAJ): "Gobernuak planifikaziorik eza duela ikusi dugu"



"Aurrekontuen aurka bozkatu dugu. Dozena bat proposamen egin ditugu eta erdiak ere ez dira onartu. Beste ekarpen batzuen aldaketak, berriz, aurrekontuak onartu aurretiko egunetan jaso genituen", dio EAJko bozeramaile Lourdes Idoiagak.

Idoiagak adierazi du hainbat proiektutan alternatibarik ez duela aurkeztu Udal Gobernuak; Lanbusen, esaterako. "Udal Gobernuak duen planifikaziorik eza ere ikusten dugu, irisgarritasun planetan, esaterako. Guk San Juan kaleko lanak Unibertsitateraino luzatzearen alde egin genuen, baina ondo ikusten dugu Zubillaga kontuan hartzea. Bestalde, Errekaldeko plazatxoa eta erdigunea berriztatzea ez da aurreikusi, eta hori ez zaigu ondo iruditu". Hondakinen gaiari lotuta, tasak ez igotzea ez dute egoki ikusten jeltzaleek. "Bi urtean hondakinen tasa ez igotzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak. Guk ez ditugu herritarrak zigortu gura, baina ezta Udaleko kontuetan defizita sortzea ere. Bi urte horietan 450.000 euroko zuloa sortu da. Bestalde, Oñatiko Ur Jauzietatik 800.000 euro atera dira, eta diru hori egoera larrietan erabiltzeko gordeta zegoen, inbertsioetarako, ez gastu arruntetako zuloak estaltzeko", adierazi du Idoiagak.

Bildurekin adostutako gaiak ere aipatu gura izan ditu Idoiagak: "Ezinduen garraiorako, adibidez, 11.000 euro zeuden, eta 8.000 gehiago sartu dituzte EAJren proposamenari esker. Bestalde, eguneko zentroan beste bost plaza egotea eskatu genuen, eta kudeatuko dutela esan digute".

**Argiteria**

"Auzoetako ohiko pasealekuen hobekuntza ere landuko genuke, Maalako itzulia edo Kilometroetako ibilbidea modukoak. Bide horietan eserlekuak edo argiteria egokia jartzea da gure proposamena. Badago landetako bideak berreskuratzeko diru partida bat, baina ez du zehazten zein bidetan edo nola. Dena dela, adostu dezakegun gaia izan daiteke hori", dio Idoiagak. "Argiteriari lotuta, efizientzia energetikoa lortzearen alde gaude eta ondo ikusten dugu argiteria aldatzen jarraitzea, baina gure eskaria da lan hori ez dadila bakarrik izan farolak aldatzea, Bidaurretan egin duten moduan. Argi puntu horien kokapena eta argitasun maila neurtzea eta kontuan hartzea ere gura dugu", gaineratu du.

## Moneta soziala, komertzioen alde

Herriko merkatari txikien alde egingo du aurten ere Udalak eta moneta soziala sortuko du. Hiru fase izango ditu: "Lehenengoan, Udaleko langileen soldataren zati bat herrian gastatzeko moneta bat sortuko da. Bigarren fasean, herriko enpresei eskainiko diegu ekimenean parte hartzeko eta hirugarrenean udal hobariak modu horretan banatuko ditugu", azaldu du alkateak.

Debagoieneko merkataritza bonuak ere sutatuko ditu; esaterako, 20 euroko bonuak 25 euroko erosketak egiteko.



Herritarrak Kale Barrian eguazten iluntzean. | IRATI GOITIA



Zubillaga auzoa, Aloña atzean duela. | O.E.

## Zubillaga urbanizatu egingo dute

"Zubillagarako 150.000 euroko partida aurreikusi da auzoko urbanizazioari ekiteko. Ahaztua egon den auzo bat dela pentsatzen dugu eta horrela transmititu digute auzotarrek. Proiektuak zehaztuko du zein lan egingo den", adierazi du alkateak. Errekalden etxe atarietarako eta garajeetarako sarrerak egokituko dira eta 2015erako lanetarako proiektua garatuko da.

### AURTENGO AURREKONTUAK SAILKA

| SAILAK | GASTUAK 2013 | GASTUAK 2014 | ALDEA 2013-2014 | ALDEA 2013-2014 |
|---|---|---|---|---|
| **Komunikazioa eta parte hartzea** | 177.822,00 | 164.122,00 | -13.700,00 | -%7,70 |
| **Gizarte zerbitzuak** | 1.864.993,65 | 1.973.753,39 | 108.759,74 | %5,83 |
| **Kirola** | 1.250.412,50 | 1.281.098,77 | 30.686,27 | %2,45 |
| **Kultura** | 1.047.348,47 | 1.160.444,10 | 113.095,63 | %10,80 |
| **Barne antolaketa** | 5.982.634,53 | 6.210.790,07 | 228.155,54 | %3,81 |
| **Sozioekonomia** | 587.445,76 | 585.379,34 | -2.066,42 | -%0,35 |
| **Lurralde antolaketa** | 4.777.190,15 | 4.845.187,18 | 67.997,03 | %1,42 |
| **Aisialdi hezitzailea** | 750.169,69 | 743.124,88 | -7.044,81 | -%0,94 |
| **GUZTIRA** | **16.438.016,75** | **16.963.899,73** | **525.882,98** | **%3,20** |

dute eta orain aurreztutakoaz gain, beste 100.000 euro inbertituko dituzte.

**Eskolabus martxan**

Hezkuntza Mahaiak aurrera jarraituko du 2014an, eta Eskolabus martxan jartzea eta Herri Curriculuma lantzeko lehen urratsak egitea ere gura da. Eskolabus proiektua laster jarriko dute proban. "Herriko bi ikastetxek egin dute akordioa eta asmoa da Aste Santu ostean proba pilotu bat egitea. Horrekin batera, eskolara oinez joateko aukerak ere bultzatuko dira", adierazi zuen Biainek.

*Eltzia* proiektuak eta haur eta nerabe etorkinen integrazio lanak ere jarraipena izango dute. Bestalde, Udalak 2015ean Bikain ziurtagirira aurkezteko, 10.000 euro erabiliko dira aurten.

Kirolari begira, kirol-gune, azpiegitura eta baliabideen azterketa sakona egingo dute aurten eta emakumeen kirola eta emakumeak kirol-esparru denetan egotea sustatuko da. Gazteriaren plan integrala ere egingo da, eta aisialdi lokalen gaiari helduko diote, gai horrekin lotura duten agente guztiekin prozesu bat bideratzeko.

ASTE HONETAN ARGIA BEREZIA
MUGARRI BAT KONPONBIDEAREN ALDE
URTARRILAREN 11KO MANIFESTAZIO HISTORIKOA

- Joseba Egibarri eta Joseba Azkarragari elkarrizketak
- Amaia Izkoren iritzi-artikulua
- Euskal Herriko gehiengo soziala batu duen gertakariari buruzko analisiak




POSTERRA OPARI!
57x42 cm

argia
Garai interesgarriak
Begirada independentea

Eskaerak: ✆ 943 371 545 | denda@argia.com

Zenbaki berezia + posterra: 3,90 €
Zenbaki berezia + posterra + babes hodia: 8,90 €
Posterra babes hodian: 5 € / 3 € harpidedentzat



Txaloka ludotekako eta Bertakotze programako langileak, Txatxilipurdiko eta Udaleko ordezkariekin. | TXOMIN MADINA

# Umeen aisialdi zerbitzuak, Txatxilipurdik kudeatuta

Txaloka ludoteka, udaleku irekiak eta Bertakotze Programa kudeatuko ditu

T.MADINA / I. GOITIA | OÑATI

Aurrerantzean Txatxilipurdik kudeatuko ditu Txaloka ludoteka, udaleku irekiak eta Bertakotze programa, ardura hori zuen enpresaren kontratua bukatuta.

**Parte-hartzea oinarri**

"Ludotekak azken urteetan eman duenaren gaineko balorazioa egin da. Uste dugu herritarragoa izan behar duela. Hala, bere jarduna ez dela eraikinera mugatu behar deritzogu eta herrira gehiago zabaldu behar dela. Aldi berean, herriak ere ludotekan parte-hartze handiagoa izan behar duela uste dugu", adierazi du Nerea Zubiak, Hezkuntza zinegotziak. Gaineratu du buruan zuten ideia oso ondo jaso duela berez Arrasatekoa den eta horrelako zerbitzuetan 20 urteko ibilbidea duen Txatxilipurdik aurkeztutako proiektuak.

Aurrerantzean, bi hezitzaile egongo dira Ludotekan eta beste bi Bertakotze Programan. Hezitzaile guztiak oñatiarrak izango dira. Txatxilipurdiko Ainara Kortabarriaren esanetan, hezitzaile horiek ez dira ume eta gaztetxoen gidariak izango, bidelagunak baizik. "Ez da orain arte eskaini dena izango. Hau da, hezitzaileek programaketa zehatz bat erabaki eta hori egitea. Hori apurtu eta asanbladen bitartez, haurrei hitza emango zaie. Hau ludoteka, Bertakotze Programa eta udaleku irekietan egingo da", zehaztu du Kortabarriak. Gurasoak ere ludotekaren parte egin nahi dituzte, euren inplikazioa sustatuz eta, hala eskatzen badute, gurasoei aholkuak eskainiz.

Urtebeterako esleitu diote kudeaketa Txatxilipurdiri.

**Prezioa %70 jaitsiko da**

Ludoteka zerbitzuaren beste aldaketa bat ordaindu beharreko kuota da, %70 jaitsi da-eta. "Konturatu ginen ludotekaren prezioa gehiegizkoa zela, eta, azkenean, askotan muga ere bazen bertara hurbiltzeko", dio Zubiak. Hala, aurrerantzean 60 euro ordaindu beharko da matrikulazioa; bigarren umearengatik 50 eta hirugarrenarengatik 40.

Otsailaren 1etik aurrera egongo da zabalik berriz ere ludoteka. Aurretik, baina, urtarrilaren 20tik 30era, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte. Bertan parte hartzeko dei egin diete familiei. Hilaren 31n, aurkezpen jaia egingo dute Foruen plazan.

# Bideo emanaldia domekero gaztetxean

I.G. | OÑATI

Beste ekimen bat jarriko dute martxan Antixenako gaztetxean: bideo emanaldiak.

"Ez dugu nahi izan urte osoan zeharreko bideo emanaldi luze bat antolatu. Horren ordez, aukeraketa zorrotza egitea eta emanaldi denboraldi motzagoa egitea erabaki dugu. Hori horrela izanik, arreta berezia jarri dugu emitituko diren lanen aukeraketan eta emaitza txukuna lortu dugulakoan gaude", adierazi dute gaztetxetik. Hala, alde batetik, zinemaren historian klasiko bilakatu diren zuzendari eta pelikulak aukeratu dituzte; eta beste alde batetik, gai politiko eta sozialen inguruan diharduten film eta dokumentalak.

Urtarrilaren 19an hasiko dira emanaldiak eta domekero izango dira martxoaren 9ra arte, 19:00etan. Honako lanak izango dira ikusgai, hurrenkera honetan: ETAri buruzko TVEren dokumentala, *Agenda oculta*, *La Strada*, *Amour*, *Gatza*, *Z*, *El desencanto* eta *Danzad, danzad malditos*. Emanaldien ostean afari-merienda eta eskainiko diren lanei buruzko hizketaldia egingo dituztela zehaztu dute gaztetxetik.

## Ikasle mugimenduak antolatuta 'Ikasle gaua' egingo dute Antixena gaztetxean bihar, zapatua

Arlo eta adin askotariko gazteak elkartu eta harremanetan jartzeko helburuaz eta gazteak Antixena gaztetxera erakartzeko asmoz, *Ikasle gaua* antolatu dute ikasle mugimendutik biharko. Hiru kontzertu izango dira: Josu Zubia, The Convicts eta Trikimailu erromeria taldea. Sarrera bi euro da eta 21:30ean hasiko dira emanaldiak. Gazteak animatu dituzte mugimendutik.

## Ilunpetan Argazki Taldeak 'Argazkigintza hastapena' izeneko ikastaroa jarriko du martxan

Etxean dugun argazki-kamera ulertu eta hobeto erabiltzen ikasteko ikastaroa eskainiko du Ilunpetan Taldeak. Teknikaz gain, irudien konposizioa ere landuko dute. Ikastaroa otsaileko lehenengo astean hasiko da eta Aste Santura arte iraungo du (10 aste). Eguaztenetan izango da, 18:30etik 20:00etara. Izena emateko bi bide daude: *ilunpetan@gmail.com* helbidera idatzita edo 605 75 39 66 telefonora deituta. Prezioa 60 euro da.

## Seme-alabek daukaten hoberena garatzen laguntzeko, 'coaching' tailerra gurasoentzat

Herriko ikastetxeek, bertako guraso elkarteek eta Oñatiko Udalak osatzen duten lan-mahaiak *guraso coaching* tailerra antolatu du. Izenburua da: *Nola lagundu gure seme-alabei daukatzen hoberena garatzen*. Hizlaria Virginia Espin izango da. Sei saio izango dira, euskaraz. Izena emateko azken eguna da gaur (*ainhoa@oinati.net*-era idatzi edo 943 03 77 00ra deitu).

# Julen Umerez: "Euskadiko hautatzaileak beste behin deitzea oparia izan da"

Espainiako ziklo-kros txapelketan izan zen asteburuan; 14. postua lortu zuen

I.G. | OÑATI

Euskadiko Selekzioarekin Segorben izan zen joan zen asteburuan Julen Umerez, Espainiako ziklo -kros txapelketa jokatzen. Ondo aritu zen gazte oñatiarra eta 14. postuan bukatu zuen.

**"Pozik eginikoaz"**

Aurreko urtean ere hautatu zuten Euskadiko Selekzioarekin lehiatzeko. Aurten, baina, ez zuen halakorik espero. "Aurreko urtean kadeteetako bigarren urtean nenbilen, baina aurten gazteetan nire lehen urtea da eta ez nuen hautatzaileak deitzerik espero. Abenduaren 30ean deitu zidan eta izugarrizko oparia izan zen niretzat". Gaineratu digu esperientziaz disfrutatzeko asmoz joan zela bertara, eta baita hurrengo urtera begira ikasteko helburuarekin ere. Azkenean, baina, espero baino postu hobean bukatu zuen. "Irteeran azkenengo lerroan jarri nintzen. Izan ere, ez dut Espainia mailako beste lasterketetan parte hartu. Gainera, aurten, denboraldiaren erdia bakarrik jokatu dut. Beraz, buruan ez nuen postu ona egitea. Hala ere, poliki-poliki txirrindulariak aurreratzen joan nintzen eta 14. postuan amaitu nuen. Oso pozik nago egindakoarekin. Iaz, kadete mailan, urtebete gazteagoekin aritu nintzen eta 15. postuan iritsi nintzen helmugara. Aurten, gazteetako lehen urtean, 14. gelditu naiz", dio Umerezek.

Asteburu honetan Gipuzkoako Selekzioarekin korrituko du ziklo-kros denboraldiko azken lasterketa, Frantzian. Gero, atseden pixka bat hartuko duela esan digu, martxoan errepideko denboraldia hasi baino lehen.



Julen Umerez, Segorben jokatutako Espainiako ziklo-kros lehian. | J. UMEREZ

# Jar Gaitezen ekimenean jasotako ekarpenak Arkupen daude ikusgai

## 'Aretxabaleta argazkitan' lehiaketako argazkiekin osatu dute erakusketa

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Irailean hasi eta azaroan bukatu zuten Jar Gaitezen ekimenean jasotako ekarpen eta ondorioak ikusgai jarri dituzte Arkupeko erakusketa aretoan; baita lan prozesu guztiaren berri ematen duen proiekzioa ere. *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketara aurkeztutako lanekin osatu dute erakusketa hori. Hilabetea bukatu bitartean izango dira ikusgai argazkiok, eta herritarrek gustukoena bozkatzeko aukera izango dute.

### Ekarpenak egiteko aukera

Aretxabaletar askok, ia 200 batek, hartu dute parte Bagarak bideratu duen Jar Gaitezen ekimenean. Prozesuan landutakoak laburtuta eta era grafikoan jarri dituzte orain ikusteko; batetik, egindako analisiak, eta bestetik, aurrera begirako erronkak.

Zazpi arlotan banatuta egin dute lan prozesu guztian, eta erakusketan ere halaxe agertzen da, panel ezberdinetan jaso dituztelako arlo ezberdinetako ekarpenak. Hona arloak: hiri antolamendua eta ingurumena; sozio-ekonomia eta ongizatea; kultura; kirola; hezkuntza; gazteria; eta euskara. Hiri antolamenduari dagokion arloan Basotxoko erretiratuek herriaren gainean egindako txosteneko ekarpenak ere jaso dituzte; baita Hector Prieto aretxabaletarrak egindakoak ere. Eta landutako arlo guztietan egin diote tartea genero ikuspegiari.

Bagarako kide Arkaitz Biain pozik agertu da herritarrek egindako lanarekin: "Herritar ezberdinak, udal agintariak, herriko langileak, langabeak, ikasleak… maila eta mahai berean egon dira eserita. Eta benetan ekarpen eraikitzaileak egin dituzte guztiek". Hori bai, aitortu du ez dela batere samurra izan prozesuan esandako eta jasotako guztia erakusketarako laburtzea.

Erakusketa hori osatzeko 5 urteko umeek –Kurtzebarri eskolakoak eta Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunekoak– diseinatutako jolasparkeak jarri dituzte ikusgai, "herriko txikienek ere esateko badaukatelako".

Bagarako kideak, baina, argi utzi gura du erakusketa ez dela "argazki estatiko" bat: "Parte hartutako arloetan edo gainontzekoetan ekarpenak edukiz gero, horiek idazteko panel bat ere badago".

### Argazki lehiaketa

Bestalde, *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketa jarri zuen abian Bagarak, eta finalisten bildumak ikusgai daude orain Arkupen. Aretxabaletarekin zerikusia duten hiru argazkiko bildumak eskatu zituzten, eta hamaika daude guztira. Batzuk herritarrek bidali dituzte eta beste batzuk unibertsitateko ikasleek.

Bi sari banatuko dituzte: epaimahaiarena eta herritarrena. Epaimahaiak bildumarik onena hautatuko du, eta herritarrek argazkirik politena. Hautaketan parte hartutako herritarren artean gainera, bi sari zozketatuko dituzte: bertako produktuez osatutako saskia eta Arkupeko zinerako bina sarrera (hilabeterako).

### Urtarrila bukatu bitartean

Erakusketa, urtarril osoan izango da Arkupen, honako ordutegiarekin: astean zehar, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; eta domeketan eta jai egunetan, itxita. Eta ekarpenak egin eta argazkiak bozkatzeko aukera ere urtarril osoan izango dute herritarrek.



Hirigintza arloko ekarpenei begira Bagarako Arkaitz Biain. | M.A.



Lehiaketara aurkeztutako argazkiak erakusketa aretoan zintzilik. | M.A.

**DATUA**

**11**

BILDUMA

Hiru argazkirekin osatutako 11 bilduma daude ikusgai. Epaimahaiak bildumarik onena aukeratuko du eta herritarrek argazki politena.

**ESANAK**

**"Erakusketa ez da argazki estatikoa, ekarpenak egiteko aukera dago bertan"**

ARKAITZ BIAIN | BAGARA

# Saiatu Berriz bikote usurbildarrak irabazi du Ostegun Akustikoak lehiaketa

## Lau emanaldi izan ziren azaro eta abendu artean herriko tabernetan eta astean banatu dituzte sariak; bigarren geratu da Josu Zubia oñatiarra

**G.ARANA/M.ALTUBE** | ARETXABALETA

Debagoienean jaio edo bizi diren musikari gazteei kantuak jendaurrean plazaratzeko asmoz sortu zen *Ostegun Akustikoak* lehiaketa Udalaren eskutik eta Arteman Komunikazioak bideratu du. Lau emanaldi izan ziren guztira azaro eta abendu artean, eta herritarrek aukeratu dute irabazlea, Usurbilgo Saiatu Berriz bikotea; 200 euroko saria jaso du hark. Bigarren geratu da Josu Zubia Oñatiko bakarlaria, eta 100 euro eskuratu ditu.

### Euskaraz eta ingelesez

Usurbilgo Josu Furundarena (gitarra) eta Garazi Artola (ahotsa) Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira, eta Debagoienean bizi dira. Urrezko Muskerrak taldean ezagutu zuten elkar, eta taldea banatzean, pop kantuen bertsioak euskaraz eta ingelesez abesten jarraitu zuten biek Saiatu Berriz izenaren babesean. Ostegun Akustikoak lehiaketaren azken emanaldia izan zen eurena; emanaldi goxoa eskaini zuten Dagda tabernan.

Bigarren saria eskuratu duen Josu Zubia oñatiarrak aurretik ere jaso izan ditu sariak, Euskadiko Kantu Txapelketan, hain zuzen. Orain dela bizpahiru urte kontzertuak ematen hasi zen bakarlari legez. Kantu propioetan popa eta folka lantzen ditu eta diskoa kaleratu berri du. Goxo jardun zuen Zubiak ere, Exprex tabernan, azaroan.

### Oso balorazio ona

Udalak antolatutako ekimenaren helburua izan da udazken-negu parteko ostegunetan, Aretxabaletako tabernetan, herritarrei zuzendutako eskaintza kulturala sustatzea. Lehenengoz antolatutako lehiaketan lau talderen emanaldiak izan dira: Azkaiter Pelox, Josu Zubia, Jim TNT eta Saiatu Berriz.

Lehen edizioa bukatuta, antolatzaileek egin duten balorazioa "oso ona" da. Izan ere, ekimen berria izan arren, hainbat herritako musikariek parte hartu dute eta musika zaleek jakin-minez erantzun. Eta tabernariak ere pozik daudela jakinarazi dute, herrian askotariko eskaintzak proposatzeagatik.



Saiatu berriz bikotea eta Josu Zubia bakarlaria sariak jasotzen. | ARTEMAN

# "Kiroldegia ez da itxiko", argitu du alkateak

**M.A.** | ARETXABALETA

Kiroldegia itxi egingo den zurrumurrua bolo-bolo dabil azken asteotan kiroldegiko erabiltzaileen eta herritarren artean. Ana Bolinaga alkateak hori argitu gura izan du, eta herritarrak lasaitu: "Ibarra kiroldegiaren gaineko zurrumurruak guk geuk ere entzun ditugu, baina ez da itxiko". Eta zera gaineratu du: "Badakigu zurrumurru hori nondik datorren, nork sortu zuen eta nola izan zen; behintzat, hasierakoa. Baina argi eta garbi diogu Ibarra kiroldegia ez dela itxiko".

Kiroldegia 2012ko irailean zabaldu zuten, eta hiru enpresak –LKS, Athlon eta Ondoan– osatutako elkarteari eman zion kudeaketaren ardura Udalak, 10 urterako.

**Hector Prieto Rosado** | Historialaria

# "Aretxabaleta herri pribilegiatua da elbarriondako, baina beti daude hobetzeko kontuak"

Elbarritasunaren eta mendekotasunaren gainean jardun du astean Basotxon



Hector Prieto, hitzaldia egiteko gertu. | MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Elbarritasunaren eta mendekotasunaren gaineko kontuak jaso ditu txosten batean Hector Prieto Rosadok (Aretxabaleta, 1983) oraintsu, eta martitzenean txostenean jasotakoen berri eman zien Basotxo erretiratuen elkarteko kideei.

**Basotxon egindako hitzaldiarekin zer agertu gura izan duzu?**

Esperientzia pertsonaletik abiatuta elbarritasunaren ondorioz sortutako arazoak ezagutzera eman gura izan dizkiet herritarrei; arazook Aretxabaletan zelan bizi ditudan nik, hain zuzen.

***Arazoak* diozunean zeri buruz zabiltza? Mugikortasun arazoak, babes falta...?**

Gehienbat, mugitzeko arazoak dira, traba arkitektonikoak, baina ahaztu barik beste arazo batzuk ere baditugula, gizarte zerbitzuetako laguntzekin zerikusia dutenak, esaterako. Bestetik, herritarrek askotan ez dute jakiten zelan zuzendu guregana, umeei bezala egin izan digute berba; babes falta baino gehiago, ezjakintasuna dagoela uste dut.

**Gizarte laguntzako legea asko aipatu da azken urteotan; horren gainean ere egin duzu berba?**

Bai mendekotasuna zer den ezagutzera emateko. Askotan ez da ezagutzen elbarritasunaren eta mendekotasunaren arteko ezberdintasuna, eta horren berri ere eman gura izan dut.

**Erretiratuen aurrean egon zara eta askok gero eta mendekotasun handiagoak izango dituzte; mezu berezirik eman gura izan diezu?**

Poliki-poliki hobekuntza asko lortu ditugula, eta horiek ez galtzeko lanean jarraitu behar dugula. Azken urteotako egoera ekonomikoagatik laguntza asko murrizten dabiltza, eta hori ekidin beharra daukagu.

**Aretxabaleta herri erosoa da mendekotasunak dituen lagun batendako?**

Nire ustez, bai, oso erosoa da; hobekuntza gehiago lortzeko lanean jarraitu behar dugu, baina ni oso gustura nago. Gurpildun aulkiarekin ibiltzeko arazo handirik ez daukagu eta azken urteotan hobekuntza asko egin dira; hortaz, herri pribilegiatua dugula esango nuke.

**Hala ere, beti egongo dira hobetzeko kontuak, ezta?**

Bai, noski, asko dago hobetzeko. Loramendi kale inguruko zebra-bideak, esate baterako, zahartuta geratu dira, eta begiratu beharrean daude. Baina benetan garrantzitsua iruditzen zaidan gabezia da udaletxean igogailurik ez egotea; larria da gero hori, herriko eraikin publiko garrantzitsuena delako.

**Samurra da jendeari konturatu eragitea elbarritasunak dituztenendako mila oztopo daudela herri batean?**

Norberak ez badu zailtasunik ez da samurra horretaz konturatzea, baina ez gura ez duelako; nork bere bizimodua du eta ez die halakoei erreparatzen. Elbarriarendako, ostera, oztopo txiki bat arazo handia izan daiteke.

**Krisi garaian dirua izaten da aitzakia laguntzak murriztu eta hobekuntzarik ez egiteko; baina diru kontua da ala borondate kontua gehiago?**

Borondate kontua; Gipuzkoan, esaterako, mendekotasunarendako diru laguntzak mantendu egin dituzte, baina Bizkaian jaitsi, eta asko, diru hori azpiegitura handietara bideratzeko. Pertsonok lehentasuna izan beharko genuke beti, eta ez bakarrik elbarriok, guztiok baizik.

**Kontu horiekin guztiekin txosten bat osatu duzu, ezta?**

Bai, mendekotasuna orokorrean landu dut bertan, eta elbarriok historikoki izan ditugun arazoak jaso ditut beste kontu batzuen artean. Basotxoko erretiratuek aurretik beste txosten bat egin zuten, eta nirea horren osagarria izango litzateke.

> "Umeei bezala berba egin izan digute askotan, ezjakintasunagatik"

> "Oztopo txiki bat arazo handia izan daiteke elbarri batendako"



Erretiratuen elkarteko aretoa jendez beteta Prietoren hitzaldian. | M.A.

## Basotxoko aretoa jendez lepo egon zen

Aretxabaleta herri lagunkoia den aztertu dute azken urtean Basotxoko erretiratuek, eta ondorioekin txostena egin. Hector Prietok, hori jakinik, ekarpenak egin gura izan dizkio lan horri, eta beste txosten txiki bat osatu du hainbat gai landuta: mendekotasuna, elbarriek dituzten arazoen ibilbide historikoa... Horren guztiaren berri eman zuen martitzenean, erretiratuek gonbidatuta, eta Basotxoko aretoa txiki gelditu zen.

## OHARRAK

**LUPE LEKUONA IPUIN KONTALARIA BIHAR**

Lupe Lekuona ipuin kontalari ezaguna (Hondarribia, 1964) izango da bihar, zapatua, Udal Liburutegian (11:30). 4 urtetik gorako umeendako kontatuko ditu fantasiazko ipuinak; debalde da ekitaldia.

**'LA VIDA SECRETA DE WALTER MITTY' ETA 'GRU2'**

Helduek *La vida secreta de Walter Mitty* (Ameriketako Estatu Batuak, 2013) filma izango dute aste bukaeran; gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Gru2 mi villano favorito* marrazki bizidunen filma izango dute bihar eta etzi (17:00).

# Screamers & Sinners taldearen kontzertua gaur

'Demon Tales' diskoa aurkeztuko du Haizean



Screamers and Sinners taldea. | SCREAMERS & SINNERS

**M.A.** | ARETXABALETA

Arrasateko eta Aretxabaletako kideak dituen Screamers and Sinners taldeak *Demon Tales* diskoa aurkeztuko du aste bukaeran. Gaur gurean izango dira, Haizea tabernan (20:30), eta haiekin batera joko du 50eko hamarkadako abestien bertsioak egiten dituen Gaupa-Heroes talde aretxabaletarrak. Bihar, ostera, Arrasateko gaztetxean izango dira (22:00), Los Quadrophenicos talde arrasatearrak eta Gaupa-Heroesek lagun eginda.

### Lehenengo diskoa

Oraindik talde hasiberria da Screamers and Sinners, urte eta erdi inguru bakarrik pasatu delako sortu zutenetik, baina bertako kideak eskarmentu handiko musikariak dira, Golpe de Estado, Neallta Fola eta Los Galerna taldeetan jarduten dute-eta. Psychobilly deitutako estiloa lantzen dute, punk eta rockabilly estiloen nahasketa, hain zuzen. Baina beste hainbat estiloren eragina ere badutela diote; surf instrumentalarena eta countryarena, besteak beste. Gitarrista bik, saxo-joleak, harmonika-joleak, kontrabaxu-joleak eta bateria-joleak osatzen dute taldea, baina diskoa grabatzerakoan laguntzaileak ere izan dituzte: *Little Jim* kantuan Jul Bolinagak banjoa jo du eta *Evil Trashmen* kantuan Txus Stillek pianoa.

Lehenengo diskoa da aste bukaeran aurkeztuko duten *Demon Tales,* eta Aretxabaletako Nekrosounds estudioan grabatu dute. Oraingoz, disko konpaktu formatuan bakarrik atera dute, eta aurrerago biniloa etorriko dela iragarri dute taldekideek.

## Umorea izango da nagusi gaur 'Cotillas en 3D' antzezlanarekin

M.B. | ESKORIATZA

Antzerkizaleek hitzordua dute gaur, egubakoitza, gauean unibertsitatean. Gorka Aginagaldek eta Iñigo Salinerok *Cotillas en 3D* izeneko umorezko antzezlana eskainiko dute, 22:30ean. Betiko moduan, debalde izango da antzerkirako sarrera.

Ikus-entzuleei zuzenean egingo diete berba Aginalgaldek eta Salinerok; baina, hitz egiteaz gain, marmarrean ere ibiliko dira bi lagunak. Burutik pasatzen zaien edozeri buruz ibiliko dira berriketan. Berba egiteaz gain, antzeztu ere antzeztuko dute, eta emanaldi osoan zehar pertsonaiak jaio, hazi, aldatu eta esplotatuko dituzte, eta mila egoera barregarri sortu.

## Martitzenera arte daude aurrekontuak jendaurrean

Martitzenera arte egongo dira jendaurrean aurtengo udal aurrekontuak, udaletxeko idazkaritzan. Epe horren barruan kontuak aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal dira. Hori amaitzean, erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, aurrekontu orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## OHARRAK

**TAILERRA ETA ZINEA**

Astero moduan, gaztelekuan ekintza bereziak dituzte aurreikusita datozen egunotarako. Bihar, zapatua, sukaldean ibiliko dira neska-mutilak; eta etzi, domeka, berriz, filma izango dute.

**DANBORRADA**

Astelehenean, San Sebastian egunaren bueltan, danborrada egingo dute Luis Ezeiza ikastetxean, 15:30ean. Eguraldiak laguntzen badu, eskolako jolastokian izango da ikuskizuna; bestela, pilotalekuan.

**IKASTAROA**

Amuska emakumeen elkartearen eskutik, makillaje ikastaroa dago hilaren 23an, 18:00etan, kultura etxean. Amuskatik azaldu dute horretan parte hartzeko ez dagoela izena aurretik eman beharrik eta nahikoa dela egunean agertzearekin, eta nabarmendu dute debalde dela. Gazteleraz izango da saioa.



Biribilgune berria poltsaz beteta. | ESKORIATZAKO UDALA



Zintzilikarioak apurtuta. | E.U.



Zaborra gaika jasotzeko zakarrontziak beteta. | E.U.



Edukiontzi marroia errekan. | E.U.



Poltsak pilatuta. | E.U.



Kodeak tapatuta. | E.U.

# Proba pilotuaren aurkako boikota salatu dute

### Udal Gobernuak ohartarazi du ez dituela onartuko azkenaldian izandako apurketak eta jasandako boikota

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hondakinek arazoak sortzen dihardute Eskoriatzan. Dagoeneko bi hilabete pasa dira herriko iparraldean proba pilotua martxan jarri zenetik, eta ordutik hona asko dira azken horren kontra egindako ekintzak. Azken asteotan, besteak beste, zintzilikarioak ibilgailu batekin apurtu dituzte, organikoendako jarritako edukiontzi marroi komunitarioak errekara bota dituzte, zintzilikarioetan bakoitzaren tokia zein den identifikatzen duen kodea tapatu dute eta biribilgune berria eta kaleko zakarrontziak zabor poltsekin bete dituzte.

Udal Gobernuak hori guztia salatzeko prentsa oharra kaleratu du. Horren harira, honakoa nabarmendu du: "Garbi utzi nahi dugu Udala ados dagoela herritarrek beraien iritzia ezagutzearekin, eskubide osoa dute gustuko ez duten zerbaiten aurrean protesta egiteko, baina bakoitzaren eskubideen muga gainditu egiten da beste batzuen eskubideak urratzen direnean".

**Ordenantza aplikatzen hasi**

Gaineratu du Udaletik ez ditzutela horrelako jokabideak onartuko, eta horretarako Debagoieneko Mankomunitateko ordenantza aplikatzen hasiko direla. Horren harira, ohartarazi dute ordenantza horren arabera hondakinak egokitutako lekutik kanpo nahita lagatzea, beste baten lekuan uztea edo ezarritako egutegia edo ordutegia ez betetzea arau-haustea dela, eta Udalak identifikatutako arau-hausleei jakinarazi behar diela jokabide horiekin jarraitzen baldin badute zigorra jasoko dutela. Horrez gain, ordenantza berak nabarmentzen du "larriagoa dela oraindik" hiri hondakin solidoak jasotzeko baliabide edo tresnetan kalteak nahita sortzea, zerbitzua suntsitzeko edo baliogabetzeko asmoarekin.

Bestalde, herrian zabaldutako hainbat datu ere gezurtatu du; besteak beste, aparkalekuak galdu direla edo hondakinen bilketan lortu diren datuak era interesatuan erabili izana salatu du Udal Gobernuak.

Dena dela, bi hilabete hauetan gertatutako guztia ez da negatiboa izan, eta Udaletik proba pilotuan "gauzak behar bezala" egiten ari diren herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkiete. Orain arteko balorazio positiboa egin dute; izan ere, bilketa selektiboaren tasa %35etik ia %80ra igo da.

**Plataforman batzarra**

Bestalde, gertatutako guztiaren bueltan galdetu diegu Eskoriatza Garbia plataformakoei eta baita udal taldeetako ordezkariei ere. Lehenengoek jakinarazi dute batzarra egin dutela asteon eta datozen egunotan emango dutela horren berri.

**Taldeak apurketen kontra**

Udal taldeek ere horren gainean egin dute berba. Aitor Urrutiak (EAJ) esan du bere alderdia mota guztietako "biolentzien" kontra dagoela, eta hiri altzarietan egindako apurketak ere "biolentzia" dela. Gaineratu du boikota egitea "librea" dela. Baina, horren harira, honakoa aipatu du: "Bakoitzak jakingo du zer egiten duen, ardurak bere gain hartzen baditu".

Juan Luis Merino (Ezker Anitza-IU) ildo beretik doa. Honakoa azaldu du: "Gertatzen ari dena ez da desobedientzia zibila, bandalismoa baizik. Horrela ez goaz inora. Plataformari gogoeta egiteko eta mahaiaren bueltan jartzeko eskatzen diot, Arrasaten gertatu den moduan, Eskoriatzan ere irtenbideak bilatzeko". PSE-EEko zinegotzi Jose Luis Canteroren iritzia jasotzen ere saiatu gara, baina ez dugu lortu.

## Ehiza postuak garbitzen ibili ziren urtea amaitu aurretik

Urtero moduan, ehiza postuak garbitu dituzte Aldaypekoek. Abenduaren 27ko goiza mendian eman zuten sei lagunek, eta zortzi zabor poltsa bete zituzten. Elkartetik salatu dute 280 bat kide diren arren parte-hartzea murritza izan zela. Gogorarazi dute aurretik jakinarazi zela eta derrigorrezkoa dela garbiketa egitea.



ALDAYPE

## Zuhaitz Eguna egingo dute etzi Ibarraundi inguruan

Urtero bezala, aurten ere Zuhaitz Eguna egingo dute herrian; hain justu ere, etzi, domeka, 10:30ean elkartuko dira familiak Ibarraundi museoan. Betiko moduan, azkenengo urtean jaio diren haur beste zuhaitz landatuko dituzte; bada, 2013an 23 haur jaio ziren.

Ibarraundi museotik gogorarazi dute ekimen horrekin zuhaitzek "gure bizitzan duten garrantzia" adierazi nahi dela, eta ume jaioberri bakoitzak zuhaitz bana izango duela. Aurten, Ibarraundi museoaren inguruan landatzea erabaki dute: pago gorriak eta intxaurrondoak.



Udalbatzarraren egoera, oposizioko kideek mahai utzi ostean. | AMAIA TXINTXURRETA

# Ezohiko udalbatzarra bertan behera geratu zen

Oposizioak mahaia utzi zuen, "hitz egiteko eskubidea ukatu" zitzaielako

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Martitzeneko ezohiko batzarrak aurtengo aurrekontuak onartzeko balio behar zuen, baina, azkenean, bertan behera geratu zen. Kontua da EAJko ordezkariek mahaia utzi zutela, euren hitzetan, "aurrekontuen inguruko eztabaida ekidin nahi" izan zietelako. Eztabaida izan zen bilkuren aretoan; izan ere, alkateak argudiatu zuen gune hori "egiten diren ekarpenak aurrera atera edo atzera botatzeko" dela eta ez beste leku batzuetan landu behar diren gaiak lantzeko, "horretarako batzordeak" daudela.

Kontua da EAJko ordezkariak ez direla batzorde horietan egon, baina bai herriko EAJko kide bat. Harek egindako ekarpenak aurrekontuetan sartu direla adierazi zuen alkateak.

Eztabaida egon eta mahaia utzi zuten oposizioko kideek, baina alkatea EAJko ordezkari Maria Eugenia Arrizabalagarengana hurbildu eta berriz ere mahaiaren inguruan jarri eta batzarrarekin aurrera jarraitzeko proposamena egin bazion ere, Arrizabalagak ez zuen onartu eta bertan behera geratu zen batzarra. Arrizabalagak adierazi zuenez: "Badakigu gehiengo absolutua duela Bilduk Antzuolan eta badakigu ez daukala beste inoren beharrik gauzak aurrera ateratzeko, baina pentsatzen dugu gauzak ez direla horrela. Talde guztiek iritzia emateko euren txanda izaten dutela gaineratu zuen EAJko ordezkariak.

### Datorren astean berriz

Datorren martitzenerako berriz ere ezohiko batzarra deituko duela adierazi du alkateak. Beti bezala, 18:00etan izango da udaletxean eta oposizioko kideei bertan parte hartzeko gonbita egin die.

Halaber, behin dena pasata, momentuko haserreak eta harridurak pasata, bi alderdietako ordezkariek eskutitzak bidali dituzte gertatutakoaren berri eman eta euren azalpenak emateko. Ondoren, bi taldeetako esanak dituzue irakurgai.

## EH BILDUKO UDAL GOBERNUAREN OHARRA

"Joan zen astearteko osoko bilkurako gertaerak direla–eta (EAJko zinegotziek osoko bilkura aretoa utzi zuten) honakoa adierazi nahi du Udaleko EH Bilduren taldeak: Aretoa utzi eta berehala berriro mahaian jartzeko gonbita egin zitzaien oposizioko zinegotziei. Momentuan ezezko erantzuna jaso bagenuen ere, prest gaude beraien ekarpenak aztertzeko, eta, horretarako, aurrekontuen onarpenerako osoko bilkura atzeratu egin dugu, oposizioko zinegotziek, hala nahi badute, ekarpenak egin ditzaten. Hala ere, aurretik ere ekarpenak egiteko aukera izan dutela adierazi nahi dugu, eta ez dugula orain arte zinegotzi hauen ekarpenik jaso. Bestalde, aurrekontuen lanketan EAJko zenbait kidek parte hartu dutela jakinarazi nahi dugu, eta beraien ekarpenek isla izan dute aurkezturiko aurrekontuetan".

## Antzuolako EAJ: " Gehitxo iruditua, jaiki egin gara"

EAJko ordezkariek ere gertaeraren inguruan euren azalpena eman nahi izan dute.

Maria Eugenia Arrizabalaga eta Mikel Lete EAJko zinegotziek osoko bilkura aretoko mahaia utzi zuten martitzenean, hitza ukatu zitzaiela argudiatuz, euren hitzetan: "Badakigu erabateko gehiengoa dutenek ez dutela bestelako arazorik ez aurrekontuak, ez ordenantzak, ez beste ezer aurrera ateratzeko. Gehiengo absolutua duten gobernuak nahikoa dira bere kasa, beste inoren beharrik gabe. Hori da Antzuolaren kasua: Bilduko Udal Gobernuak gehiengo erabatekoa eta erosoa du.

Baina gehiengoa izateak eta horrek ematen duen erosotasunak ez luke alkate bat oposiziorekiko gutxieneko begirunea ahaztera eraman behar", adierazi dute. "Oposizioan gaudenok ere zerbait ordezkatzen dugu. Guri ere herritarrek eman digute bozka; beraz, gu ere herri ordezkari gara. Eta oposizioak badu bere zeregina demokrazian: erabateko gehiengodun gobernu baten erosotasuna ez dadila erabateko eta absolutua izan, adibidez. Horri gobernuaren kontrolerako funtzioa esaten zaio, eta benetan ariketa sanoa izaten da edozein egitura demokratikotan", gaineratu dute oharrean.

"Baina batzuetan, sarriegi, beharbada, iruditzen zaigu Antzuolako Bilduk ez daukala oso argi zer den herri ordezkaritza, zein den oposizioaren papera. Aspertu gara dagoeneko behin eta berriz kontu berdinengatik protesta egiten", diote. "Hori guztia dela eta, gure arrazoiak genituen eta udalbatzaren osoko bilkuran, iaz eta orain bi urte bezala, –beti bezala–, arrazoi horiek azaltzeko eskubidea genuen", eta ezin izan zutenez arrazoi horiek eman, mahaia utzi zutela adierazi dute bidalitako oharrean.

# Sahararen aldeko elikagaien bilketak aurrera segitzen du

Urtarrilaren 8tik 18ra bitartean hainbat produktu batzen ari dira herriko zenbait lekutan

A.E | ANTZUOLA

Aurten ere Sahararen aldeko *Piztu itxaropena* kanpaina jarri dute martxan herrian, hamargarren aldiz. Eroski, Aixan, Kalebarren eta eskolan ari dira elikagaiok batzen.

Elikagai hauek jasotzea da helburua: hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, lekaleak eta helduentzako pardelak eta konpresak. Produktu horiek eskatzen dituzte, horiek direlako sahararrentzako elikadura osagarria biltzeko estatu mailan egin den banaketan Euskadiri egokitu zaizkion produktuak.

### Iazko datuak

Elkartasun kanpainaren helburu nagusia saharar herriari elikagaiak helaraztea da, Tindufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararrek gaur egun jasaten duten elikadura krisiari aurre egiten laguntzeko. Kanpaina hilaren 18ra arte egongo da martxan.

Anelkarreko Jabier Etxanizek emandako datuen arabera, iaz, 40-45 kutxa eta 560-580 kilo jaso ziren. Aurten ere halako kopurua lortzea da helburua, eta herritarrak animatu nahi ditu produktuak eman dezaten.

Iaz batutako elikagaiei dagokienez, 63 kilo azukre jaso ziren, 30 kilo atun, 72 kilo pasta, 134 kilo arroz, 20 unitateko 8 konpresa kutxa, 40 kilo baba, 38 kilo garbantzu, 83 kilo dilista, zenbait olio litro... Guztira, 563 kilo, 2012ko antzera. Urtez urte, jasotakoaren kopuru totala nahiko antzekoa izaten da; izan ere, 2011n 504 kilo bildu ziren, baina 2012an 564 eta 2013an 563.

Aurten helburua iazko kopurua berdindu edo gainditzea da; beraz, oraindik ere badago denbora norberak ahal duen kopuruan elikagaiak Saharara bidaltzeko. Etxanizek dioenez: "Zuen laguntzarekin, errazagoa izango da iazko kopurua lortzea".

## 'Gure esku dago' ekimenaren aurkezpena gaur

Gaur egubakoitza, 19:30etik aurrera, *Gure esku dago* ekimenaren aurkezpena izango da Olaranen. "Erabakitzeko eskubidearen alde lan egiteko herri dinamika da" ekimen hori. *Gure esku dago* mugimenduak aurreikusten dituen ekimenen artean, 2014ko ekainaren 8an Durango eta Iruñea batuko dituen giza katea izango da. Ekimeneko kideak izango dira gaurko aurkezpenean, taldearen xede eta asmoak azaltzeko. Hiru dira proposatzen dituzten ideiak: "Nazio bat gara, erabakitzeko eskubidea daukagu eta etorkizuna herri honetako herritarren esku dago".

## Asteburu honetan mus txapelketako bigarren kanporaketa

Joan den asteko kanporaketaren ondoren, gaur eta bihar bigarrenak jokatuko dira. Gaur, egubakoitza, 22:15ean Gailur tabernan elkartuko dira jokalariak eta bihar, 16:30ean, Ongi Etorri jatetxean. Finala hilaren 26an jokatuko da, 16:15etik aurrera, Arin jatetxean. Antzuolan txapeldun ateratzen den bikoteak Euskal Herriko mus txapelketan hartuko du parte. Otsailaren 14an, 15ean eta 16an herrialdeko kanporaketak izango dira eta martxoaren 8an, finala. Herriko kanporaketetan parte hartzen duen bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu eta tabernan izena eman.



Juan Ramon Irazabal udaletxeko harreran. | L.Z.

# Euskararen erabilera plan berria Udalak

Oxel Erostarbe: "Egin beharreko hobekuntzak baditugu, baina UEMAren maila gorenean gaude"

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Elgetako udalbatzak behin betiko onarpena eman dio euskararen erabilera normalizatzeko planaren bosgarren plangintzari. UEMAko kide da Elgetako Udala, eta abendu amaieran hartutako erabakiarekin euskararen erabilera plana berritu du. Plangintza berriak 2017. urtera bitarteko helburuak zehazten ditu, eta helburu nagusia da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza modura, bai lan hizkuntza modura.

Aurretik egin diren plangintzek eragina izan dute. UEMAtik egindako jarraipenak horrela adierazten du Oxel Erostarbe alkateak aditzera eman duenez: "Oraindik baditugu egin beharreko hobekuntzak, baina UEMAk lau taldetan banatzen ditu udaletxeak egoeraren arabera, eta gu gorenean gaude", adierazi du. Ana Gillegi zinegotziak azpimarratu du onartutako plangintza berria barrura begirakoa dela; udaletxeko barruko funtzionamenduari eragingo diona.

**Helburuetako batzuk**

Onartutako txostenak zehazten dituen helburuen artean daude, esaterako, Udalak agerian jarriko dituela euskararen erabilera sustatzeko elementuak —*Euskaraz hitz egin*, *Hemen euskaraz* edo antzeko mezuak dituzten euskarriak—. Horma-irudi eta mahai gaineko egutegiak euskaraz egongo dira, eta egoki ikusten den kasuetan piktogramak erabiltzea bultzatuko du Udalak. Webgunea euskaraz irekiko da. Gutun-azalak, orriak, fax-azalak… euskaraz egongo dira, eta telefonoz eta aurrez aurrekoan lehenengo hitza euskaraz izango da. Udalak, bestalde, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du. Euskararen baldintza sartuko da zerbitzu enpresa berriekin edo hornitzaileekin kontratuak sinatzerakoan. Udalak, bestalde, hizkuntza irizpidea finkatu beharko du egiten dituen publizitate kanpainetarako. Euskararen erabilera bultzatzeaz gain hizkuntza kalitatea zaintzeko konpromisoa ere onartu du Udalak.

# Urteroko hitzordua dute astelehenean San Sebastian kofradiako kideek

Parrokian elkartuko dira eguerdian, eta aurten bai, danborrada izango dute

**L.Z.** | ELGETA

San Sebastian kofradiako kideek egin dute hitzordua astelehenerako. Meza entzungo dute 12:00etan. Ondoren, urteko gorabeherak jasotzeko eta kontuak kitatzeko ekitaldia egingo dute sakristian. Bazkaria, aurten, Maialde landetxean egingo dute. Antolatzaileek 20 bat lagun espero dituzte.

**Neska-mutikoen danborrada**

San Sebastian eguna domeka izan zen iaz, eta danborrada barik gelditu ziren kofradiako kideak. Aurten, ordea, Herri Eskolako neska-mutikoek ez dute hutsik egingo. Meza aurretik joko dute danborra eliza atarian.


Umeak eta kofradiako kideak orain dela bi urteko San Sebastian egunean. | L.Z.


San Sebastian kofradiako kideak, iaz, meza ostean sakristian egindako ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

# Gaur gazteen arteko indarkeria matxista aztergai gaztetxean

**L.Z.** | ELGETA

*Harremonak beldur barik* izeneko tailerra egingo dute gaur, barikua, Elgetako gaztetxean. Bideberri mankomunitatearekin elkarlanean antolatuta Arremanitz elkarteko bi lagunek dinamizatuko dute saioa 17:30etik aurrera. "Ikusten dugu gazteen harremanak nolakoak diren: indarkeria egunerokotasunean dagoen zerbait da, batez ere adin horietan", azaltzen du Arremanitz elkarteko Elen Kortaxarenak.

Jolasen eta iritzia emateko dinamika ezberdinen bidez hausnarketa bultzatu gura dute Arremanitz elkartekoek. Tailer aktiboa izango dela diote, eta interesa duen edozein gazteri irekia dagoela. Adin tarteari buruz galdetuta esan du Elgetako tailerra 25-30 urte inguruko gazteendako dela.

**Hamar orduko prozesua**

Barikuko tailerrak jarraipena izango du hamar orduko prozesua planteatzen dute-eta bultzatzaileek. "Indarkeria estrukturala da gure jendartean. Jaiotzen garenetik erakusten digute gizonezkoa edo emakumezkoa izaten, eta horren arabera rol batzuk hartzen ditugu. Gure jendartean emakumeekiko ematen da indarkeria edo rol femeninoak hartzen dituzten gizonekiko".


Arkaitz Astiazaran bizikletan, atzean Txindoki duela. | ARKAITZ ASTIAZARAN

# Eguaztenean ikus-entzunezkoa Euskal Herrian zehar eginiko txirrindu-bidaiaz

**L.Z.** | ELGETA

Arkaitz Astiazaran lasturtarra Espaloia kafe antzokian izango da eguaztenean, hilak 22. Ikus-entzunezkoa prestatu du udaberrian Euskal Herrian zehar egindako 4.400 kilometroko txirrindu-bidaian jasotakoekin, eta erakustera dator. 800 herri eta 175 mendate igaro zituen bizikleta gainean. "Motxilan neraman kameraz grabatutako irudiekin sortutako 54 minutuko euskarazko dokumentala da *Euskal Herriko altxorretan barrena*. Dokumentalaren helburua Euskal Herriko txokorik ederrenak erakutsi eta gure herrialdean bidaiatzeko ideiak ematea da", dio Astiazaranek.

Lasturtarra 19:00etatik aurrera izango da Espaloian. Elgetatik ere igaro zen udaberriko bere abenturan.

## OHARRAK

**LOGO LEHIAKETA**

Udal Liburutegiko logo lehiaketan botoa emateko azken eguna da gaur, barikua. Hilaren 24an emango dute ezagutzera ebazpena.

**KANTSATZEKE TALDEA**

Bazkide zein federatu txartelak ateratzeko, kultura etxeko bigarren solairuko bulegoa zabalik izango da hilaren 22an, 19:00etatik 20:00etara.

**GOIBEKO ELKARTEA**

Goibeko euskara elkarteko bazkideendako tamaina askotariko elastikoak daude gertu Espaloian, neurria aukeratu eta eskaera egiteko.

## FUTBITOA

**1. JARDUNALDIA.**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| La Kokotxa - Txapela | 6-7 |
| Jaitxo - Astuan Villa | 6-9 |
| Nahaste Borraste - Intxortas Crew | 4-4 |

**PARTIDUAK**

**URTARRILAK 18, ZAPATUA**

| | |
|---|---|
| 11:30 | Txapela - Astuan Villa |
| 16:30 | Etxaon-Gaztiak |
| 17:30 | Jaitxo - Intxortas Crew |

**PARTIDUAK**

**URTARRILAK 19, DOMEKA**

| | |
|---|---|
| 11:00 | La Kokotxa - Nahaste Borraste |



Santa Ageda eskerako aurten egin duten lehen entsegua; parte hartzaileak, kultura etxeko agertokian. | JOKIN BEREZIARTUA

# Iaz baino eragile gehiago Santa Ageda eskerako

Abesbatzaz eta bertso eskolaz gain, Trikitixa Eskolakoak ere batu dira aurten

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Santa Ageda eskea sekula baino parte-hartzaileagoa eta herrikoiagoa egitea erabaki zuten iaz, ohitura zaharra berreskuratu eta festa indartzeko asmoarekin. Bada, iazko arrakasta ikusita, ekimena errepikatzea erabaki dute aurten ere.

Bizente Goikoetxea abesbatza eta bertso eskola elkartu ziren iaz, eta aurten hirugarren eragile bat ere izango dute bidelagun: Trikitixa Eskola.

**Oso pozik elkarlanarekin**

Antolatzaileak oso pozik daude hiru taldek egin dutelako bat aurten: "Ez da erraza herriko hiru kultur talde helburu beraren atzean batzea eta koordinatzea. Izan ere, talde bakoitzak bere helburuak ditu", uste du koordinatzaile lanetan ari den Manex Agirre bertsolariak. Hala, Santa Ageda eskerako hiru taldeak batu izana "oso bizirik" daudenaren seinale dela deritzo Agirrek: "Horrek ekarpen handia egiten dio herriari eta hala izan dadila urte askoan". Iaz bildutako dirua Caritasi eta Harremani eman zitzaien baina aurten jasotako dirua hiru taldeen artean banatzea erabaki dute. Horren arrazoiak dira; batetik, hiru taldeek aurrekontu murritza izatea, eta bestetik, herrirako ekarpenak egin izana beti. Beraz, jasotako dirua aramaioarrendako ekintzaren bat antolatzeko erabiliko da.

**ESANAK**

**"Ez da erraza hiru kultur talde helburu beraren atzean batzea, talde bakoitzak bere helburuak ditu-eta"**

MANEX AGIRRE | BERTSOLARIA

**Aldaketak ibilbidean**

Santa Ageda eguna otsailaren 5a da, eguaztena. Aste barruan halako festa bat antolatzea ezinezkoa dela jakinda, aurten ere zapatuan egingo dute, otsailak 1. Iazko planteamenduari eutsiko diote: Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek Santa Agedaren omenezko koplak abestuko dituzte, eta bertsolariek bat-bateko bertsoez jantziko dituzte kopla horiek. Nobedade bakarra ibilbidea izango da. Guztiek egin beharrean auzoz auzoko ibilbidea, astuna gerta daitekeelako, bi taldetan banatuta joango dira, beti ere jende nahikoa aurkezten bada. Horrekin lortuko dute arratsaldean kalean (Ibarran) egingo diren saioak jendetsuagoak izatea.

Orain arteko entseguetan elkartutako kopuruarekin pozik daude antolatzaileak. Gainera, adin guztietako jendea batu da oraingoz. Atzo egin zuten bigarren entsegua eta beste bi geratuko dira: hilaren 23an eta 30ean. Kultura etxean izango dira (19:00).



Liburuxkaren pasarteetako bat. | BELEN MORENO

## 'Bazan behin Aramaixon' liburua otsailean aurkeztuko dela eman du aditzera Udalak

**J.B.** | ARAMAIO

Herriko ahozko ondarea biltzeko asmoz hainbat lan bultzatu izan ditu Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak. Azken bilketa 2010ean egin zen; Arantza Ozaetak eta Dibina Arriolabengoak bildu zituzten Aramaioko kanta eta ipuin zaharrak. Lan hori oinarri hartuta liburuxka diseinatu dute eta dagoeneko inprimategian dago. Ozaetaz eta Arriolabengoaz gain, Belen Morenok –irudigilea–, Miel A. Elustondok, Jabier Kaltzakortak, Txipi Ormaetxeak –edizioa– eta Manex Agirrek –zuzentzailea– hartu dute parte proiektuan.

**Umeendako ulerterraza**

Hasierako asmoa zen gaur bertan egitea liburuxka horren aurkezpena, baina, inprimategiko lana atzeratu egin denez, otsailean egingo da. Eguna ez dute oraindik finkatu. Ipuinak euskalkian idatzi dituzte, Aramaioko euskara ahalik eta gehien mantentzeko asmoz. Hala ere, hainbat hartzailerendako ulergarria izan dadin, ipuinak euskara batuan ere idatzi dituzte. Marrazkiak eta testuak umeendako ere ulerterrazak izan daitezen egin dituzte.

# Arabako sagardo berria iaz baino mikatzagoa da

Atzo egin zuten txotx irekiera ekitaldia Trebiñun; gaur Iturrietan egingo dute, lagunarte giroan

**J.B.** | ARAMAIO

"Oraindik goizegi da sagardoa nolakoa izango den esateko, erabat heldu barik dagoelako. Ona dago edateko, sano. Iazkoa baino mikatzagoa izango da, nahiz eta oraindik gozotasun puntua hartzea falta zaion". Juanjo Peciña sagardogileak hitz horiekin definitu du Arabako sagardo berria. Astigarragakoarekin alderatuta, heltzen denbora gehiago behar duela uste du Peciñak: "Kostaldean tenperatura altuagoa da eta kolorea hartzeko denbora gutxiago behar izaten du", dio. Txotx irekiera ekitaldi ofiziala atzo egin zuten Trebiñun; Arabako bertsozale elkartekoak izan ziren sagardo berria dastatzeko aukera izan zuten lehenak.

Iaz Iturrietan egin zen ekitaldi ofiziala, Gose musika taldearen eskutik. Aurten ez dute publiko zabalarendako ezer berezirik prestatu baina gaur elkartuko dira lehen txotxa egiteko, lagunarte giroan. Jatekorik, noski, ez da faltako.

## Maddi Cavero aramaioarra Zuiako Koadrilako Kulturgura lehiaketaren irabazleetako bat izan da

Zuiako Koadrilak antolatzen duen lehiaketa da Kulturgura, Koadrilarekin zerikusia duten zenbait galdera zuzen erantzunda sariak jasotzeko aukera ematen duena. Aurtengoa XIV. edizioa izan da eta sariketako irabazleetako bat izan da Maddi Cavero aramaioarra. Lau sari banatu dituzte: kirol materialean gastatzeko 100 euroko bi bonu eta liburu-denda baten gastatzeko 100 euroko beste bi bonu dira. Gainerako irabazleak dira Zigoitiko Daniel Santamaria, Segundo Usaola eta Maria Eugenia.

## Aramaixok aukera ona du sailkapenean igotzeko, etxean jokatuko du-eta Iparra taldearen aurka

Azken jardunaldian irabazi ostean (10-3), Aramaixo taldeak aukera ederra izango du bihar sailkapenean gora egiteko. Izan ere, etxean jokatuko du berriro, sailkapenean azken aurreko postuan dagoen Iparra tabernaren aurka (17:00). Kiroldegiko leihoetako bat apurtuta dago eta euria egiten badu posible da norgehiagoka bertan behera utzi beharra. Hala, taldeko ordezkariek Udalari eskatu gura diote arazoa konpon dezatela.

**NIRE USTEZ**

**ANDERE ARRIOLABENGOA**



# Irati libre!

Aramaio. Urtarrilak 8, eguena. Arratsaldeko zazpiak ematear. Etxera heldu berri, oraindik laneko kontuek betetzen zuten nire burua. Bat-batean, oihu amorratu bezain sakon batzuk entzun nituen: "*¡Cabrones! ¡Hijos de puta! Irati Libre!*". Ez nekien nondik zetozen oihuok, baina instintiboki leihorantz hurbildu nuen nire burua.

Neguko arratseko iluntasunean kotxe bat ikusi nuen tximista baino arinago herritik alde egiten. Egia ote? Iritsi al da eguna? Orduan, oihuka hasi zena mugikorra izan zen.

Egia zen, bai! Polizia nazionalak Irati atxilotu zuen Aramaion. Hiru hilabetez herritik urrun egon ondoren, negu hasiera honetan, bere etxera bueltan zen gaztea. Kaleak hutsik. Jokin, mutil-laguna, besterik ez.

Harenak ziren etxetik entzun nituen oihuak. Azken hilabeteetako desobedientzia, elkartasun eta konpromiso mugimenduak eta gero, Aramaioko kaleetako isiltasunean bahitu zuten.

Baina Iratik jakin bazekien ez zegoela bakarrik, Jokinek emandako azken besarkada, familiaren besarkada zela, lagunena, desobedienteena, azken egunetako bisitena, elkartasunarena, auziperatuena, herriarena, konpromisoarena. Azken finean, Irati libre ikusi nahi dugun guztiona.

Soto del Realeko paretek ez diezaiotela maitasunari eta elkartasunari hegorik moztu!

**"Herriko kaleetako isiltasunean bahitu zuten"**



Biomasa energia iturriak basoetako egur baliabideak ditu oinarri. | UDALA

# Biomasaren proiektua, nork gauzatuko zain

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Biomasaren proiektua tentu handiz lantzen ari da Aramaioko Udala. Hainbat izan dira 2008a ezkero egin diren urratsak eta oraindik ere luzea izango da errealitate bihurtu aurretik egin beharreko bidea. Argi dagoena da bideragarria dela arlo teknikoari zein herriaren ezaugarriei dagokienez. Izan ere, hainbat enpresa espezializatuk –Egimen, Giroa, Lator, Biotermiak...– ondorioztatu zuten Aramaiok *District Heating* izeneko proiektua garatzeko baldintzak betetzen dituela. Zer den *District Heating*-a? Basoetako egur baliabideak erabilita sortutako energiari esker, herriguneko etxeetan ur beroa banatzeko sarea. Ikerketen arabera, ez litzateke obra handirik egin beharko sistema hori ezartzeko. Gainera, auzoetarako alternatibak aztertzea jaso zen; galdara txikiak jartzea, esaterako.

**EEEren babesa du proiektuak**

Jaurlaritzako Energiaren Euskal Erakundearen babesa du proiektuak eta Aramaioko Udalak lizitazio prozesua martxan jarri aurretik, bi enpresari bidali dizkiote proposamenak. Enpresa horiek proiektua gauzatzeko gai izango diren jakin gura dute orain.



ALAIAK ERRETIRATU ELKARTEA

## Mus txapelketako irabazleak

Benito Altuna eta Mario Jauregi izan ziren Alaiak elkartearen mus txapelketako irabazleak; urdaiazpiko bana eraman zuten etxera. Antolatzaileek eskerrak eman gura izan dizkiete, bereziki, laguntzaileei: Laboral Kutxa, Uxarte nekazaritza turismo etxea, Arbel, Zubeldia, Dubling aholkularitza eta Basoko upategia.

## Orixol mendizale elkarteak eski irteera antolatu du otsail erdialderako; izen-ematea, otsailaren 7ra arte

Urtero moduan, Orixol mendizale elkarteak eski irteera antolatu du. Formigal, Astun edo Candanchura joango dira otsailaren 14tik 16ra. Elkarteko bazkideek 140 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 150 euro. Prezio barruan sartzen dira bi gau ostatuan, zapatuko afaria, autobusa eta forfaitak. Izena eman gura duenak elkartearen kontu korrontean sartu beharko du dirua: 3035 0161 28 1611005178. Izena emateko azken eguna otsailaren 7a izango da.

# Labidea: gatzagarren zerbitzura eta eskura

Funtzionamendu eta filosofia berriak aplikatu gura dizkiote udal zerbitzuari

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Berrituta zabalduko ditu ateak Labidea zerbitzuak. Berrituta, itxurari dagokionez. Eta berrituta, baita ere, filosofiari edo funtzionamenduari dagokionez.

Itxurari erreparatzen badiogu, hasteko eta behin, Labidearen kudeatzaileen aldaketak berak badakar desberdintasuna. Inaxio Gabilondok eta Ixidor Salaberrik hartu dute ardura hori datozen hilabeteotarako. Inaxio Gabilondo ezaguna da bertan, orain arte ere Labidean lanean ibili delako. Ixidor Salaberrik, berriz, Labidean jardun ez izan arren, eskarmentu handia dauka halako zereginetan jaioterri duen Arrasaten.

Beste aldaketa bat izango da lokalaren beraren banaketa: sartu eta eskumako txokoan pare bat mahai jarri dituzte, "txoko txiki" modura. "Neuk egindako mahaiak dira, eskuz, haritza erabilita", azaldu du Gabilondok, eta kontatu du txoko horretatik gertu mahai-jokoak jarriko dituztela, herritarren eskura."Dendaren barruko aldeko apalak ere geuk egindakoak dira", gaineratu du. Horrez gain, saltoki -tabernako pareta arbel bihurtuko dute, "informazio emate funtzioa betetzeko: gure eskaintzen berri, herrian dauden ekitaldien berri, bestelako jakinarazpenak...".

Hortik aparte, tabernak orain arte moduan funtzionatuko duela jakinarazi dute Gabilondok eta Salaberriak.

**Bidelagun ekimena**

Duda barik, baina, Labideak izango duen aldaketa edo berrikuntza nabarmenena emango dituen zerbitzuen gainekoa izango da.

Elikagaien salmentarekin lotuta, adibidez, Bidelagun herri ekimena gura dute abian jarri: "Elikagaien subiranotasuna oinarri, bertako edo inguruko ekoizleak aktibatu gura ditugu, haien produktuak erosteko aukera emanda. Horretarako, talde bat sortu gura dugu. Hor erabakiko litzateke ze elikagai, zeini eta ze preziotan erosi. 20-25 lagun gertu daude batzar irekian parte hartzeko", dio Gabilondok. Horrez gain, kontatu du inguruko herri txikietako elikagai taldeekin harremanetan daudela, bertako ekoizleen eskaintza osatua *bidelagunar*i eskaintzeko. Herriko zein kanpoko edonor izan daitekeela *bidelaguna* eta Gatzagako baserritarrei eskainiko dietela taldean saltzea. Debagoienean sortu den Erein da Jan kooperatibarekin harremanetan dabiltzala ere jakinarazi du Gabilondok.

Elikagaien eskaintza borobiltzeko, herritarrei Labidearen bitartez "erosketa integrala" egiteko aukera eman gura diete. "Eskoriatzako denda batekin elkarlanean gabiltza; eta horri esker gatzagarrek aukera izango dute Labidean bertan salduko ez ditugun elikagai edo bestelako supermerkatuko produktuak eskuratzeko. Aldez aurretik eskaera egin, eta egun horretan bertan edo hurrengo egunean, Eskoriatzatik Labideara ekarriko ditugu produktuok. Bestalde, norbaitek urrun bizi delako edo Labideara etorri ezin duelako eskaera etxera eramateko eskatzen badigu, halako zerbitzuak emateko ere gertu gaude".

Hortik aparte, ogia, egunkariak, oinarrizko elikagaiak eta litxarreriak saltzen segituko dute.

**Erakusleiho eta zerbitzu**

Labidearen filosofia laburtzeko, elikagaiekin landu gura duten eredu alternatiboa esparru gehiagotara zabaldu gurako lukete: "Artisauendako erakusleiho izatea ere gura dugu; Gatz Museoko eta Jakioneko produktuendako... Azken batean Labidea da herriak duen espazio publiko bat, eta gurako genuke herritarrek Labidea euren beharretarako erabiltzea. Mugimendua sortzea; herritarren elkargune izatea... espazio ireki eta publikoa izatea".

DATUA

**1**

ORDENAGAILU

Labideak izango dituen zerbitzu berrien artean, ordenagailua jarriko dute herritarrek eta turistek erabiltzeko.

### Ordutegi zabalagoa

Lokala egokitu bezain laster zabalduko dute Labidea. Ordutegiari dagokionez, orain artekoa mantenduko dute aste barruan. Baina asteburuan handitu egingo dute. Honakoa izango da: astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:00ak arte eta 16:30etik 20:00ak arte. Zapatuetan: 10:00etatik iluntzera arte, eguerdiak barne. Eta berdin domeketan. Bestela esanda, aurrerantzean, zapatu eguerditan eta domeka arratsaldeetan ere zabalik izango da.



Ixidor Salaberri, Labidea hartu duen kudeatzaileetako bat, lokala egokitzeko lanak egiten. | UBANE MADERA

AUTOMOBILISMOA

# "Ameriketara eraman dutenetik zailagoa da Dakarrean lehiatzea"




Urkiolatarren Mitsubishia, Baja Aragon lasterketan; aurten ere proban izango dira; argazki

▶ Antzuolan bizi den Jose Mari Urkiola raidetan ibiltzen da lehiatzen

▶ Hainbat Mitsubishi dituzte, eta baita Suzuki Vitara berezi bat ere

**XABIER URZELAI** | ANTZUOLA

Inbidia galantaz, seguru. Halaxe dabil jarraitzen Dakar lasterketa Ormaiztegin jaio baina aspaldian Antzuolartu zen Jose Mari Urkiola. Eta urkiolatarren artean ez da bakarra, egun hiru anaia dabiltza-eta lasterketetan buru-belarri: Gabirian bizi da Javier anaia, Jose Marirekin batera mekanikari lanetan ibiltzen dena. Mikel, berriz, Urretxun bizi da, taldeko pilotua; eta kopilotua ere etxean aurkitu dute, Samuel Benitez lehengusua.

Hala, kuadrilla hori batera eta bestera ibiltzen da, egutegiak baimentzen dien bakoitzean, lur gaineko raidetan parte hartzen. Horretarako, baina, autoa behar da: Ezkion gordetzen dute Mitsubishi MTRa, hurrengo erronkaren zain. Ez da, baina, garajean duten altxor bakarra. Dakarra ez lehiatu arren, 2014an ez dute geldirik egoteko asmorik.

**Hiru anaia lasterketetan**

Gaztetako pasioa dute Urkiola anaiek automobilismoa. Eta azken hamarkadan pasio hori barru-barrutik bizitzen dabiltza. Familia horretan Jose Mari da Goierriko bailara Debagoienagatik aldatu duen bakarra, duela 20 urte joan zen-eta Antzuolara bizi izatera: "Eta oso gustura bizi naiz, gainera", dio, barrez.

**ESANAK**

**"Uztailean desertuan izan ginen entrenatzen; asko ikasten da halakoetan"**

**"Gertuen Burgosen eta Zaragozan lehiatzen gara; bestela, Murtzian, Almerian..."**

JOSE MARI URKIOLA | MEKANIKARIA

Hala, Dakarrean parte hartzera Argentinara bidaia egin ez badute ere, Dakarraren aurkezpenean Bartzelonan izan ziren, Teledeporte saioko aurkezle Marc Martinen deia jaso ostean. Izan ere, antolatzaileek interes berezia zuten eurengan: "Konpetizioan erabiltzen dugun autoaz gain, lasterketetako beste bi Mitsubishi ditugu, Stephane Peterhansel pilotuak 2004ko Dakarrean erabili zuen Mitsubishia [2. egin zuen] eta 2006an Luc Alphand-ek erabili zuena [Dakarra irabazi zuen]. Hala ere, nahiz eta Dakarrean protagonista izan diren autoen jabe diren, laugarren autoa da, akaso, bereziena: Suzuki Vitararen prototipo bat dugu, oso auto berezia da". Hala, azken auto hori bere garairako –80ko hamarkada– oso auto aurreratua zen. Antonio Zanini ospetsuak prestatu zuen auto hori, neurrira egin zuen Suzuki etxearendako, eta Josep M. Solek eta Josep Calmek gidatu zuten.

Gidatu bakarrik ez, 1988an eta 1989an Espainiako Txapelketa irabazi zuen Vitara hark, eta



Marokon egindako saioan, autoa dunatik ateratzeko ahaleginetan. | MIKEL URKIOLA




Marokora bidean, lasterketako autoa ferryan. | M.U.




Gauez lanean, autoa puntuan jartzen. | M.U.

## Dakarra, gertu izan zuten ametsa



Peterhansel (argazkian) ikusten du Urkiolak Dakarreko irabazle. | SPORTHDWALLS.COM

Joan den otsailaren 5ean hasi zuten 2014ko Dakarra: "Hori beste kontu bat da, gauza serioa", diosku Jose Mari Urkiolak. Bertan lehiatzeko ametsa, baina, 2008an gertu izan zuten urkiolatarrek. Edizio hura Portugalen zen hastekoa, baina, Al Qaedaren mehatxuak zirela-eta Mauritanian segurtasuna bermatzerik ez zegoenez, bertan behera utzi zuten proba. Eta antolatzaileek orduan erabaki zuten lasterketa Argentinara eramatea. Hala, berri hark irteera puntuan egoteko ahaleginean harrapatu zituen Jose Mari eta haren anaiak, eta ordutik hona ideia baztertu dute: "Kostuak handitu egin dira, Argentinaraino autoa eramatea, opor egunak hartzea... Aurrekontu handia behar da". Hala, ekonomikoki lasterketa horretan parte hartzeak dakarrenaz egin digu berba Antzuolakoak: "Hasteko, aurrez 150.000 euro ordaindu behar dira. Kopuru horrekin 2 asterako gasolina duzu, aterpetxeetan lo egiteko aukera, janaria... Hau da, bi astean lasterketan izango dituzun gastuak daude barruan. Baina bigarren egunean matxura bategatik edo istripu batengatik etxera itzultzen bazara? Orduan ez dizute ezer itzultzen, eta pentsa zelako dirutza den". Hala, Urkiolak azpimarratu du Espainiatik autoetan lau pilotu baino ez joatea oso esanguratsua dela (Carlos Sainz, Nani Roma, Xabier Foj eta Lucas Cruz).

Eta lasterketa aurrera doan honetan, faboritoen gainean ere galdetu diogu: "Nani Romak irabaztea nahi dut, baina denbora galdu du dagoeneko, eta uste dut Peterhansel gailenduko dela. Motorretan, ostera, Marc Comaren alde egingo nuke".



biribilean, Jose Mari Urkiola | MITSUBISHICOMPETICION.COM

**Dakarrean parte hartzeko 150.000 euro ordaindu behar dira aurrez**

**Dakarreko inauguraziora gonbidatu zituzten urkiolatarrak**

**Proba Ameriketara eraman dutenetik garestiagoa da parte-hartzea**

urkiolatarrek 2008an erosi zuten autoa, hainbat urtez arrastoa galduta izan ostean, Leonen. Eta, klasiko moduan, erakustaldietan eta bestelakoetan parte hartzeko konpondu zuten: "Beste bi Mitsubishiak ere kapritxo moduan ditugu, klasiko modura. Auto horiekin lehiatzeak ez du zentzurik, istripu bat-edo izanez gero oso garestiak direlako konpontzeko".

Bada, duela bi aste saltsa ederrean ibili ziren Bartzelonan: "Ederto ibili ginen, Mitsubishietako bat eraman genuen, erakusteko, eta Dakarrean lehian dabiltzan pilotuekin egon ginen berbetan. Urteak dira Nani Roma eta konpainia ezagutzen dituguna, Espainia mailako lur gaineko rallyetan parte hartzen dugulako; oso jende jatorra da".

**2014rako erronka berriekin**

2013an hainbat raidetan izan dira, baina, tamalez, ez zuten urteko hitzordu handienetako batean parte hartzerik izan: "Uztailean Marokon izan ginen bi egunez desertuan entrenatzen. Asmoa zen urrian Marokon egiten duten lur gaineko rallya ondo prestatzea", baina hitzordua iritsi zenean, urkiolatarrek ezin izan zuten irteera puntuan egon: "Lasterketa hori lehengo Dakarra da; izan ere, ibilbideak Maroko eta Senegal batzen ditu. Jendeak uste du Dakarra Ameriketara eraman zutenean Afrikan egiten zena desagertu egin zela, baina ez da horrela, rallya beste izen batekin egiten dute".

Hala, hainbat arrazoirengatik ezin izan zuten proban parte hartu: "Dena dela, desertuan egindako bi egunak oso emankorrak izan ziren. Ederto ibili ginen, eta asko ikasten da halakoetan. Hori bai, bero izugarria pasa genuen; pentsa, uztailean eta desertuan 47 graduko tenperaturaz. Halakoetan harea beharrean badirudi irina zapaltzen ari zarela, egiten duen beroaz fin-fin geratzen da harea, eta oso zaila da autoa ondo gidatzea. Urrian, berriz, 10 gradu jaisten da tenperatura, eta kondizioak ere bestelakoak izaten dira. Hori bai, autoak paliza galanta hartzen du desertuan".

Marokora joan barik, baina, Espainian ere raid asko dituzte aukeran: "Gertuen, Zaragozan edo Burgosen lehiatzen gara. Bestela, Portugalen, Almerian, Murtzian… egiten dituzte lasterketak. Aurten, esate baterako, Baja Aragon lasterketan parte hartzeko asmoa dugu".

**Entrenatzera, Bardeara**

Lasterketa horietan ondo ibiltzeko ezinbestekoa da autoa mekanikoki puntuan izatea, eta horretarako Bardeara (Bardeetara) joaten gara entrenatzera: "Dakarrean ere horri da kontua, aurrekontua izateaz batera ondo entrenatuta joatea, eta autoa puntuan. Baina gauza serioa da hura, bi aste oso-oso gogorrak direlako".

ESKUBALOIA

# Urtero legez, Asobal mailako lagun artekoa

**JOKIN MUJIKA** | ARRASATE

Oñatiko Zubikoa kiroldegia beteko duen partidua jokatuko dute Bidasoa Irunek eta Helveitia Anaitasunak gaur, 20:00etan.

Jende asko biltzen duen ekitaldia izan ohi da, eta oraingoan ere ez da gutxiagorik espero. Gainera, debalde joan ahal izango da partidua ikustera.



Orain dela bi urteko partidua. | JOSETXO ARANTZABAL

Selekzioek munduko txapelketa eta Europako txapelketako partiduak jokatzen dituztenean, Asobal ligako partiduak eten egiten dira, eta taldeek lagun artekoak egiteko baliatzen dituzte data hauek. Aloña Mendik eta Oñatiko Udalak ere Zubikoan Asobal mailako partida bat eskeintzeko aukera aprobetxatzen dute, eta oraingoan, behin baino gehiagotan egon diren Bidasoa Irun eta Helveitia Anaitasuna etorriko dira. Aukera polita da lehen mailako eskubaloia ikusteko. Partiduak bere xarma izango du, Bidasoa Irungo entrenatzaile Fernando Bolea zaragozarrak eta Aitor Etxaburu eibartarrak batera jokatu baitzuten Bidasoa Irunen, orain dela urte batzuk.

JUDO

## Bailaran judoa sustatzeko ate irekiak izango dira bihar

Judo klub berria daukagu Debagoienean: Desoreka, hain zuzen ere. Bada, kirol modalitate hori bailaran sustatzeko asmoarekin sortu zuten taldea, eta probatzera animatzeko ate irekiak izango ditugu bihar Arrasaten, Musakolako kiroldegian, goizeko hamarretan hasita. 5 urtetik gorakoentzat izango da, euskaran oinarritua. Desoreka taldeak dei egin die bailarako gazte guztiei, eta probatzera animatu dituzte.

FRONTENISA

## Hilaren 25ean hasiko da emakumezkoen frontenis txapelketa

Aretxabaletako Udalak, Loramendi Elkarteak eta UDAk lehenengo aldiz antolatu dute emakumezkoen frontenis txapelketa elkarlanean. Urtarrilaren 25ean hasiko da eta martxoaren 8ra arte iraungo du. Aretxabaletan bertan jokatuko dira partiduak, Iturrigorri pilotalekuan, hain zuzen ere. Izena Aretxabaletako udaletxean, Loramendi elkartean edo *emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com* helbidean eman ahal izango da.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**
Añorga-Mondra
Domeka. 12:30. Rezola.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Lauro Ikastola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:15. Loiu.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aretxabaleta-Touring
Domeka. 16:30. Ibarra.
Real Union-Aloña Mendi
Domeka. 15:30. Irun.
Antzuola-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Estala.
Vasconia-Bergara
Zapatua. 15:30. Donostia.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mondra-Zestoa
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi-Eibar
Domeka. 12:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Saltxaileak
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

**LEHENENGO MAILA**
Zurt taberna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

**HIRUGARREN MAILA**
Mondrate-Gamon Lete Itzulp.
Zapatua. 17:30. Musakola kirold.

**ESKUBALOIA**

**ASOBAL LIGA LAGUN ARTE.**
Bidasoa Irun-Anaitasuna
Egubakoitza. 20:00. Zubikoa

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Ford Mugarri-Alcorta Forging
Zapatua. 18:30. Iturripe kiroldeg.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Indupime Basauri-Soraluce BKE
Zapatua. 15:00. Basauri.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Leizaran-Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Andoian.

**SASKIBAOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Bide bide Donosti-MU
Zapatua. 18:30.Donosti.

**AUTONOMIKOA**
Ibaizabal-Natra Oñati
Domeka. 12:00. Galdakao.

**ERRUGBIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Kanpanzar ART-RC Rioja
Zapatua. 17:00. Mojategi.

**KADETE FEDERATUA**
Ordizia-Arrasate
Zapatua. 16:00. Ordizia.

**PILOTA**

**ESKORIATZAN**
Gaur. 19:00. Senior lehen maila.
Gaur. 19:00. Senior lehen maila.

**ARETXABALETAN**
Gaur. 19:30. Inafntilak.

**OÑATIN**
Gaur. 19:30. Inafntilak.
Gaur. 19:30. Kadeteak

**ARRASATEN**
Gaur. 20:30. .

**JUDOA**

**ATE IREKIAK**
Zapatua. 10:00. Musakola kirold.



Mondragon Unibertsitatearen partidu bat. | JOSETXO ARANZABAL

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2014
urtarrilak 18
otsailak 15
martxoak 15
apirilak 19
maiatzak 17
ekainak 21
uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15
Antolatzailea: Arrasateko Udala, Ayuntamiento de Mondragón, Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte. Arrasateko baserrik eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



# KULTURA

# Poesia musikarekin nahasten duen ikuskizuna Bergaran, Zabalotegin

- 'Jainko txiki eta jostalari hura' da urtarrilaren 24an Bergarara ekarriko duten egitasmoa
- Taularen gainean: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarain, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Poesia eta musika batzen dituen *Jainko txiki eta jostalari hura* ikuskizuna izango da Bergarako Zabalotegi aretoan urtarrilaren 24an, 19:00etan. Taularen gainean Kirmen Uribe poeta eta aspaldiko lagunak dituen musikariak izango dira: Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal. Sarrerak egunean bertan salduko dituzte zortzi eurotan leihatilan, 18:00etan hasita.

Askotariko arteak konbinatzen dituen egitasmoa da, ikuskizunarekin batera CD-liburua kaleratu zuten-eta, Mikel Valverde ilustratzailearekin batera. " Hariari jarraitzeko ez da ezinbestekoa aurrez CD-liburua irakurrita izatea. Honela azaldu du Ondarroako poetak: "Zuzenekoak zuzenekoak dira eta ikusleek ez dute CD-liburuaren beharrik saioaren hariari jarraitzeko. CD-Liburua, berriz, ederra da etxean lasai irakurri eta marrazkiei begiratzeko". Aipatutako CD-liburu hori eskuratzeko aukera izango da Zabalotegin.

### Aurrekoaren hurrengo pausoa

*Zaharregia txikiegia agian* egitasmoaren bigarren pausoa da Bergaran erakutsiko dutena. Uriberen esanetan, emanaldi aberatsa da; hiru ahotsetara egiten dute, eta musikari dagokionez, aurrekoa baino elektrikoagoa eta garaikideagoa da.

Egitasmoak Euskal Herria gai nagusitzat duten Kirmen Uriberen testuak ditu oinarrian: "Nik aurrez testu horiek egin nituen eta gero musika eta marrazkiak egin zizkieten. Testuak askotarikoak dira, bertso eran egindakoak daude, koplak eta baita bertso librean idatzitakoak ere". Musikarekin lagunduta, testu horiek egileak berak errezitatzen ditu: "Errezitatzeko orduan beraiek jotzen daude, ez dago jausi handirik kantuen eta errezitatutako poesien artean, jendeak ez du ezberdintasunik nabaritzen. Oso konpaktua, trinkoa, da dena. Mikelek esaten du denak direla kantak", azaldu du, barrez, poetak.

*Zaharregia txikiegia agian* ikuskizunean irudien proiekzioak bazeuden ere, oraingoan musika eta hitzak bakarrik dira ikuskizunaren osagaiak. " Proiekzioena oso zaila da, ondo egin behar da; izan ere, askotan proiekzioek nahastu egiten du ikuslea. Irudiekin mezua edo hitza galdu egiten da batzuetan, eta horrek, entzulea despistatu egin izan ohi du; horregatik mezuari eman nahi izan diogu indarra. Irudirik ez dagoen arren, oso koloretsua dela esango nuke; batzuetan Mikelek kantatzen du eta beste batzuetan, Rafak. Errezitatzeaz gainera, nik ere ahots batzuk sartzen ditut", dio Uribek, eta zera gaineratu du: "Bidaia baten antzekoa da, momentu eta sentimendu ezberdinak dituena".

**Honakoa,'Zaharregia txikiegia agian' egitasmoaren bigarren pausoa da**

Ez dute taula gaina bereziki janzten, argiak eta laukotea dira, bada, osagai bakarrak.

### Azaroan estreinatutakoa

Ondarroako Marabilli jaialdian lagun artean erakutsita, New Yorken arrakastaz estreinatu zuten azaroan. Gasteizko Artium -en ere harrera ona izan zuten, eta ilusioz datoz Bergarara.



Urdangarin, Uribe, Rueda, Valverde eta Mendizabal dira egileak. | KAP

---

**KIRMEN URIBE** | POETA

## "Joxan Lizarribar laguna bisitatuta sortu zitzaigun egitasmoaren txispa"

Azaroan New Yorken estreinatu eta Euskal Herrian birritan bakarrik erakutsita, Bergarara ekarriko dute urtarrilaren 24an, egubakoitza, *Jainko txiki eta jostalari hura* egitasmoaren ikuskizuna. Kirmen Uribe poetarekin izan gara.

**Nola jaio zen? Zergatik?**

Joxan Lizarribar gure oso laguna gaixorik zegoela bisitan joan ginen Mikel eta biak. Orduan erabaki genuen zerbait egin behar genuela berriz ere elkarrekin.

**Joxan Lizarribarrek, besteak beste, euskal kulturaren bultzatzaile zenak, piztu zizuen, beraz, beste behin txispa.**

Bai; hala da. Gaur egun oso modan dago *coaching* figura, eta nire ustez, Lizarribar *coach* bat izan zen batez ere Mikelentzat eta biontzat, beste hainbat sortzailerentzat ere izan zen moduan; besteak beste, Ainhoa Artetari ere asko lagundu zion. Orain 10 urte New Yorken *Zaharregia txikiegia agian* egitasmoaren lehenengo emanaldia egin genuenean, hura han zen; eta gero, betidanik izan da oso laguna. Niretzako oso galera handia izan da pertsonalki, momentu askotan bakarrik sentitu naiz hura gabe. Haren indarretik sortutakoa delako berari eskaintzea erabaki genuen CD-liburua.

**"Ikuskizun batek ikuslearen barrua mugitu behar duela uste dugu"**

**Taldekide berak zarete.**

Bai, hala da. Mikelek eta biok erabakia hartu genuenean Rafarengana eta Bingenengana jo genuen eta segituan eman ziguten baiezkoa. Mikel ere batu zen jarraian.

**Zure testuak dira egitasmoaren oinarri. Zeri buruzkoak dira?**

Denetarik dago. Emanaldi bizia da, bizitzako pozak eta nekeak daude jasota (lagun galduei egindako bi pieza daude, besteak beste) eta baita euskalduntasunari buruzkoak ere. Gaur egungo Euskal Herrian gizabanakoak dituen kezkak, besteak beste, euskarari buruzkoak eta baita herri gisa gure buruan sinestera bultzatzen duten testuak ere eta horren harira gaineratuko nuke, aldarria egiten dela adiskidetasuna eta duela gutxi Bilboko manifestaldian ikusi zen moduan, denok elkarrekin aurrera egiteko nahia. Era berean, gure iraganari buruzko autokritika ere badago; Mexiko Berrira joan zen Juan de Oñate konkistatzailearen historia modu ironiko eta umoretsuan kontatzen dugu. Orokorrean, umoretik asko dago.

**Kantatzera ausartzen zara?**

Ez, nik Lou Reed edo, egun, Leonard Cohenek egiten duen moduan egiten dut; hau da, ahotsa modulatu barik, errezitatu egiten dut.

**Bergara ondo ezagutzen duzun herria da.**

Hala da, bai. Familia dut han, osaba-izebak eta lehengusuak ere bai. Lagunak ere dezente ditut Bergaran, horietako batzuk sortzaileak direnak; Asier Altuna, esaterako. Bergara herri oso berezia da niretzat, txikitatik joaten nintzen bertara. Horrez gainera, kultura maite duen herria dela deritzot.

**Ezagun eta ezezagunak ere gonbidatuko dituzu, baina.**

Bai, horixe. Poesia edo musika zaleentzako aproposa da *Jainko txiki eta jostalari* ikuskizuna eta, nola ez, baita euskara maite dugunontzako ere.

**Finean, ondo pasatzeko aitzakia polita, bada.**

Ez izan dudarik; hori da-eta helburu nagusia. Askotariko uneak eta sentimenduak batzen dituen saioa da. Orain artean eskainitako saioetako ikusleengan, barrea, irribarrea eta malkoak ere ikusi ditugu. Ikusleak sentitu egiten du esaten eta egiten duguna; eta hori da gura duguna; bestela, zertarako egin, bada? Ikuskizun batek ikuslearen barrua mugitu behar duela sinesten dugu..

# Amaia antzokia

*Urtarrila-Martxoa* 2014

# Egitaraua

*Urtarrila*

| | | |
|---|---|---|
| *18* | *Kantari* | *Musika* |
| *26* | *Hamlet* | *Antzerkia* |
| *29* | *Debagoieneko piano kontzertua* | *Musika* |

*Otsaila*

| | | |
|---|---|---|
| *09* | *Ondoko hilobiko tipoa* | *Antzerkia* |
| *15* | *Kapsulak* | *Haur-antzerkia / Musika* |
| *28* | *Arrasate Musikaleko ikasleen Inauteritako kontzertua* | *Musika* |

*Martxoa*

| | | |
|---|---|---|
| *04* | *Patxin eta Potxin pailazoak* | *Pailazoak* |
| *09* | *Arrasate Musikaleko Bandaren Inauteritako kontzertua* | *Musika* |
| *15* | *Kameleoia* | *Dantza* |
| *18* | *Madama Butterfly* | *Opera* |
| *29* | *El intérprete* | *Musika-antzerkia* |

**Aldez aurretiko Sarrera salmenta:**

**www.arrasate-mondragon.org**

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


















**Alfredo Gonzalez Chirlaque** | Bergarako Udal Musika Bandako eta Orkestra Sinfonikoko zuzendaria

# "Musikaren alorrean ikasi dudan guztia aitarengandik jaso dut"

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastida zena omenduko du gaur Bergaran (20:00)

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Euskadiko Orkestra sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastida Bergarako bandako zuzendari izandako musikari handia omenduko du gaur, barikua, Udal Pilotalekuan. Kontzertu berezia izango da; izan ere, haren seme Alfredok zuzenduko du orkestra (Goiena telebistak osorik grabatu eta urtarrilaren 24an, barikuan, emango du, 22:15ean). Harekin eta bere alaba Patriziarekin, musikaria ere berau, berba egin dugu.



Alfredo Gonzalez Chirlaque eta bere alaba Patrizia Bergarako Musika Eskolan, martitzenean. | JAGOBA DOMINGO

**Ze harreman daukazu Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin?**

Familiartekoa, gehienbat. Aitak, Bergarako Orfeoiko zuzendari izan zenean, Euskadiko Orkestrarekin hainbat emanaldi egin zituen. Baina Euskadiko Orkestrarekin ez ezik, esaterako, RTVEren Orkestrarekin ere harreman handia izan zuen aitak, Odon Alonso zuzendari zela, Bergarara hainbatean etorri zelako.

**Zela sortu da Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Bergarara etortzeko aukera?**

Iñigo Alberdi Euskadi Orkestrako zuzendari nagusiaren ekimena izan da. Hura Bergaran urte askoan bizi izandakoa da, bertan ikasi du musika, eta Bergarako Udal Musika Bandako eta Orkestra Sinfonikoko kide izana da. Bestetik, Euskadiko Orkestrak herrietara egiten ditu irteerak aldika eta aitarekin zeukan harreman berezia dela-eta erabaki zuen aitaren omenez egitea kontzertua. Ez hori bakarrik, kontzertuan aitaren obra bat eskaintzea eta obra hori nik neuk zuzentzea proposatu zuen.

***Lorea* izeneko zeure aitak konposatutako zortzikoa zuzenduko duzu. Haiek aukeratu dute obra hori?**

Bai. Lorea aitaren biloba bat zen, musika ikastera zihoala, bidean, auto istripuan hil egin zena. Soraluzekoa zen. Eta Iñigo Alberdi soraluzetarra da sortzez. Bestetik, zortziko bat da eta beti izan du

> **"Harreman handia zuten Orkestrako zuzendari nagusiak eta aitak"**

> **"Bandari eman zion maila eta ospea da aitaren ekarpen nagusia"**

gustuko pieza hori. Sentimendu handiko obra da eta ondo islatzen dira aitaren sentimenduak lan horretan.

**Harreman handia zeukan aitarekin Iñigo Alberdik?**

Tronboiaz gain pianoa eta organoa jotzen zituen eta aita ere organista handia zen. Horregatik bien arteko harreman zuzena. Bergarako Santa Marinako parrokiako koroa zuzentzen zuen aitak organoarekin eta Alberdi sarritan aitaren ondoan egoten zen.

**Zirrara berezia sentituko duzu egubakoitzean?**

Bai, bai, jakina, pentsa! Orkestra sinfoniko profesional bat zuzentzea eta aitaren obra bat eskaintzea berezia da. Gainera, oso gutxi da aita joan zitzaigula... Ikusi behar zela erreakzionatzen dudan zuzenean.

**Gonzaleztarren tradizioari eustea ez da makala izango.**

Ikasi dudan guztia aitarengandik jaso dut, dena zor diot hari. Ni, bereziki, bandako musikaria naiz. Nire bizitzako proiektua Bergarako Udal Musika Banda da, batik bat. Nire esku dagoen guztia egingo dut beste urte askoan iraun dezan, nire aitak edo aitonak egin zuten moduan, kalitateari eusten eta etengabe hobetzen, nire ondorengoak ere Bergarak beti izan duen moduko kalitatezko musika banda izan dezan. Bergarako marka bat izan da betidanik Udal Musika Banda.

**Bergarako Orkestra Sinfonikoa ere hor dago.**

Bai, gazteagoa da, ia 30 urte ditu. Hori ere oso inportantea da niretako. Izan ere, orkestra sinfoniko iraunkor eta musikari amateurrez osatuak oso gutxi daude. Herrietan koruak eta abesbatzak badaude, musika bandak badaude; orkestrak, zergatik ez? Halaxe hasi ginen eta hortxe jarraitzen dugu. Musikariak pasa dira ume edo gatetxo izatetik aita-ama izatera eta hor jarraitzen dute.

**Aitaren ekarpen nagusia?**

Konposatu zituen obrak eta Udal Musika Bandari eman zion maila eta ospea. Aitaren obrak han eta hemen entzun dira. Bestetik, beti jakin izan zuen musika banda bat, banda amateurra betiere, maneiatzen. Euskal tradizioari eutsiz konposatu zituen obra asko, hura izan zen bere marka. Beste ekarpen handia, Bergarako herriari utzi dizkion obrak bai bandarako eta baita orkestrarako ere. Eta, azkenik, organista lanetan egindakoa ere nabarmenduko nuke. Jende askori sartu zion organoarekiko harra.

**Aitaren obrarik aipagarriena?**

*Stabat Mater* (1976), amaren, hau da, bere emaztearen omenez egina, hil berritan. Beste erregistro bat erabiliz orkestrarako egindako obra mardula da.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

---

**PATRIZIA GONZALEZ** | BANDAKO ETA ORKESTRAKO KIDEA

## "Aitona zein musikari handia izan zen gogoratzeko unea izango da gaurkoa"

Banda eta Orkestraren alabak Gonzaleztarren trazioari eusten dio, baina musika ez da haren ogibidea..

**Oso berezia izango da egubakoitzeko emanaldia zuretako ere.**

Bai, aitarendako bereziki, baina aita ikusiko dut orkestra handi bat zuzentzen eta aitonaren lanak interpretatzen. Zelako musikari handia izan den gogoratuko dut.

**Zer ikasi zenuen, bereziki, aitonarengandik?**

Otorduetan–eta, aita eta aitona, elkarrekin musikaren gainean solasean ikusten ditut oroitzapenetan. Aitona doinua kantatzen gogoratzen dut. Aitarengandik ikusi dut nik, bereziki, gertukoagoa izan da beti.

**Aitarengandik ikas duzu, hortaz, musika.**

Bai, Musika Eskolan hasi nintzen eta perkusioa ikasi dut. Aitak pianoa erakutsi zidan. Danborrak–eta beti egin zaizkit erakargarriak. Orkestran hasi nintzen eta geroago bandan, 14 bat urterekin. Musika serio hartzen, saiatua izaten, erakutsi dit aitak, teknika menderatzeko ahalegina egiten. Eta, bestalde, sentimendua ere oso inportantea dela, musika barru–barrutik sentiarazten lagundu dit aitak. Musika maitatzea da gakoa. Eta sentimenduek eroan zaitzatela...

**Zer gustatzen zaizu, bereziki, perkusioaren alorrean?**

Laminak. Baina danborrak ere bai...

**Zela eroaten duzu Miguel Gonzalez Bastidaren biloba izatea?**

Ondo, ohituta nago. Ez dit arazorik sortzen horrek.

---

## Euskal musikari handietako bat

Euskal konpositore handietako bat izan da Miguel Gonzalez Bastida (Bergara, 1920). Hamar urte zituenean sartu den Bergarako Udal Musika Bandako kide izatera, geroago, 1941ean, bere aitaren ibilbideari jarraituz, talde honen zuzendari izatera pasa zen arte. Bandarako, ganbera musikarako edo abesbatza taldeetarako hainbat obren egilea da.

## Aurreko mende hasieratik Bergaran

Jose Gonzalez, Salamancatik Tolosara etorri zen piano konpontzailea, da musikari sagako lehena. Haren seme Ignacio Gonzalez Escala 1905ean etorri zen Bergarara Seminarioko musika irakasle eta geroago izendatu zuten Udal Musika Bandako zuzendari. Haren seme Migelek hartu zion lekukoa eta, ondoren, Alfredok, gaur arte.



2012ko urrian Bilbon. | IBAN ARANTZABAL

## Bilboko bandaren omenaldia

Egun berezia izan zen gonzaleztarrendako 2012ko urriaren 28a. Bilboko Udal Musika Bandak omenaldia eskaini zion Miguel Gonzalez Bastidari. Alfredo semeak zuzendu zuen Bilboko banda, Miguelen obrekin osatutako kontzertuan, Euskaldunan, eta bertan elkartu ziren hiru belaunaldi, baita Patrizia ere, azken honen urtebetetzean.

## 'Lorea' eta 'Gabon-Estanpak'

Iazko urriko azken egunean zendu zen Miguel Gonzalez Bastida, 93 urterekin. Ordutik, hainbat omenaldi edo aitortza emanaldi eskaini zaizkio Bergaran: azaroko Bandaren kontzertu berezian eta Gabonetako kontzertuan. Berezia izan zen azken tuttia, *Gabonetako Estanpak*, maisu handiaren obra ezaguna. Euskadiko Orkestrak, gaur, *Lorea*, eskainiz.

# Tindaya mendiari buruzko dokumentala egin gura du Kepa Aranburu oñatiarrak

## Verkami plataformaren bitartez, harpidetza bidezko diru-bilketa zabalik dago

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Eskarmentu handia du Kepa Aranburuk dokumentalak eta bestelako ikus-entzunezkoak egiten. Oraingoan, *Tindaya, montaña sagrada* ondare kultural eta arkeologikoa babestearen gaia aztertzen duen film luzea egin gura du Kanarietako Fuerteventura uhartean.

Dokumentala grabatzeko mikro-mezenasgo kanpaina du abian Verkami plataformaren bitartez; harpidedunek trukean askotariko sariak jasoko dituzte. Urtarrilaren 29a bitartean dago *www.vkm.is/tindaya* helbidean oñatiarraren proiektu berriari laguntzeko aukera.



Kepa Aranburu *Gerrako Garrak Oñatin* dokumentala grabatzen. | XABI REZABAL

**Interes askoren mendi mina**

Txillidak Tindaya mendian egin gura zuen artelan erraldoiari buruz prentsan irakurri zuen artikulu batetik sortu zitzaion dokumentala egiteko harra Aranbururi: "Gaia ikertzen hasita, helduleku asko zituen mendia zela konturatu nintzen. Fuerteventuran kokatu ziren Majoak, hau da, irlako lehenengo biztanleak, eta euren mendi sakratua da Tindaya; horren erakusle, besteak beste, bertan utzi zituzten hanka itxurako Podorfo grabatuak. Era berean, Tindayaren formazio geologikoa ere aipatzekoa da; trakitazko mendia da, hau da, esplotatu gabeko garai bateko sumendia da eta gaur egun lur azalera atera den harri horrek balio handia du merkatuan. Txillidaren proiektuak mendiarekiko interes asko azalerazi zituen, kulturalen gainetik batez ere, ekonomikoak", dio Aranburuk.

Hasita dago mendiaren adar horiek guztiak batzeko hainbat ate jotzen: "Arkeologoekin, historialariekin eta ekologistekin egon naiz eta proiektuarekiko onespena jaso dut. Aurrekontua segurtatu ahala, Kanarietako gobernuarekin eta Txillidaren familiarekin egoteko asmoa ere badut", dio zinegileak.

Bartzelonako zine ikaskide talde batekin grabatu gura du otsailaren amaieran; bada, udaberrian muntatu eta udan erakustea da asmoa.

> ESANAK
>
> **"Proiektuari lagunduz gero, sari politak lor daitezke"**
>
> KEPA ARANBURU | ZINEGILEA

**'www.vkm.is/tindaya'**

Helbide horretan dago proiektuaren informazioa eta bertan egin daitezke 5 eta 1.000 euro arteko harpidetzak. Emandako diru kopuruaren araberako sariak jasoko dira; besteak beste, DVDak, kamisetak, Internetez filma ikusteko aukera eta Oñatiko Lezuri Ormazabalek egindako mendiari buruzko ilustrazioak.

Urtarrilaren 29an amaitzen da kanpaina." Dirua lortu ezean, proiektua birplanteatu egin beharko litzateke. Kanpainaren helburua da grabazio gastuak ordaintzeko behar diren 5.500 euroak lortzea. 8.000-9.000 euro inguruko aurrekontua du dokumentalak guztira: aurre-prestaketa, grabazioa eta muntaia kontuan hartuta", gaineratu du egileak.

# DJ Cristian Varelarekin New Guassen jai itzela bihar

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Musika elektronikoaren jarraitzaileentzako sekulako emanaldia proposatu dute Bergarako New Guass diskotekan biharko, zapatua. Eskarmentu handiko disko-jartzaileak bildu dituzte urteko lehenengo jaialdian, duda barik; izarra, baina, DJ Cristian Varela madrildarra izango da. Jaialdia 23:00etan hasiko da eta sarrerak aurrez 15 eurotan daude salgai eta leihatilan, berriz, 18 eurotan.

Hogei urteko ibilbide luze eta emankorra du: nazioarteko DJ ezagunenetakoa izateaz gainera, musika ekoizlea, musika-eragilea eta enpresaburua ere bada. Adituen esanetan, oso ezagunak dira mundu mailan hiru eta lau platerekin egiten dituen emanaldi indartsuak. Horren erakusle dira orain arte jaso dituen sariak; azkena, 2013. urteko DJ Techo onenarena (aurrez, 2007. urtean eskuratuta zuena). Varelak, gainera, film eta antzezlan ezagunetarako ere lan handiak egin izan ditu.







Ttipia Kultura Sustapenak taldeko Asier Alvares de Arkaia eta Mikel Hernandez Betolaza, Larraitz Zeberiorekin. | L. ZEBERIO

# Umorea barra-barra Elgetan bihartik, bakarrizketei esker

10. urteurrena dela eta II. Monologo Mostra antolatu dute kafe antzokian

**MIRARI ALTUBE** | ELGETA

Bigarrenez antolatu dute Monologo Mostra Elgetako Espaloia kafe antzokian. 10. urteurrena ospatuko dute umorea lagun, eta iazkoak izandakoaren arrakastaren ostean bigarrena antolatzeko zalantzarik ez dute izan: "Jendeak nahi du barre egin, ondo pasatu eta bestelako miseriak ahaztu; eta horretarako umorezko bakarrizketak oso egokiak dira", dio Ttipia Kultura Sustapenak taldeko Mikel Hernandezek. Izan ere, elkarlanean antolatu dute mostra Ttipiak eta Espaloia kafe antzokiak, iaz legez, eta astean eman dute aurtengoaren nondik norakoen berri.

## Umorea, musika eta magia

Bihar, zapatua, hasiko dituzte emanaldiok. David Guapo (Bartzelona, 1980) izango da lehenengo izarra, eta hiru emanaldi egingo ditu aste bukaeran: bihar, zapatua, (20:00 eta 22:30); eta domekan (19:30). Umorea eta musika tartekatzen ditu *showman* ezagunak.

Hurrengoan Luis Piedrahitaren (Coruña, 1977) txanda izango da; umore fina, batzuetan surrealista ere bai, eta magia izango ditu ardatz horrek, urtarrilaren 25ean (22:30) eta 26an (19:30).

Eta bukatzeko Txabi Franquesa (Bartzelona, 1976) eta Sergio Fernandez *El Monaguillo* (Marbella, 1973) etorriko dira, telebistako eta irratiko hainbat saioetan ibilitakoak eta *El club de la comedia* saioko ohiko izarrak. Otsailean izango dira bi horien emanaldiak: otsailaren 1ean (22:30) eta 2an (19:30).

Sarrerak salgai daude Espaloiaren webgunean eta kafe antzokian bertan; prezioak, 14 eta 17 euro artean.

# Arrasateko eta Aramaioko gaztetxoz beteko da Amaia antzokia Kantari saioa grabatzeko

Ia 190 neska-mutiko elkartuko dira bihar, kantuan eta dantzan egiteko

**M.A.** | ARRASATE

Arrasateko 175 gaztetxok eta Aramaioko 12k hitzordu garrantzitsua dute bihar arratsaldean Amaia antzokian, Goiena telebistaren Kantari saioaren grabaketa. Sarrera debalde da eta ez da gonbidapenik behar; hortaz, senide eta lagun guztiak joan daitezke artista gazteak animatzera.



Amaia Txintxurreta aurkezlea Oñatiko neska-mutikoekin. | IMANOL SORIANO

## Telebistan hilaren 21ean

Saioen grabaketak 15:15ean hasiko dituzte eta guztira zazpi izango dira. Batetik besterako itxaronaldia, gainera, Eskoriatzako Andoni DJak girotuko du.

Emanaldiok urtarrilaren 21etik aurrera ikusi ahal izango dira Goiena telebistan, martitzen eta eguenetan (19:30). Eta bihar ateratako argazkiak Kantariren blogean jarriko dituzte astelehenean: *blogak.goiena.net/kantari*. Aurrerago bideoak ere sartuko dituzte bertan.

Aurten, gainera, zozketa egingo dute Kantarin parte hartu duten gaztetxoen artean (gurasoak Goiena Klubeko bazkide dituztenak). Saria da egonaldi bat Costa Dauradan 2014ko Pazko Astean eta Port Aventurarako sarrerak, Eroski Bidaien eskutik. Sari banaketa bihar egingo dute.

# 'Lasa eta Zabala' filmean hartuko du parte Mariasun Pagoaga arrasatearrak

Seigarren filma du Doke Antzerki Taldeko aktoreak eta Lasaren ama izango da oraingoan

**M.A.** | ARRASATE

Seigarren filma egingo du Mariasun Pagoaga aktore arrasatearrak. *Lasa eta Zabala* izango da film horren izenburua, eta Pablo Malo donostiarrak zuzenduko du.

Doke Antzerki Taldeko kide Pagoaga pozik dago aurrez aurre duen erronkarekin: "Zortea izan dut, *casting*-a pasatu nuen eta aurrera. Antzerkia da nire zaletasuna, eta hor sartuta nabil; hortaz, oso pozik nago".

Izenak berak dioen legez, Jose Antonio Lasa eta Jose Inazio Zabala gazte tolosarren istorioa izango du ardatz filmak. Malo zuzendariak istorio errealа eskaini gura du, eta Pagoaga Lasaren ama izango da: "Ez da paper handia, Tolosako gazteak direlako protagonista, baina neu ere hortxe izango naiz". Gainera, ama izanik, sentimenduei dagokienez samurragoa izango dela paperean sartzea argitu du: "Neu be ama naiz, eta garai hura bizi izandakoa, gainera; hortaz, ordukoak berreskuratuko ditut paperean sartzeko".

## Sei errodaje egun

Urtarrilaren 27an hasiko dira filma errodatzen, Baionan, eta Pagoagari sei eguneko errodajea egokitu zaio; otsailaren 4an, 5ean eta 7an izango da Donostian Maloren aginduetara, eta martxoan beste hiru egunean. Baina dagoeneko hasi da filmaren gaineko kontuetan murgiltzen; izan ere, astean izan ditu ile-apaiketa eta jantzi probak.

Badaki ikusmina sortuko duen filma izango dela, kontatuko duen istorioa dela-eta: "1983an gertatu zenez gazteek, seguru asko, ez dute ezagutuko eta beste batzuek erdi ahaztuta izango dute; hortaz, ondo deritzot gogora ekartzeari".

## Bi film estreinatzeko

Pagoaga eskarmentu handiko aktorea da; Doke Antzerki Taldeko kide izanik, antzerkian dabil buru-belarri, baina Euskal Telebistako *Goenkale* telesailean ere agertu izan da. Film luzeetara 2009an egin zuen salto, *80 egunean* film luzearekin. Paper esanguratsua izan zuen han: "Garrantzitsua izan zen hura, eta oso polita, gainera". Eta haren ostean etorri ziren *Bi anai* eta *El precio de la libertad*. Iaz beste bi film egin zituen: *Loreak* eta *Tres Mentiras*. Oraindik estreinatzeko daude biak, eta laster izango dira gure zine aretoetan. *Lasa eta Zabala*, ostera, urtea bukatu baino lehen ez da izango ikusteko moduan.



Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra. | GOIENA

# 65 gutunen artean aukeratuko dituzte Amodiozko Gutunen Lehiaketako saridunak

**M.A.** | BERGARA

Bergarako Jardun Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan 65 gutun jaso dituzte aurten, horietatik 11 Debagoienekoak, eta gehienak emakumezkoek idatzitakoak. Antolatzaileak pozik daude kopuruarekin, iazkoaren oso antzekoa delako.

Sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an, San Balentin egunean, egingo dute, ohi legez, eta bien bitartean epaimahaikoek izango dute lana. Nagusien epaimahaiko kideak hauek dira: Jon Suinaga, Manex Agirre, Miren Narbaiza eta Iratxe Esnaola. Eta gazteena osatuko dute Ipintza eta Aranzadi ikastetxeetako batxilergoko lau ikaslek.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trastelekua. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. 630 70 81 23 edo 646 26 34 04

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Laugarren solairua da. 72 metro koadro. Egongela, sukaldea, bi logela, komuna eta trastelekua. Guztiz berritua. Bizitzera sartzeko prest. Aukera ezinhobea. 99.999 euro. 618 44 38 44

**Bergara.** Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan ematen da. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 170.000 euro, negoziagarri. 626 65 99 94

**Oñati.** Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. Deitu 656 00 84 92 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuolan duplexa errentan.** Herri erdian kokatua. Duplex dotorea. Beheko solairuan sarrera-egongela-sukaldea, zabalik, logela bat eta bainugela guztiz jantzia. Atikoan, 50 metro koadroko logela eta egongela. 699 92 18 60

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen, Udalpe kalean. Bigarren solairua da. Egoera onean dago, guztiz jantzia. Berokuntzarekin. Bikoteak nahiago. 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Eskoriatza.** Duplexa (lau logelarekin) eta hiru logelako etxebizitza bat errentan ematen dira, oso merke. Tel.: . 645 70 36 63

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Prezio onean eta igogailuarekin. 617 98 88 76

**Baserria.** Bailaran baserri edo lursaila duen etxe bat hartuko genuke errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurrak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko genuke. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

**Bergara.** Hiru pertsonaz osatutako familia batek etxe bat hartuko luke errentan Bergaran. 630 99 11 85

**Bergara.** Neska euskalduna etxebizitza bila, errentan. Niretzako bakarrik da. Etxe txikia eta prezio egokian. Eskerrik asko. 680 35 26 00

**Oñati.** Mutil euskaldun eta lan finkodunak etxebizitza hartuko luke errentan, ahal bada erdigunean. 697 83 56 89

**Pisu bila Oñatin.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, 3 logeladuna. Eskerrik asko. Telefonoa: 652 70 35 29

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Arrasaten logela hartuko nuke errantan. Alokairuaren kontratua beharrezkoa. 664 13 67 44

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen, espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. 602 69 31 56

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. 628 85 42 06

**Oñati.** Logela alokatzen da plazatik gertu dagoen duplex berri batean (langileei, ikasleei...). Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen. 943 79 09 59 edo 687 04 49 90

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. 660 83 06 83

### 204. ERRENTAN HARTU

**Autokarabanandako garajea.** Autokarabana sartzeko lekuren bat hartuko nuke Antzuola edo Bergara inguruan. Errentan eman nahi baduzu deitu 676 20 74 35 telefonora.

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Aretxabaleta.** Lokala erosiko nuke. 40-90 metro koadro artekoa. 628 51 22 78

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Gazteentzako lokalak ematen dira errentan. Oso toki ona. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara. 669 36 69 53

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** 15-16 urteko neskak lokal baten bila gabiltza, Arrasaten. Lokal baten berri badazue deitu zenbaki hauetara: 634 45 27 44 edo 671 44 31 90

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
**- Profesionalen moduluak.**

**Eskoriatza edo Aretxabaleta.** 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Kontaktua: lajaboneriadelaalmendra@gmail.com. 690 12 48 51 edo 945 10 09 54

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Bergara.** Premiaz lana bilatzen dut. Edozein motatako lana egiteko prest. 606 24 79 09 edo 943 76 52 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziaduna eta tituluduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanetarako ere. 680 77 06 46

**Bergara.** Neska nagusiak zaintzeko eta etxko lanak egiteko gertu. Formazioa daukat. 943 08 14 33

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperitziaduna, etxeko lan edo zainketarako. Nahiz heldu edo haur. Gidabaimena daukat. Telefonoa: 680 87 38 66

**Debagoiena eta Debabarrena.** Emakumea gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. 943 75 20 98 edo 620 77 30 09

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu zein edozelako garbitasun lanak egiteko gertu. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaindu, garbiketak eta abar. Egunez,, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen zein edozelako garbitasun lanetan. Esperientzia daukat eta ordutegia adosteko gertu nago. Autoa daukat. 618 10 37 50

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. 602 69 31 56

**Debagoiena.** Esperientziadun mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu, egunez. Ospital zein egoitzatan ere lan egingo nuke orduka eta asteburuetan. 685 42 72 80

**Debagoiena.** Gizona gertu etxean lan egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldean laguntzeko. 658 74 94 63

**Debagoiena.** Klinika laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo orduka. Deitu 602 82 14 83 telefonora.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientzia handia dut pertsonen zaintzan. Sukaldatzen ere badakit. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasioan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: egun osoz, etxean bertan bizi izanda, edo bestela. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Neska euskalduna nagusi edo umeak zaintzen zein etxe eta bulegoak garbitzen lan egiteko gertu. Baita ospitalean gauek egiteko ere. Esperientzia eta informeak dauzkat. Autoa ere bai. Erabateko prestutasuna. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: tabernan, sukaldean, umeak zaintzen, baserriak garbitzen eta abar. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: furgoneta gidari, denetariko garbiketak, zerbitzari eta abar. Auto eta kamioaiak gidatzeko baimena daukat eta baita autoa ere. 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen zein garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz eta baita orduka ere. 636 41 98 14

**Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest.** Gizarte hezkuntzan ikasketak dituen eta haurrekin esperientzia duen 28 urteko neska oñatiarra naiz. Arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 637 05 63 35

**Neska euskalduna umeak zaintzeko gertu.** 24 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko edota hezkuntza errefortzua emateko prest. Pedagogian lizentziatua eta haurrekin esperientzia handia. Deitu 669 88 49 55 telefonora.

**Zaintza lanak.** Emakumea gertu gauez zaintza lanak egiteko, ospitalean edo bestela, baita orduka ere. Geriatria titulua daukat eta baita autoa ere. Debagoienetik kanpo joateko arazo barik. 600 00 51 60

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Peugeot 307 SW Pack 2.0 HDi 110 .** 2.003 urtekoa. 159.000km. Neguko gurpilak. Korrea eta filtroak aldatu berri. 634 43 80 66

### 602. EROSI

**Enduro motorra.** Bigarren eskuko Enduroko motorra erosiko nuke. 618 76 34 40

## 7. ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Perikitoa galdu Aretxabaletan.** Aretxabaletako Iturrizar plaza inguruan perikito urdin bat galdu zen urtarrilaren 7an. Norbaitek ikusi edo hartu badu, dei dezala mesedez zenbaki honetara: 680 68 22 93 edo ainereca@gmail.com

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta.** Aluminiozko kuadroa eta karbonozko horkilarekin. Shimano Ultegra piezak. 687 11 07 21

**Elkarteko plaza Bergaran.** Oilagorra elkarteko plaza salgai. 677 45 23 31

### 802. EROSI

**Bogaboo Beerako patinetea.** Bogaboo Beerako bigarren eskuko patinetea erosiko nuke. 627 72 35 82

**Elurretako erraketak.** Elurretako erraketak erosiko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Soinu txikia.** Trikitixa jotzeko bigarren eskuko soinua erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 689 20 72 41 edo 943 76 07 09

### 803. EMAN

**Super Nannyren liburuak.** ematen dira opari. CDarekin. Seiliburu dira eta berri-berri daude. Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

**Poltsikoko egutegiak.** Poltsikoko egutegi txikiak hartuko nituzke. Edozein urte eta iruditakoak izan daitezke. Poltsikoko egutegirik izanez gero deitu telefono zenbaki honetara: 617 17 15 88

### 806. GALDU

**Samsung S2.** Samsung S2 telefonoa galdu da Aretxabaletan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskerrik asko. 639 99 33 34

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Hizkuntza trukea.** Euskara eta espainiera ikasiko nituzke eta nik ingelesa edota urdua irakats nezake. Hizkuntza trukean interesa duenak dei dezal telefono zenbaki honetara: 632 65 54 84


KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m2, 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m2, 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA,
- Bolu 66 m2. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m2. 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m2. 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m2, 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m2. 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m2. 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m2. 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m2, 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m2, 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m2. 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m2. Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54m2. 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m2. 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m2. 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140m2, 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78m2, 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70m2, 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87m2, duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60m2, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115m2, 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m2. 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m2. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m2. Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m2. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83m2. 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m2, 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m2. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.



**IRAGARKIA**

Debagoieneko Mankomunitateak
Garapen Agentzia Zerbitzuaren behin-behineko beharretarako
**TEKNIKARIEN LAN POLTSA**
bat sortu nahi du.

**Beharrezko titulazioa:** Goi mailako unibertsitate-titulazioa (lizentziatua edo graduatua).

